

MERINDADEAK

Nafarroako Historiako Gaiak
Bigarren Hezkuntzarako

1. SINTESI HISTORIKOA



MERINDADEAK

Nafarroako Historiako Gaiak Bigarren Hezkuntzarako

1. Sintesi historikoa

MERINDADEAK

*Nafarroako Historiako Gaiak
Bigarren Hezkuntzarako*

1. Sintesi historikoa

Fermín Miranda García
Román Felones Morrás

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de
Educación y Cultura

Titulua: Merindadeak.
Nafarroako Historiako Gaiak Bigarren Hezkuntzarako.
1. Sintesi Historikoa.

Egileak: Fermín Miranda García eta Román Felones Morrás

Itzultzailea: Matías Múgica

Azala: Mikel Melero

Argazkia: Iruñeko Planetarioa

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Fotokonposizioa: PRETEXTO. Estafeta, 60 - 31001 Iruña

Moldiztegia: Line Grafic

Lege gordairua: NA 1299-1998

I.S.B.N.: 84-235-1749-7

© NAFARROAKO GOBERNUA, Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Bultzatzaile eta banatzaile: Nafarroako Gobernuaren Argitarapen Fondoa
Lehendakaritza Departamentua
Navas de Tolosa, 21
Telefono eta Fax zk.a: 948 42 71 23
31002 Iruña

AURKIBIDEA

| | |
|------------------|----|
| AURKEZPENA | 13 |
|------------------|----|

I

HISTORIAURRETIK ERDI ARORA

| | |
|---|----|
| 1. LEHENBIZIKO JENDEGUNEAK | 19 |
| 1.1. Lehenbiziko aztarnak | 19 |
| 1.2. Gizon berriak eta trebetasun berriak erdi paleolitoan | 20 |
| 1.3. Gaurko gizonaren etorrera | 21 |
| 1.4. Artearen sorrera | 22 |
| 1.5. Iragaitzako denbora | 22 |
| 2. KULTURA SEDENTARIOAK NEOLITIKOTIK PROTOHISTORIARA .. | 25 |
| 2.1. Nekazari eta abeltzainaren hasiera. Neolitikoa Nafarroan | 25 |
| 2.2. Hildakoen zaintzea. Megalitismoa | 27 |
| 2.3. Artea | 28 |
| 2.4. Hizkuntza | 28 |
| 2.5. Migrazio protohistorikoak | 28 |
| 3. BASKOIAK ETA ERROMANIZAZIOA | 31 |
| 3.1. Erromaren bezperan | 31 |
| 3.2. Baskoien aniztasun kulturala | 32 |
| 3.3. Erromaren etorrera | 33 |
| 3.4. Erromarekiko harremanak | 34 |
| 3.5. Lurraldearen antolamendua. Hiriak eta bideak | 34 |
| 3.6. Nekazarien bizitza | 35 |

| | |
|---|----|
| 3.7. Kristautzea | 36 |
| 3.8. Arte erromatarra Nafarroan | 37 |
| 3.9. Inperioaren bukaera. Barbaroak | 37 |
| 4. BISIGODOETATIK MUSULMANETARA (VI-VIII. MENDEAK) | 39 |
| 4.1. Bisigodoen agintaldia | 39 |
| 4.2. Musulmanen etorrera | 40 |
| 5. IRUÑEKO ERRESUMAREN SORRERA ETA GORENALDIA (X-XI. MENDEAK) | 43 |
| 5.1. Konkisten hasiera | 43 |
| 5.2. Iruñeko erresumaren gorenaldia | 44 |
| 5.3. Nekazari gizarte bat | 44 |
| 5.4. Gizarte kristaua | 45 |
| 5.5. Bizitza ekonomikoa | 46 |
| 6. IRUÑEKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERRESUMARA (XI-XIII. MENDEAK) | 47 |
| 6.1. Iruñak errekonkista bukatu (1076-1134) | 47 |
| 6.2. Nafarroako erresumaren behin betiko mugak | 48 |
| 6.3. Frankoen hiriak | 49 |
| 6.4. Erljio gutxiengoak | 49 |
| 6.5. Aldaketa ekonomikoak | 50 |
| 6.6. Done Jakue bidea | 50 |
| 6.7. Arte erromanikoa. Erromesbideko artea | 51 |
| 7. FRANTSES DINASTIAK ETA ERDI AROKO ERRESUMAREN BUKAERA (1234-1512) | 53 |
| 7.1. Txanpainako leinutik Evreuxko leinuraino | 53 |
| 7.2. Gerra zibilak eta gaztelarren konkista | 55 |
| 7.3. Erresumaren instituzioak | 55 |
| 7.4. Gizarte aldaketak | 56 |
| 7.5. Arte Gotikoa | 57 |

II

ARO MODERNOA

| | |
|---|----|
| 8. XVI. MENDEA. NAFARROA GAZTELAREKIN BATZEN DA | 63 |
| 8.1. Erresumaren zatiketa | 64 |
| 8.2. Nafarren leialtasuna | 64 |
| 8.3. «Nafarroa Behere»ko erresuma | 65 |
| 8.4. Frantziako muga | 66 |
| 8.5. Muga ideologikoak | 67 |

| | | |
|-------|--|-----|
| 9. | ERRESUMAREN DEFENTSA XVII. MENDEAN | 69 |
| 9.1. | Frantzia-Espainiaren arteko etsaitasuna | 69 |
| 9.2. | Nafarroa eta «Arma Batasuna» | 71 |
| 9.3. | Azienda muga | 72 |
| 9.4. | Erregeak eta erregeordeak | 73 |
| 9.5. | Kontzientzia historikoa | 74 |
| 10. | INSTITUZIOAK SENDOTZEA (XVI-XVIII. MENDEAK) | 75 |
| 10.1. | Erregeordea | 76 |
| 10.2. | Errege Kontseilua | 76 |
| 10.3. | Tribunalak | 77 |
| 10.4. | Gorteak | 77 |
| 10.5. | Diputazioa | 80 |
| 10.6. | Udalak | 81 |
| 10.7. | Dirua | 82 |
| 11. | GIZARTEAREN ANIZTASUNA | 83 |
| 11.1. | Nobleak | 83 |
| 11.2. | Petxeroak | 85 |
| 11.3. | Auzokoak eta bizilagunak | 85 |
| 11.4. | Apaizak | 86 |
| 11.5. | Maiorazkoa | 86 |
| 11.6. | Hirietako gizartea | 87 |
| 11.7. | Bazter-jendea | 87 |
| 12. | EKONOMIA TRADIZIONAL BAT | 91 |
| 12.1. | Abeltzaintza | 91 |
| 12.2. | Nekazaritza | 92 |
| 12.3. | Eskulangintza eta industria | 93 |
| 12.4. | Komertzioa | 93 |
| 13. | ERLIJIOA, KULTURA ETA ARTEA | 95 |
| 13.1. | Herriaren fedea | 95 |
| 13.2. | Sorginak eta Inkisizioa | 96 |
| 13.3. | Hezkuntza | 96 |
| 13.4. | Hizkuntza. Euskara eta erdara | 97 |
| 13.5. | Arrazoiaren bidea, Errenazimentua eta erromanismoa | 98 |
| 13.6. | Barrokoa gailen | 100 |
| 14. | ILUSTRAZIORAKO IRAGAITZA (XVIII. MENDEA) | 103 |
| 14.1. | Ondorengotza gerra | 103 |
| 14.2. | «Instituzioen» defentsa | 104 |
| 14.3. | Los Arcos. Lurrearen azken buruko diseinua | 104 |

| | |
|--|-----|
| 14.4. Erreformen garaia | 105 |
| 14.5. Nafarroako ordua | 105 |
| 14.6. Mende bukaerako gerrak | 106 |
| 14.7. Foru instituzioen gainbehera | 107 |
| 14.8. Arte klasikoaren itzulera | 107 |

III

XIX. MENDEA

| | |
|--|-----|
| 15. ERRESUMA BATEN BUKAERA (1808-1841) | 111 |
| 15.1. Independentziako Gerra | 111 |
| 15.2. Absolutistak eta liberalak. Ideien gatazka | 113 |
| 15.3. Lehenbiziko karlistada | 116 |
| 15.4. Eredu instituzional bat suntsitzeko bidean | 117 |
| 16. NAFARROA, PROBINTZIA «FORALA» (1841-1902) | 119 |
| 16.1. Instituzio berrien sorrera nekeza | 119 |
| 16.2. Abentura karlistak eta foruen berrezartzea | 120 |
| 16.3. Gobernu zentralaren presioa. Sistema sendotzen da | 122 |
| 16.4. Errestaurazioaren garaiko Espainia | 123 |
| 17. GIZARTEA ESNABIDEAN | 127 |
| 17.1. Gutxi izan eta kanpora | 127 |
| 17.2. Desamortizazioa eta gizarte ondorioak | 130 |
| 17.3. Eliza eta erlijio bizitza. Irudi zahar eta berriak | 132 |
| 17.4. Gizarte egituraren gabeziak | 133 |
| 17.5. Eguneroko bizitza | 134 |
| 18. EKONOMIA BARATURIK | 137 |
| 18.1. Nekazari ekonomia | 137 |
| 18.2. XIX. mendearen bukaera. Krisia eta berrikuntza | 138 |
| 18.3. Barne aduanarik gabeko komertzioa | 140 |
| 18.4. Industria eta banku sistemaren ahulezia | 141 |
| 18.5. Garraioen modernizazioa | 143 |
| 19. KULTURA. EUTSI ETA BERRITU | 145 |
| 19.1. Nafarren hezkuntza | 145 |
| 19.2. Euskara atzeraka | 146 |
| 19.3. Kultura eta ideien mundua | 147 |
| 19.4. Musikoak eta literaturgileak | 148 |
| 19.5. Artea eta modernitatea | 150 |

IV

XX. MENDEA

| | | |
|-------|---|-----|
| 20. | MONARKIKOAK ETA ERREPUBLIKANOAK (1902-1936) | 155 |
| 20.1. | Gizarte politiko berria. Alderdiak eta sindikatuak | 155 |
| 20.2. | Foruak eta Foruen berrezartzea | 157 |
| 20.3. | Primo de Riveraren erreformak | 159 |
| 20.4. | II. Errepublika eta Euskal Estatutua | 159 |
| 21. | FRANKISMOA ETA DEMOKRAZIA (1936-1982) | 165 |
| 21.1. | Nafarroa gerra zibilean (1936-1939) | 165 |
| 21.2. | Foru Erregimena eta Francoren diktadura | 168 |
| 21.3. | Ikuspegi politiko berria | 169 |
| 21.4. | Trantsizioa Nafarroan. Konstituzioa eta Hobeagotzea | 170 |
| 22. | MODERNIZAZIO EKONOMIKOA | 175 |
| 22.1. | Nekazaritza mantso esnatu da | 175 |
| 22.2. | Industria iraultza | 180 |
| 22.3. | Zerbitzuetarako eskualdea | 182 |
| 23. | ERALDATZEN ARI DEN GIZARTE BAT | 185 |
| 23.1. | Nafarroa tradizionala itzaltzen | 185 |
| 23.2. | Nekazaritzako liskarrak, industriako liskarrak | 186 |
| 23.3. | Nekazari bihotzeko gizarte urbanoa | 187 |
| 24. | HEZKUNTZAREN BERRIKUNTZA, KULTURAREN BERRIKUNTZA . | 191 |
| 24.1. | Guztientzako hezkuntza | 191 |
| 24.2. | Arte tradizionala, arte berritzailea eta probokatiboa | 194 |
| 24.3. | «Beste» arteak | 197 |
| 24.4. | Etorkizuna duen hizkuntza | 198 |

AURKEZPENA

Nafarroako historiografiak autore asko eta onak izan ditu mendere-
ren mende. Haietako batzuek ere, beren denbora hartako mugarriak,
gertaeren osotarako ikuspegia eman nahi izan zuten: Bianako Printzea
XV. mendean, Pedro Agramonteko edo Moret eta Alesón XVII eta
XVIII. mendean; eta José María Lacarra XX.ean. Beste batzuek gure his-
toriaren arlo jakin batera mugatu zuten beren ikerlana. Asko dira eta as-
kotarikoak.

Hala guztiz ere, XX. mendeko bigarren erdira arte, eskolatzearen
hazkuntza eta tirada handiak hasi arte, eskuarki instituzio kultural edo
ekonomikoek bultzatuta, ez dugu izan dibulgaziozko historia oroko-
rrik. Haietako lehenbizikoa, nahiz eta berariaz Erdi Arokoa izan, *Histo-
ria Política del Reino de Navarra desde los Orígenes a la Incorporación a Cas-
tilla* da, 3 liburukitan, handik urte batzuetara manual bihurtzekoa.
Azkenekoa, berriz, Nafarroako Gobernuak lagundutako *Historia de Na-
varra* delakoa, 5 liburukitan, eta *Diario de Navarra* argitaratu duen *His-
toria Ilustrada de Navarra* bi liburukitan. Bitarte horretan beste historia
batzuk izan dira, meritu handikoak haiek ere baina zientziaren edo di-
bulgazioaren ikuspegitik interes gutxiagokoak.

Irakurleek, beraz, unibertitate ikasle nahiz historizale soil, bazituz-
ten hainbat testu Nafarroako Historian trebatzen hasteko, eta testuok,
irizpide banarekin idatziak baziren ere, aski ongi asetzen zituzten ira-
kurle trebatu eta saiatu horien premiak.

Baina zitezkeen erabiltzaileak gero eta gehiago izateaz gain, azken urteotan populazio sektore handi bat erantsi zaie: 13tik 18 urtera bitarteko bigarren hezkuntzako ikasleak. 67/1993 Foru Dekretu otsailaren 22koak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma finkatzen duenak, ezartzen du Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiaren arloa izan dadin etapa hau osatzen duten bi zikloetan emanen direnetako bat. Hartarako agintzen diren edukietan, 6. Blokea **Nafarroako Lehenaldi eta Orainaldiari** dagokio. Halaber, ekainaren 23ko 169/97 Dekretuak, batxilergoaren egitura eta curriculuma ezartzen ditu Nafarroako Foru Komunitaterako. Bigarren Kurtsoko Historia Irakasgai komunean Espainia zein Nafarroako gaurko **Historiak** ikas daitezela agintzen du. Bigarren helburu orokorrak dio irakasgai horrek lagun egin behar diola ikasleari gai izateko «Espainia eta Nafarroako berrikiko Historia osatu duten prozesu ekonomiko sozial, politiko eta kulturalak ulertzeko, haien ezaugarri esanguratsuenei antz emanez eta ezaugarriok itxuratu dituzten faktoreak aztertuz».

Aurreko egoeran ikastetxe nahiz irakasleen interesaren mende egoten bazen Nafarroako historia ematea, oraingo partez salto kualitatiboa izan da: Nafarroaren ezagupena Foru curriculumaren osagai da, eta ikasle guztientzako ikasgai nahitaezkoa.

Administrazioaren aurreikuspenak gora behera, ordea, non dira materialak? Zer testu erabili oraintzeko premia honi aurre egiteko? Editorial gehienek muzin egin diote, Nafarroa merkatu kaskarra izaki, milio erdi eskaseko populazioarekin.

Hutsune hori betetzera heldu da **Merindadeak** proiektua: Sintesi historiko bat eta hiru langai koaderno, ikasle-irakasleei laguntzeko abentura berri eta gogo-bizigarri honetan.

Anitzi irudituko zaio ausarta naizela neure egiteko honetan: gaitz da Nafarroaren bilakaera historikoko mugarri nagusiak 200 orrialdetan laburtzen. Egileok berok aitortzen dugu hori inork baino lehen: Zelo profesionala eta egunero sumatzen genuen premia bizia izan ditugu akuilu bakar halako abentura batean benturatzeko. Zeren presenteko testu honek baditu, izan ere, sintesi historiko guztiek berezko dituztenez gain, beste zenbait oztupo: Bigarren Hezkuntza osoan ikaslearekin joa-

teko pentsatua dago; halatan, pixkanaka gero eta sakonera eta handiera handiagoa hartzen du, hiru momentu inportantetan baliagarria izan dadin: lehen zikloan, aurrehistoriatik Erdi Arorainoko ikuspegi azkarra emateko; bigarren zikloan, Aro Modernoaren eta garaikidearen osotarako ikuspegia emateko; eta batxilergoko bigarren kurtsoan, gure egunotako Nafarroaren ikuspegia xeheroago emateko.

Horra bada garbiro esan zein diren gure asmoak. Ikasle-irakasleek juzka bezate. Baina ez dira haiek testuaren hartzaile bakar. Baliagarri izanen ahal zaio, halaber, gure artean gertatuei buruz ikuspegi osotarkoa izan nahi duen edozein herritarri.

Eta topaleku ere izanen ahal da sintesi hau lantzen denean, ikastetxe publiko zein pribatuetan, euskaraz zein erdaraz, guztiona den eta guztion gerizaleku behar duen lur honetan. Dena dela, bihoa gure sintesi hau eta hezkuntza komunitateak juzka beza, guztien artean hobe egin dezagun heldu diren urteetan.

Gure eskerrik beroenak lan hau ahalbidetu duten guztiei, bereziki Lizarraldea B.H.I.ko ikasle-irakasleei, lanaren saiabidean lankide izateagatik. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko arduradunei ere agertu nahi diet neure esker ona, hasiera hasieratik ezin gehiagoko interes eta kemenez hartu baitzuten ekimen hau betegintzarrera ekarri arte.

I
HISTORIAURRETIK
ERDI ARORA

1

LEHENBIZIKO JENDEGUNEAK

1.1. Lehenbiziko aztarnak

Duela milioi erdi bat urte inguru, gizatalde ttiki bat bizitzen zen Atapuerca (Burgos) inguruan. Gaurko gizonen oso antzekoak baziren ere, oraindik ez ziren gaurko luzerara iritsi eta halako animali hazpegiak zituzten. **Hominidoak** ziren oraindik (gaurko giza espeziearen ahaide edo), gureganainoko bilakaera arbolaren adarretako bat, eta ez dakigu noraino garen haien ondorengo edo ea adar hori bere hartan agortu eta galdu egin zen.

Nolanahi ere, huts egiteko beldur handirik gabe esan dezakegu Atapuercako gizon horiek, edo ezaugarri bertsuko beste batzuk, Penintsulako iparralde guztian eta Nafarroan ere mugituko zirela. Nomadak ziren, eta ehizean edo basa fruitu eta landare biltzen aritzen ziren; lurralde handiak ibiliko zituzten noski animalien atzetik, neguan aterbe bila eta udan ur bila. Horrek etengabe lekuz leku ibiltzera behartzen ziotuen. Halatan, baliteke Nafarroako ibai handien (Ebro, Arga, Aragoi etab.) ondoko lurrak gizon horien finkaleku izana behin baino gehiagotan.

Hala ere Arkeologoen ikerlanak ez du halako aztarna zaharrik aurkitu Nafarroan. Ez: **Behé-paleolitoa** (Aurrehistoriaren lehenbiziko eta-

pa) duela 75.000-100.000 urte bukatu arte itxoin behar dugu Pirinio ondoko lurraldeok gizonen bizileku zirela argi igartzeko.

Garai hartan Nafarroako Klima aski gozoa zen, Europako hegoaldea «**Glaziazio-bitarte**» batean baitzegoen. Glaziazioetan neguak luzatu egiten ziren, elurrak hartutako eremua handitu eta mendiak ia urte osoan elurtegi eta izoztegi bihurtzen. Baina glaziaziook aldi batez etenda zeuden orduan eta Pirinioko mendiak eta inguruak bizileku eroso xamarra ziren.

Ez dugu giza gorpuzkirik aurkitu klaro igartzeko aztarnak utzi dituzten lehenbiziko jendeztatzaile horiek zer espeziekoak ziren; segur aski *Homo erectus* tankerakoak ziren, («tentetua», aurrekoetatik bereizteko, konkorturik ibiltzen baitziren).

Tresnak, ordea, ugari aurkitu dira: ehiza eta lanerako tresnak, muger **harriz** eginak; gai gogorra da baina ertz zorrotzak egiteko moldatu daiteke. Tresnarik zaharrenak eta sinpleenak bifazak dira (aurpegi bikoak alegia), **ehizarako** aizkora edo ganibeten gisara erabiliak edo larruak edo sustraiak mozteko. Halako pieza batzuk aurkitu dira Urbasan, muger harria ugari baita bertan (Arantzadua, Olazti, Lezaun), eta bai beste zenbait lekutan ere, hala nola Irunberri, Viana edo Iruña inguruetan.

Hala bada, urtaroz urtaro mugitzen zirela, Nafarroa gehiena ibiltzen zuten, nahiz eta, bide denez, aztarna gehiago aurkitzen diren beren tresnak egiteko erabiltzen zituzten tokietan (**lantegiak**), ahaleginean ez baitziren handik gehiegi urruntzen. Harri landu horiek ezinbestekoak ziren bizirik irauteko, eta hondatu edo galdu egiten baziren lehenbailehen behar ziren berriak. Klima ere gozoa zelarik, Urbasako goi ordokiak edo ibaietako terrazak toki egokiak ziren haize zabalean bizitzeko.

1.2. Gizon berriak eta trebetasun berriak erdi paleolitoan

Gizon horiei espezie berri bat gailendu zitzaien duela 75.000 bat urte, «Neanderthaleko gizona» (haren aztarnak aurkitu ziren lehenbiziko aztarnategiatik hala deitua); aurrekoak baino argiagoa eta trebeagoa zen, nahiz eta segur aski haien ondorengoa zen. Jende berri hauei

aro hotzagoa egokitu zitzaien eta **kobazuloetan** eta mendi aterbeetan gerizatzen ziren neguetan. Baina hobeki moldatu ziren aro latz horietara. Ehiza eta basa fruituen eta landareen bilketa zuten haiek ere bizibide, baina tresna ttikiagoak eta selektiboak nola egin ikasi zuten, hala nola gezi puntak, ganibetak, burilak (orratzak), edo arraspak larrua edo landareak mozteko. Tresnak artean ere harrizkoak baziren ere, espezializazio horri esker ehiza gehiago harrapatzen zuten eta hobeki probeztatzen zituzten naturaren baliabideak. Bisonteak, zaldiak, ahuntzak, oreinak ziren beren mantenurako zituzten animalia oinarrizkoetako batzuk, eta janari horien eta erabilitako tresnen aztarnak aurkitu dira, adibidez, Koskobiloko Gobaren aztarnategian, aurreko etaparen aztarna asko agertu ziren alderdi berean.

1.3. Gaurko Gizonaren etorrera

K.a.ko 35.000 bat urte lehenago, Neanderthaleko gizonak Cro-magnongo gizonari utzi zioten lekua (*Homo sapiens sapiens*), gure arbasorik zuzenekoena. Kasu honetan ez zen bilakaerarik izan: besterik gabe, segur aski, talde batek bestea ordezkatu zuen, agian indarrez, erabat desagertarazi arte.

Aldi hau ere, goi paleolitoa alegia, oso hotza izan zen hasieran, eta gizonak artean ere kobazuloetan eta aterbe gerizatuenetan bizitzen ziren (Koskobilo Olaztin, Berroberria Urdazubin, Zatoia Abaurregainean, beste askoren artean).

Baina aldaketa larriagoak izan zituzten beren bizimoduan. Harrizko tresnak gero eta txikiagoak eta zainduagoak ziren, batzuetan oso espezializatuak. Eta, batez ere, ikasi zuten tresnak **hezurrez** edo boliz egiten, gaitasun handiagokoak. Harpoiak, zagitak, igitaiak edo geziak egiten zituzten gai horiez orain. Hezurra eta zura muger harria baino askoz ugariago egoten zen, eta horrela armak eta tresnak itxuratzeko gaitasuna berretu zelarik, ehizan eta arrantzan harrapatutakoak ere berretu ziren, kobazuloak girotu, eta larrua jantzirako eta bizitegirako lantzea erraztu.

Eta gainera zenbait ohitura hasi ziren orduan Neanderthalei gaurko gizonon antz handia eman zietenak. Hezurrean eta harrian trebeago lantzeko gauza baitziren, apaingarrizko objektuak agertu ziren (alezko lepokoak, diademak); horrek agertzera ematen du beren itxuragatik, estetikagatik, edertasunagatik kezkatzen hasiak zirela, segur aski prestigio sozialarekin, boterearekin edo kezka espiritualekin ere lotura zuten arrazoiengatik.

1.4. Artearen sorrera

Goi Paleolitoko gizonak hortaz sinboloen, kolorearen, formen munduan sartzen ziren. Hots: bizirik iraute hutsa baino haratagoko interesak bereganatu zituzten. Ehiza, arrantza eta fruitu bilketarako gaitasunari esker, segurtatua zuten bizitza bai eta klima hotzetan ere. Orain asti zerbait bazuten kezka ez hain materialez ere arduratzeko.

Kobazuloetako hormak animalia pintatuz betetzen dira, nahiz eta Nafarroan Alkerdikoak (Urdazubi) baizik ez ditugun. Arte hastapen hauek, segur aski, denbora hartako biztanleen interes handienarekin daude lotuta: ehiza ugaria berenganatu nahia alegia. **Kobazuloetako pinturak**, hortaz, ehiza erakartzeko edo Naturaren eta Naturak bizilagun zituen espirituen indarrak beren alde jartzeko zeremoniekin izango zuten zerikusia (hala gertatzen zen, adibidez Amerikako indioen artean). Inoiz, hezur edo bolizko piezetan grabatzen zen animalia irudia (Berroberria, Abautz).

Artean ere aurrerapen teknologiko asko falta baziren ere eta bizi-modua ateratzea latza izaten bazen ere, paleolito bukaerako gizonaren portaera eta pentsakera gaurko gizonarenak berak edo bertsuak ziren.

1.5. Iragaitzako denbora

Nafarroak gaur duen klima epela duela 10.000 bat urte hasi zen azaltzen. Handik gutxira Mediterraneoaren beste aldean aldaketa gaitza hasi zen bizimoduetan, baina oraindik denbora asko beharko zen lur

honetara iristeko. Iragaitzako denbora honi historialariek Epipaleolito-Mesolitoa deitu izan diote (hots: «harri-aro zaharraren bukaera» «harri-aro ertaina»), orain ere, aurrehistoriako etapa guztietan bezala, orduko tresna klaseen arabera.

Pirinio erdialdeko bizilagunak, klima aldaketari esker, ausartzen ziren orain kobazuloetatik atera eta haitz eta harkadien **gerizan** jartzera beren bizilekua (la Peña, Marañonen, Padre Areso Biotzarin), eta bai **zerupeko finkagune** txikietan ere; baina artean ere kobazulo batzuk erabiltzen ziren bizilekutzat, hala nola Zatoia (Abaurregaina), Berroberria (Urdazubi) edo Akelarren Leze (Zugarramurdi).

Ezagun da Ehiza eta eraikuntza tekniketari aurrerapena izan dela, orain oso tamaina txikiko piezekin tresnak egiten baitira (**mikrolitoak**), egokiagoak orain ugaldutako diren espezie berriak harrapatzeko (oreina, basurdea). Klima aldatzean, beroagoa eta hezeagoa orain, basoak gurendu egiten dira eta bai basoetako animaliak ere; giro hotzetako espezieak, berriak, desagertzen, hala nola errenoak eta bisonteak. Arku-geziak erabiltzen dira orain maizago aizkorak eta antzeko arma pisuagoak baino.

Baina periodo honen garrantzia beste zerbaitetan datza: mantso-mantso eta baratu ezineko moduan, ehiza eta bilketa ohitura horien ordean, erabat bestelako bizimodu bat ezarri da; Nafarroan K.a.ko bosgarren milaurtekoan hasten zaio pittin bat igartzen.

Gizona ordu arte Naturak eskaintzen ziona hartuz bizi izan bazen, landaretza edo animalien ziklo naturaletan eskurik hartu gabe, orain lurrrari bere premien arabera emanarazi nahirik hasten da. Ehiztari-biltzailer izaten zena abeltzaintzaren eta nekazaritzaren nekeetan usatzen hasi zen, natura mendera ekartzeko bidean. Iragaitza-aldi honen bukaeran sortutako prozesu luze hori munduan barrena zabaltzeari «iraultza neolitikoa» deitu zaio.

2

KULTURA SEDENTARIOAK. NEOLITIKOTIK PROTOHISTORIARA

2.1. Nekazari eta abeltzainaren hasiera. Neolitikoa Nafarroan

Ehiztaria abeltzain, eta biltzailea **nekazari** bihurtzea izan da, du-
darik gabe, gizajendeak inoiz bizi izan duen prozesurik inportanteena.
Zeren iraun hutseko jarduera batzuetatik askatzeaz gain, lurra lantzeak
etaazienda hazteak erabateko aldaketa ekarri zuen bizimoduetan eta
bizitza bera ulertzeko moduetan. Abeltzaintza bizitza nomadarekin ba-
teratu zitekeen, baina lurra landu beharrak, berriz, nolabaiteko **sedentari-
tarizazioa** ekartzen zuen: nola-hala modu iraunkorrean aterpeetan edo
haize zabalean bizitzea, **herri** handi nahiz txikietan. Bizileku iraunko-
rretan egon behar horrengatik, pieza asko sortu behar izan ziren etxee-
tan erabiltzeko (baxera, jateko tresnak, altxariak).

Bihiak eta oro har janariak biltzeko, ontziak behar izaten ziren gor-
detzeko; horrela sortu zen buztingintza eta horren ondorioz iraultza in-
dustrial primitibo bat edo, ontzi horien kapazitatea eta kalitatea
ezinbestekoa baitzen lurreko produktuak gorde eta negu-udaberrietan
mantenua segurtatzeko.

Gainera, jendea eurite eta lehorteengatik gehiago kezkatzen hasi
zen, uzta hondatu edo hobetu egiten baitzuten; hortaz, kezka espiritua-

lak ere hasi ziren, mundua gobernatzen zuten naturaz-gaindiko legeen intuizioa sortu zen, pentsamentu abstraktoa eta haren plasmazio artistikoa. Goi Paleolitoko gizonak kobazuloetako pinturretan ozta-oztan igarri zion zer hura, handik aurrera bizitzaren parte inportantea izango da.

Eta gainera, habitat modu berriek antolamendu sozial askoz sendagoa ere behar zuten, eginkizunak ere askoz gehiago baitziren eta ondorioz nor bere lanean espezializatzea eta koordinatzea ezinbestekoa zen dena ongi aterako bazen.

Neolitikoa K.a.ko 8.000 urte inguruan hasten da, eta ia 4.000 urte beharko ditu Mediterranioko beste muturrera ailegatzeko. Ordurako, kultura berri bat sortua zen lur haietan, metalak lantzen zekiena. Kultura horren zabalpena askoz arinagoa izanen da, eta beraz askoz denbora tarte txikiagoetan iritsi ziren Nafarroara ohitura neolitikoa, metalurgiaren agerpena (Eneolitikoa) eta metalurgiaren zabalpena.

Zenbait aztarnategik aukera ematen digute berrikuntza horiek ailegatu zireneko bilakaera ikusteko K.a.ko bosgarren milaurtekoetik aurrera; Zatoiako (Abaurregaina) kobazuloan lehenbiziko **zeramika** aztarnak aurkitu dira, **harri leunduzko** tresnak, erabiltzeko errazagoak (azal leundua, forma borobilekoa); eta Marañongo la Peñan edo Biotzariko Padre Areson etxa abereen hezurak, abeltzain lanaren igarbide klaroa.

Nekazaritza beranduxeago hasi zen: basoetan luberriak egiteko (**basoa soiltzeko**) zeramika eta harri leunduzko tresna batzuk K.a.ko 3.000-2.000. urteetara arte ez dira ugaltzen, metalurgiaren garaia dagoeneko hurbil delarik.

Orditik hasi eta K.a.ko lehenbiziko milaurtekoraino, bata bestearen ondo heldu dira aurrerapen teknikoak. **Brontzezko** lehenbiziko piezak azaltzen dira (Sakulo, Erronkarin) eta zeramika handiak, kanpai-itxurako ontzia kasu: mantenuak gordairatzeko ontzi handi bat.

Berrikuntza hauekin batera Penintsula hegoaldeko **etorkinak** ere azaltzen dira, berekin segur aski ohiturak eta kulturmodu aurreratua goak zekartzatela.

Mendietan, abeltzaintza baitzen bertako lanbide nagusia, artean ere kobazuloak eta aterbe jendedunak erabiltzen dira, baina oso desorgani-

zatuak beren egituretan (Artaxoako Farangortean, Muniain Solanan, Bardeetako Aguilar mendian, Buñuelen). Hainbeste jendegune egoteak aditzera ematen du populazioa ugari antza zela, aurreko populazioa eta etorkinak nahasiz sortutakoa. Bitartean, iparraldean populazio korronte horien eragina txikiagoa izango zen.

2.2. Hildakoen zaintzea. Megalitismoa

Pirinioko lurralde hauetan altxatuko dira inon baino gehiago tamaina handiko monumentuak (**megalitoak**), gizaki haien heriotzagana-ko eta naturaz goragokoaganako kezka ondorioz. Europako beste zenbait eskualdetan ere maiz izaten dira halakoak, gehienbat mendigu-reetan eta abeltzaintza lurretan.

Trikuharriak dira lehenbizi, harlauza handiekin egindako ehorzlekuak. Batzuetan oso sinpleak dira (Miruatza Etxarri-Aranatzen, adibidez), baina beste batzuek korridoreak eta barrengo ateak ere dituzte, Farangortean edo Artaxoako Portillo de Enerizen, kasu. Azken horiek, eta bai Ziraukikoa ere, mendietako aziendaren larre-aldarekin lotuta egon daitezke.

Barrenean zenbait hilotz ezartzen ziren, agian familia edo klan berekoak (klana familia ahaide batzuen taldea da), beren apaingarri eta armekin batera, maila soziala gorago eta hobeagoak izaten baitziren. Jende honek, beraz, hil ondoko bizitza batean zuen sineste, eta elkartasun lotura sendoak zituzten. Bestela gaitz litzateke azaltzea zergatik egiten zuten halako monumentuak eraikitzeko ahalegina.

Are bitxiagoak dira **zutarriak edo menhirrak**, zutik landatutako harrizarrak; hauek ere dudarik gabe ezin ulertu dugun esangura espiritualen bat badute. Nafarroan dozena bat badaude, Urbasa eta Aralar mendietatik Baztaneraino.

Nafarroa hego-mendebaleko muturrean, Vianan, **hipogeo** bat aurkitu da (harrizko hormadun hilobia lurrez estalitakoa), Mediterranioko beste zenbait eremutan Brontze Aroan oso maiz izaten den bezala; hor

ezagun da zenbateko eragina izan zuten kultura horiek Nafarroako zenbait eremutan.

2.3. Artea

Denboraren joanean, Paleolitoko kobazulo-pinturek eskematismo maila handia bereganatu zuten (Etxauri, Leartza); argi igartzen zaio hortik gizon haien pentsamentua gero eta abstraktuagoa zela. Aski zituzten lerro eta trazadura lodi bakan batzuk ehiztaria, ehizagaia eta armak ere imajinatzeko, eta bai ehizaren mugimendu osoa, eraso edo animalia-heriotza ere. Inoizka (Uxue mendiko petroglifoak, hau da, harri grabatuak), beren esangura erabat iluntzeraino eskematizatuta daude marrazkiak. Obra horietan iduri du arte abstraktua lauzpabost mila urte aitzinatu zela.

2.4. Hizkuntza

Garaitsu honetan, halaber, K.a.ko bigarren edo hirugarren milaurtekoan, badirudi gaur arte iraun duen hizkuntza baten oinarria osatuta zegoela: euskara hain zuzen. Baina oraindik eragin asko jaso beharko zituen ondorengo mendeetan erromatarrek ezagutu zuten forman egoteko.

Hizkuntza honi erdaraz ematen zaion izena (vascuence) Erromatarren legioak hona iristean topatu zuten lehenbiziko herriaren izenetik heldu da: *baskoiak* (latinez *vascones*). Baina inguruko beste herri batzuk ere euskaradunak ziren: akitanoak (iparraldean), barduloak, karistioak eta autrigoiak (mendebalean). Hizkuntza ez ezik, ohiturak eta bizimoduak ere antzekoak zituzten.

2.5. Migrazio protohistorikoak

Trikuharrien munduak goia jotzen zuen denboran, Mediterraneo ekialdeko kulturak askoz handiagoko kultur maila batera iritsiak ziren.

Mesopotamiako estaduetan edo Egipton tenplo handiak, piramideak, Niloko eta Eufrateseko kanalizazioak egiten ziren eta batez ere aspal-dixkotik idazten hasiak ziren. Historian sartuak ziren, beraz, idatzizko komunikazioa sortzeak markatzen baitu historiaren hasiera.

Aurrerapen kultural horiek askoz beranduago iritsiko ziren Pirinio-*ra; de facto*, kultura mota berberak iraun zuen hemen etenik gabe Kristo-*ren* aurreko lehenbiziko milaurtekoaren hasieraraino; eta orduan ere Ekialdeko aldaketa handien berri ez zekiten etorkinek sortu zuten kultur etena: zelta indoeuroparrak ailegatu, eta berekin **Burdin Aroa** ekarri zuten, brontzea baino askoz gogorragoko eta apurgaitzagoko materiala baita; bitxia bada ere, Nafarroan aro horren ezaugarri nagusia burdinarik eza da.

Segur aski honaino iritsi ziren bidaztiok ez ziren asko izan, baina eragin handia izan zuten halere zenbait bizimodu kanbiatzeko. Frantziaren hegoaldeetik iritsi ziren k.a.ko 900. urtearen inguruan, eta **herri-tajukera** berri bat zabaldu zuten: muinoen gaineko herriak, ordenatua-*goak* (Sansol Muru-Astrainen, La Custodia Vianan) eta harresidunak, kaleak lerro-lerro antolatua*k* (Alto de la Cruz, Cortesen), etxe errektan-*gularrak* etab.

Egitura sozial berria hierarkizatuagoa eta antolatuagoa da. Jende-*gune* handiak txikiagoei gailentzen zaizkie: horrek aditzera ematen du askoz ere iraunkorrago menderatzen zutela lurraldea. Zelaiguneak nahiago dituzte mendialdeak baino, alor-lur hobeak zirelako.

Horregatik, bizimodu tradizionalagoek mendi aldeetara ihes egiten dute, han hegoaldeko jendeen eragina txikiagoa baitzen: errito zenbait besterik ez zitzaien kutsatu: hilak lurperatu beharrean (**inhumazioa**), orain erraustu egiten dituzte (**intzinerazioa**; nahiz eta errautsak gero lurperatu egiten ziren). Halatan Pirinioko **cromlech** edo **harrespil** dire-*lakoak* –erdian errautsok jartzen zitzaizkien harri-zirkuluak– nolabait trikuharrien ondorengoak dira, eta aldi berean aditzera ematen dute ohitura zaharrak zenbateraino zeuden errotuta eta zenbateko eragina izan zuten berriek. Hegoaldeko lurretan urna-zelaiak azaltzen dira. Kultura indoeuropar horien ezaugarri tipikoa: Hildakoen errautsak

dauzkaten buztin ontzien hilerri handiak (La Atalaya Cortesen, La Torraza Valtierran).

Herrietako harresiak, bestalde, jende gerlazaleago baten igarbide dira, beharbada elkarrekin gatazkan aritzen zirelako edo indarrez finkatu zirelako lurralde honetan.

k.a.ko IV. mendearen erdialdean kultura **zeltiberikoaren** eraginak iritsi ziren Penintsula Iberikoaren erdialdetik; dornua sartu zen zerami-ka egiteko, edo **errotak** aleak ehotzeko, eta hortaz garapen ekonomikoa zuzpertz. Ez dakigu benetan metalurgiak zenbateko inportantzia zuen, edo komertzioak edo oihalgintzak, ez eta zer harreman egoten ziren eskuarki beste eskualdeekin. Mediterranioko arro osoan ordurako normalak ziren idatzizko dokumentuak falta baititugu. Nolanahi ere, aurki asko lurrok beretu zituen lehenbiziko inperio handia etorri, eta Historian sartuko ginen.

3

BASKOIAK ETA ERROMANIZAZIOA

3.1. Erromaren bezperan

Inperio horretako idazleei esker, Erromako idazleei esker alegia, badakigu nola zeritzen orduan Nafarroako biztanleei K.a.ko I. mendean bertan: **Baskoiak**; izena segur aski K.a.ko X. mendeko etorkin zelta haiengandik hartuko zuten, baina orain arte ez zen azaldu idazkietan.

Idazleok berok diotenez, baskoiek gaurko Nafarroa baino handixe-agoko lurralde bat hartzen zuten, sargune bana eginaz Kantauri itsasoraino (Oiartzun eta Bidasoan barrena), eta Errioxako iparralde eta Aragoiko iparmendebalera. Baskoiek gaurdaino iritsi den hizkuntza bat zuten: **euskara**, oso jatorri iluneko hizkuntza oraindik ere, hurbileneko beste zenbait herrirekin amankomunean zutena.

Baskoien hizkuntzaz eta ohiturez, izan ere, oso teoria diferenteak erabili dira, haien jatorria esplikatzeko: batzuek uste dute baskoiek **pa-leolitotik** eutsi ziotela bere hartan beren hizkuntzari eta tradizioei; beste batzuek, berriz, urrutiko herrietan (Kaukasoan kasu) aurkitu nahi dizkiete ahaideak, edo Penintsulara Afrika iparraldetik iritsi ziren beste herri batzuetan (**iberoak**).

Gaur aski klaro dago baskoiak hainbat mila urtetako bilakaera baten emaitza direla, beste kultura askoren eraginekin. Alde batetik etor-

kinak etorri zitzaizkien eta bertakoekin nahasi; bestalde, inguruko herrien hizkuntzak ere (iberoak, kasu) aztarna handiak utzi zituen euskararen hiztegian eta syntaxian. Beste batzuetan, aurreratuagoko korrante artistiko eta ekonomikoak iristean aurrekoak zokoratuta geratu ziren.

Baina Penintsulako beste kulturak erromatarren azpian desagertu ziren bitartean, baskoiek eutsi egin zioten hizkuntzari eta zenbait bizi-moduri. Hortaz, gaur arte iraungo zuen herri honen itxura bereziak.

3.2. Baskoien aniztasun kulturala

Baskoiak, inondik ere, ez ziren talde homoginoa. Beste herrietako etorkinak behin eta berriz etorrira, eragin larria izan zuten haiengan, askoz handiagoa hegoaldean, zelaiagoa eta emankorragoa baitzen (*ager delakoa*), iparraldean baino, menditsua eta aziendaduna baitzen (*saltus delakoa*).

Halatan, bada, hegoaldeko biztanleek bizimodu aurreratuagoak ziztuzten, zentro urbano handiekin, nekazaritzarako tresna eta zeramika bereziekin eta inguruko eskualdeekin harremanetan. Hemen etengabe nahasiko ziren bertakoak kanpotikakoekin, harik eta historiaurreko arrazen ezaugarriak desagertu eta askotariko ekarriek osatutako kultur giro bat sortu zen arte.

Iparaldean, aldiz, iraupen hutseko ekonomia egoten zen (hoberean bizirik irauteko adinatsu produzitzen zuten), larre-aldatzen ibiltzen ziren aziendarekin, herri txikietan bizitzen ziren, kobazuloetan ere bai batzuetan, eta sendoago eusten zieten beren ohiturei, bestetako jendearekin oso harreman gutxi baitzuten: neguan aziendarekin mugitu beharrak ekartzen ziena besterik ez.

Orobat, ez dirudi denak biltzeko antolamendu politiko edo instituzionala zeukatenik. Eskualde bakoitza, haran bakoitza, bere gain gobernatzen zen, eta iparraldeko lurretan barne antolamendu handiko egiturarik ez zegoen: familiaren eta klan harremanen mende bizi ziren. Hegoaldean, habitata herri handiagoetan baitzen, antolamendua ere

sendotuagoa izaten zen, udal agintariak zituztela. Jendegune batzuek, eskualdeburu bihurtu eta beren agintepera ekartzen zituzten txikiagoak.

Eta berez askotarikoak ziren baskoi horiek, gainera, hizkuntza eta kultura komun bat zuten beste herri horietarik ere urrunduz joan ziren: akitanoak, barduloak, karistioak eta autrigoiak, lehen esan bezala.

Baina batzuek zein besteek aurreko denboretan jasotako eraginak zirela medio, herri diferente agertu ziren erromatarren begietan K.a.ko II. mendearen hasieran lur hauetara iritsi zirenean.

3.3. Erromaren etorrera

Erromatarrek kartagotarrei borroka egiteko etorri ziren Hispaniara –hala zeritzan latinez Penintsula Iberikoari-. Baina kartagotarrak menderatu ondoren ere, Erromak Penintsulara alde batera beretzearabaki zuen, bai arrazoi estrategiko nola ekonomikoengatik. Hispania mehatzetan eta nekazaritzan baliabide handiko lurra zen, eta Hispania beren esku edukitzeak bide ematen zien ekialdeko Mediterraneo osoa menderatzeko eta Italiara Afrikatik etor zitezkeen erasoetatik defenditzeko. Batzuetan gerraren bidez eta beste batzuetan adiskidantza eta hitzarmenen bidez, pixkanaka erabat jaundu ziren Hispaniaz.

Horrela inguratu ziren, bada, legioak Ebro ibarraren erdialdera K.a.ko II. mendearen hasieran. Lehenbiziko harremanak adiskidantzazkoak izan bide ziren, ez baitzaigu inongo gatazkaren berririk iritsi; aitzitik: denboraren joanean soldadu baskoiak ikusten ditugu erromako legioetan integraturik eta jeneral eta patrizio erromatarren botere burruketan parte hartzen.

Jeneral horietako batek, Ponpeiok hain zuzen, Nafarroan hartu zuen geriza K.a.ko 75. urteko neguan eta orduan *Pompaelo*-ko hiria fundatu (Iruña). Ponpeioren aliatu baskoiak, hortaz, pixkanaka hasi ziren Erromaren eraginpean sartzen.

3.4. Erromarekiko harremanak

Arestian esan bezala, baskoiak ez ziren herri homogeneousoa, eta haie-tako batzuk eragin kultural eta politiko sakoneko prozesu honetaz lan-dara geratu ziren: **erromanizatu** gabe alegia.

Erromak gehienbat lurrik emankorrenak kontrolatu nahi zituen eta komunikazioetarako nahiz lan publiko handietarako funtsezkoak zire-nak. Horrela, bada, Pirinio aurreko arroak eta Ebro Ibarreko lurrak sa- kon erromanizatu zituzten; mendialdean, berriz, Galiara (gaurko Frantzia) eta gainerako inperiora zihoazen bide handiak eta zenbait me- hategi beste interesik ez zuten izan.

Oraingoan ere, beraz, Pirinioko biztanleek askoz txikiagoko eragi- na jaso zuten eta sendoago eutsi zieten beren sinisteei eta bizimoduei, gainerakoek Erromako ohiturak deblau beretzen zituzten bitartean.

Erromari goiz-goizik eratziki zitzaizkion herriak, hala nola *Calagu- rris* (Calahorra), *Cascantum* (Cascante), *Graccurris* (Alfaro ondoan), Inpe- rioko hiriburuko biztanleek bezalatsuko pribilegioak hartu zituzten.

Barrenalderago zeudenak, berriz, *Pompaelo*, kasu (Iruña), *Carak* (Santacara), *Andelos* (Andión, Mendigorrian) edo *Aracilus* (Arakil ibarre- an) beranduago erantsi ziren eta zergapeko hiri edo haranak ziren, bere gainekoak.

K.a.ko III. mendean diferentziok ezabatu ziren eta handik aurrera inperioko herritar guztiek eskubide-eginbehar berberak izan zituzten.

3.5. Lurraldearen antolamendua. Hiriak eta bideak

Behin Hispania menderatu ondoren, Hiru demarkazio edo *probin- tzia* handitan banatu zen: Betica, Lusitania eta iparraldean, *Tarraconensis* delakoa. Probintzia bakoitza ere txikiagoko barrutietan zatiturik zegoen: *conventus* direlakoetan, eta Nafarroa Zaragozako (Caesaraugusta) kon- bentuari loturik geratu zen, *Tarraconsensis* probintziaren barrenean.

Baina Erromako zibilizazioa gehienbat urbanoa zen; beraz lurral- dea antolatzeko oinarri nagusia **hiriak** garatzea izaten zen. Hiriok Ko-

mertzioگونه eta nekazarien hornigune izaten ziren eta galtzada handiak zituzten lopide. Ahalik eta zerbitzu gehien ezartzen zituzten, zein bere tamainaren eta garrantziaren arabera, hasi merkatuetatik eta estol-detaraino, eta bai tenploak, bainu publikoak, ur gordairuak eta akue-duktoak etab.

Iruña (*Pompaelo*) zen baskoien hiri nagusia, Argaren gaineko ibai ter-rraza batean. Hiri erromatarraren aztarnak aurkitu dira gaurko hiriaren parte zaharrean, katedralaren inguruan.

Hala ere, datu arkeologikorik ikusgarrienak Andelostik heldu dira, Mendigorritik hurbil; han, etxe handien hondarrak ez ezik, ur gordairu handia eta jendea urez hornitzeko urtegia aurkitu dira.

Beste hiri inportante batzuk ere izan ziren, hala nola Cascante, zein-ak bere dirua egiten zuen, edo *Cara* (Santacara).

Galtzada handiak zituzten elkarren lopide, inperioa alderen alde pasatzen zituztenak. Galtzada horien hondarrak ageri dira adibidez Zi-raukin, Belaten eta Ibañetan. Iruña, Zaragoza, Bordele edo Leon lotzen zituzten, eta jakina, Erroma bera ere bai. Galtzada-tarte bakoitzak «**milia-rrri**» bat izaten zuen seinale -Oteitza Solanan kasu-, hurrengo hiriraino zenbait milia falta ziren adierazteko. Batzuetan inperio hiribururainoko miliak ere zehazten zituzten ere bai.

3.6. Nekazarien bizitza

Hiriez landara, zernahi *villa* egoten ziren: lurjabe handien bizile-kuak ziren, nekazaritzarako instalazio klase guztiez hornituak: tresnetar-ako etxolak, dolareak eta arandegiak, nekazari jopuentzako bizile-kuak eta nagusia eta haren familiarentzako bizitza handiak, denetariko erosotasunez hornituak.

Villa horietako batzuek inoren beharrik gabe erabat beren buruz irauteko adina produzitzen zuten, eta hala behar izaten zen krisi politi-ko eta ekonomikoen denboran. Nafarroako hegoalde guztian barreiatu-ta aurkitu dira villa handien hondarrak (Ledea, Falces, Arellano, Villa-franca edo Tutera). Gaurko herri askoren jatorria nekazaritza ustiategi horietan bilatu behar da.

Komunikabideei esker, produkzioaren parte bat inguruko eskualdeetan merkaturatzen zen, eta bai urrutiko lurretan ere; eta halaber luzuzko eta modako produktuak ere iristen ziren inperioko beste lurraldeetatik. Harreman ekonomikoak Galiaraino eta Tarracoraino edo Cesaraugustaraino iristen ziren, eta batzuetan Italiaraino ere bai. Hiri nagusiek, Iruñak kasu, **merkatu** banatzaile baten eginkizuna zuten; bertara iristen ziren salgaiak eta bertatik ateratzen ziren nekazari lurretara eta beste hiri batzuetara.

3.7. Kristautzea

Gainerako inperioan bezala, baskoi erromanizatuen panteoian (jainko multzoan alegia), jainko klasikoak zeuden, batetik (Jupiter, Marte, Mercurio, Juno, Minerva etab.), eta bestetik bertako beste batzuk, aurreko denboretatik zetozenak eta eskualde jakin batzuetara mugatutako gurtzapena zutenak.

I. mendearen bigarren erdiaz geroztik erlijio berria hasten da zabaltzen Mediterraneo ekialdetik eta Erromatik: **kristautasuna**. Baina oso luze jo zion halere kristautasunari lur hauetan errotzeak, botereguneetatik aski urruti baitzegoen eta ez baitzuen hiri handirik, kristauak zabalduzaren hasieran nahiago izaten zituzten bezalakorik.

Tradizioak dioenez, santu bat, Saturnino, I. mendean bertan aritu omen zen lur hauetan predikatzen, eta bai beste ikasle batzuekin batera San Fermin fededundua ere, Iruñeko lehenbiziko **apezpikua**, Frantzian martiri hil zena. Baina pasadizo hori eta San Ferminen existentzia bera ere, badirudi geroagoko lelendak direla, lehenbiziko kristau haiek beren erlijioa predikatzeko zituzten zailtasunak ilustratzeko asmatuak.

Kristauak III. mendean hasi ziren ikusgarri zabaltzen. Orduan lehenbiziko diozesa (apezpiku baten eskupeko barrutia) sortu zen Iruñean. IV. mendean kristautasuna inperioko erlijio ofiziala egiten da eta gainerako kultuak desagertzen hasten dira, lehenbizi hirietan eta ondoren nekazarien artean ere bai. Baina baliteke, Erromako inperioak V. mendearen bukaeran desagertzen delarik, artean ere bizirik egotea lehenagoko sinesmenetako batzuk.

3.8. Arte erromatarra Nafarroan

Nafarroan ez dago erromatar arkitekturako lan handirik. Eskabazio arkeologikoek etxe eta tenplo hondar batzuk azaleratu dituzte: kolumnak eta hormak, baina hondar horietatik, gutxi izaki, ezin zaio igarri nolakoak ziren zutik zeuden denboran.

Eskultura hondar batzuk ere kontserbatu dira (buruak, soinak) eta pieza txiki osoren bat ere bai (Mercurio bat Nafarroako museoan).

Mosaikoa da dudarik gabe Nafarroan ale ederrenak utzi dituen arte teknika, zoruen eta pareten apaingarria. Irudi mitologikoak dira gehienetan (Bakoren triunfoa Andelosen edo Musak Arellanon) ehiza irudiak batzuetan (El Ramalete Tuteran) edo hiri-irudiak (Pompaeloko harresiak). Desein geometriko sinple batzuk ere badira (Ledean). Konplikatuena eta koloretsuena Inperioaren bukaera aldekoak izaten dira eta nekazaritza-villa handietatik heldu dira.

3.9. Inperioaren bukaera. Barbaroak

III. mendetik aurrera Erromako inperioa krisi sakon batean sartu eta handik hara ez zen inoiz erabat lehengoratuko. Gerra zibilekin hasi zen dena. Hiriak gero eta arriskutsuagoak zirenez, aberatsak villa handietara aldegin zuten. Hirien kolapsoak dekadentzia ekonomiko luzea ekarri zuen, egitura komertzialak eta komunikazio sareak apurtu zituelako.

Azkenik, herri **germanoak**, ordu arte Europako erdialde eta ekialdean urri eta pobre bizi baitziren, inperioari erasoan hasi eta azken errematea eman zioten mendebalean nahiz eta ekialdean artean ere mende askotan iraun zuen.

Nafarroa Galietatik Hispaniara pasatzeko eremu batean zegoelarik, mende hauetan Penintsula inbaditu zuten guztien erasoak jaso zituen. Horregatik hiriek gainbehera latza egin zuten eta Pompaelo, Cara edo Andelos nekazari herri bihurtu ziren. Iruña bakarrak eutsi zion nolabaiteko prestigio bati apezpikuaren bizilekua zelako.

Bitartean villa handiak hazi egiten ziren, bere gaineko komunitate bihurtuak, bere-bere produkzioarekin aski zutenak. Haietako batzuek ere nozitu zituzten inbasore horien erasoak, Ledeak adibidez.

Behin baino gehiagotan erasotzaile horiek enperadorearen kontra altxatako erromatarrek ziren eta biztanleek berek egin behar izaten zieten buru.

Baina azkenean, V. mendearen hasieran, hainbat herri germano hasi zen Pirinioak pasatzen, eta bidenabar Nafarroako lurraldeak lapurtzen. «**Barbaro**» deitzen zieten, hau da, «atzerritar» esateko hitz grekoa erabiliz. Esangura negatiboa hartuko du orain hitzak. Erromako boterea ez zen jada gauza lurraldea kontrolatzeko eta lurralde osoa **bidelapurrez** bete zen («bagaudak»), bandak osatu eta hirien zein villen erasoan aritzen zirenak.

Azkenik enperadoreak beste barbaro zibilizatuago batzuk deitu zituen laguntzera etortzeko: **bisigodoak**. Penintsulan Iruñean barrena sartu eta eskuperatu zituzten gainerako germanoak eta bidelapur bandak. Baina Mendebaleko inperioa berehala itzaliko zen (476) eta bisigodoak bertan geratu ziren nagusi.

Nolanahi ere, sei mendeko erromatar aginteak oso aztarna sakona utzi zuen: mende askoan iraun zuen komunikazio sarea; eskualdeburu eta sinbolo nagusi zen hiri bat, Iruña; erlijio bat, kristautasuna, bertakoen bat-egingarria gero batean etsaiak etorriko zirenean; hizkuntza bat, **latina**, euskararekin batera erabiltzen zena batez ere gain-gaineko gizarte klaseetan (geroan beste hizkuntza batzuekin batera Nafarroako erromantzea, gaur itzalia, eta bai gaztelania ere sortuko zituena). Eta hizkuntzarekin batera kultura bat, kultura latinoak, zeinarekin orain ere zorretan gauden.

BISIGODOETATIK MUSULMANETARA (VI-VIII. MENDEAK)

4.1. Bisigodoen agintaldia

V. mendearen bukaeran erromatarren agintearen ordeztu bisigodoena ezarri zen. Bisigodoak Frantziaren hegoaldea eta ia Hispania osoa beretu zuten, nahiz eta VI. mende hasieratik aurrera Penintsulara mugatu ziren, eta Penintsulan bertan ere Sueboak menderatu beharrean egon ziren (Galizian) eta bizantinoak, Andaluziako parte bat kendu baitzieten.

Bisigodoen erresumak, mendebaleko erresumarik azkarrenetakoa bazen ere, oso barne egitura ahula zuen eta oso maiz izaten ziren botere-borrokak. Horregatik erregeek oso nekez baizik ez zuten lortzen lurraldea kontrolatzea. Jendegune larriak, Iruña kasu, soldadu-goarnizio batzuk izaten zituzten babesteko, baina garrantzi gutxiagoko edo irispide zailagoko eskualdeak, mendialdea, kasu, administrazioaz landara bizi ziren. Gainera, eta erromatarren garaian bezalaxe, mendialde horiek interes ekonomiko eskasa zuten eta ez zuten merezi ahalegin militar larririk egitea kontrolatzeko.

Mendialde horietan baskoiak urri bizi ziren oso, eta negua luze joaten bazen edo urteko azienda edo uzta eskasa bazen, berehala gosetzen ziren. Horregatik, hegoaldeko lur emankorragoei eraso egin beharrean

egoten ziren askotan, janari eta ondasun bila, hilko ez baziren. Errege bisigodoek maiz egin behar izan zieten buru atake horiei («baskoien ateraldiak») eta batzuetan preso hartutakoak lanean jarri zituzten hiri fortifikatuetan, Erriberrin, kasu.

Batzuetan, baskoi talde horiek mertzenario gisa parte hartu zuten buruzagi bisigodo bat Erregeren kontra matxinatzen zenean.

Baina Iruñerrian eta Ebro inguruan bertako nobleziak, Erromatarren garaikoaren ondorengoa baitzen, men egin zion bisigodoen agintari eta bai barrengo itun eta burruketan parte hartu ere. Adibidez, musulmanak Hispaniara iritsi zirenean 711. urte inguruan, Errege Rodrigo Iruñean zegoen bere etsaien aldekoak menderatu nahirik.

4.2. Musulmanen etorrera

Musulmanek erabat garaitu zuten Bisigodoen armada Guadaleteko batailan, eta urte gutxitan erresuma beretu zuten, batzuetan Rodrigoren etsaiak lagun hartuta, beste batzuetan, berriz, beren buruz men egiten ez bazieten, hiriak besterik gabe konkistatuz.

Gure lurraldean modu batera baino gehiagotara izan zen **men egite** hori. Ebro inguruan Bisigodoen agintari inportanteenek agintari berriak onartu ez ezik, fededundu ere egin ziren erlijio berrian, eta horrela beren pribilegioei eutsi. Hurrengo mendeetako familiarik sonatuena, Banu Qasitarrak, gobernadore bisigodoaren ondorengoak ziren.

Musulmanek interes gutxiago zuten iparraldeko eskualdeetan, hiriguneak txikiagoak baitziren, mendi asko zeuden eta ez baitziren egoiak erregadioa edo nekazaritza intentsiboa ezartzeko. Horregatik, beren **soberania** aitortu eta **tributu** bat pagatzearen truke, utzi zieten bertako agintariei beren ahalmenei, bere lege-ohiturei eta bai beren erlijioari ere eusten.

Hasierako denbora honetan musulmanen aginteak Frankoen erresuma zuen mehatxu bakarra, batez ere Karlomagno enperadorea, Ebroko ibarra eta Iruña ere beretu nahi izan baitzituen. Pirinio iparraldeko baskoiekin izandako gatazka batek Orreagako desegigora eraman zuen

(778). Iruña menderatzeko beste saioen bat edo beste izan bazen ere, denek huts egin zuten.

IX. mendea aurrera zihoala, Iruñeko buruzagi kristauek eta Ebro inguruko eta Cordobako buruzagi musulmanek gero eta harreman txarragoak izan zituzten. Iruñerrian Aristarren familia nagusitu zen, eta batzuekin elkar hartuz eta besteei borroka eginez beregaintasun handia lortu zuen.

Gainera Pirinioko ibarretara ere hedatu zuten beren itzala, ordu arte gainerako lurretatik aski bananduta baitzeuden (Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa etab.), eta hortaz franko berretu zen Iruñaren agintepeko lurraldea.

IRUÑEKO ERRESUMAREN SORRERA ETA GORENALDIA (X.-XI. MENDEAK)

5.1. Konkisten hasiera

X. mendearen hasieran, Antso Gartzes erregetzen delarik (905-925), erabateko independentzia hasten da al-Andalusko arabeeen aurrean, eta Iruñeko erresuma sortzen da; horrela deitu zen hiri horrek sinbolizatzen zuelako kristautasunaren (apezpiku egoitza zen) eta inguruko nobleziaren aitzindaritza, kristauen agintepeko lurralde guztian ez baitzen bera adinako herririk.

Erregek, bere menpekoen aho bateko leialtasunaz baliatuz eta Leongo erregearen laguntzarekin, musulmanen aldi bateko ahultasuna aprobetxatu eta **Estellerria** eta **Errioxako** mendebala bereganatu zituen, Arabako Errioxa barne, non monasterio (San Millán) eta hiri (Naxera, Calahorra) handiz betetako kultura aurkitu zuen, bere lehenagoko lurretakoa baino askoz ere aurrerratuagoa. Gainera, Aragoi ere beretu zuen, semea konderri horren oinordekoarekin ezkondu zitzaizolarik. Garai hartan itun eta lur bakura asko ezkontzen bidez egiten ziren.

Cordobako kalifatzak X. mendearen gainerako urteetan atake asko egin bazituen ere (Abd al-Rahman III.a, Almanzor), ezin berreskuratu izan zituen galdutako lurrak. Aitzitik, Iruñaren gaineko presioa zela medio, erresuma eremu baketsuagoetara hedatu zen, hala nola **Baztan**,

Bidasoa eta **Gipuzkoara**. Oso antolamendu gutxiko eskualdeak ziren eta segur aski X. mendeko bigarren erdi honetan okupatu zituzten.

5.2. Iruñeko erresumaren gorenaldia

Cordobako kalifatoa krisian hasi zelarik 1000. urte inguruan, Iruñeko erresumak bere aldirik loriosena hasi zuen. Antso Gartzes III.a Handia (*Antso Handia*), Espainia Kristauko Erregerik inportanteena bihurtu zen.

Aragoi mendebaleko eskualdeak konkistatu zituen (Sobrarbe eta Ribagorza), Leongo erresumaren politikan esku hartu, elizgizonik inportanteenekin harremanak ezarri eta eliz instituzioen barne erreforma sakona lortu zuen. Hala ere, Sobrarbe ezik, ez zuen konkista larririk egin musulmanen aurrean.

Hil zenean, Iruñeko erresumak, arestian esandakoez gain **Araba** eta **Bizkaia** ere bere zituen, lehenago Gaztelako konderrikoak baitziren.

Baina haren ondorengoek ezin izan zioten hegemonia horri eutsi. Zabalkunde militarren ordeztasun, orain erresuma musulman aberatsei *pariak* (tributuak) kobratzeko sistema ezarri zen, hala nola Zaragozakoari, bakearen truke. Gainera Aragoik gero eta handiagoko autonomia eskuratua zuen eta azkenik bertako buruzagiak, Antso Ramirezek eta Gaztela-Leonetako erregeak, Alfonso VI.ak, elkarrekin partitu zuten Iruñeko erresuma Antso Gartzes IV Peñalengoa erahil zutenean, 1076an. Gaztelako erregea Errioxaz, Bizkaiaz eta Arabaz jabetu zen. Aragoikoak bereitu zituen Iruñeko Erregearen titulua eta gainerako lurraldeak.

5.3. Nekazari gizarte bat

Erdi Aroko lehenbiziko mende hauetan (historialariek Erdi Aro Garaia deitzen diete), Iruñeko erresuma nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi zen gehienbat; herrixka asko zituen eta hirigune handirik ez. Iruñak berak ezer gutxi zuen hiritik, izenaz landara.

Baina oso lurralde jendetsua zen halere, musulmanen etsaigoak galarazi egiten zuelako populazioa emigratzea, eta ahal zen etekinik handiena atera behar zitzaion lurrari. Konkistei esker, eremu jendegabeagoz jabetu ziren, eta iparraldean mendi-ibarrak ere ustiatzen hasi ziren ahal zen heinean. Hala eta guztiz ere, populazioaren usutasuna oso handia zen lurraren tamaina eta posibilitate ekonomikoen aldean.

Lurra **Erregerena**, **nobleena** eta **Elizarena** zen, eta **nekazariak** lantzen zuten, **errenta** bat pagatuz, eskuarki uztaren parte bat. Lurjabe laikoak Erromako Inperioaren bukaerako eta Bisigodoen agintaldiko latifundista handien ondorengoak ziren. Gorengo nobleziaren kideek, *baroiak*, Erregerekin batera parte hartzen zuten erresuma gobernatzen eta *tenentzien* buru izaten ziren: hala zeritzen gaztelu edo gotorleku batetik kontrolatzen ziren barruti militarrei.

Nekazariak jopuen eta kolonoen ondorengoak ziren, eta ez zuten zilegi beren soroak uztea uztaren eta errenta pagatzearen jarraipena segurtatzen ez bazen.

Lur jabe xume asko pixkanaka jaun handien agintepera pasatu ziren haien babesa lortzeko, baina beste batzuek eutsi egin zioten beren lurren jabetzari eta noble maila aitortzen zitzaaien. Handik mende batzuetara, «**infan зоiak**» edo kapareak deituko zieten. Haietako askok beste nekazarien pare-pareko egoera ekonomikoa zuten, baina askoz ere goragoko estimazio soziala.

5.4. Gizarte kristaua

Kristautasuna zen gizarte honetako habe ideologiko handia, bai buruzagi-taldeentzat nola nekazariarentzat. Kristaua izateak sortzetik hiltzeraino markatzen zion jendeari bizimodua eta bai gizarte portaerako arauak eta legeak ere agintzen. Kristaua izatea askoz inportanteagoa zen Iruñeko erresumakoa izatea baino. Horregatik eliz agintariak eta egoitzek pisu larria izaten zuten gizartean.

Iruñak bere apezpikua zuen, bertako elizaren burua, eta bai katedral bat ere (horrela esaten zitzaion apezpikuak bertan ematen zuelako bere «katedra», bere irakaspena alegia), baina anitz monasterio eta eliza ere baziren.

IX. mendearen erditsurako badakigu Leireko monasterioaren berri, Nafarroa osoko handiena izatekoa baitzen, eta Antso Gartzes I.aren komkistekin Iratxeko (Estellerria) edo San Millango (Errioxa) monasterioak ere erantsi ziren. Denek beneditarren araua onartu zuten, hau da, San Benitok mende batzuk lehenago ezarri zituen bizi eta portaera arauak, Europa kristau gehientsuenean nagusi zirenak.

Monasterio horiek erlijiozko bizimoduaren gertaleku ez ezik, garai hartako kulturaren eta jakintzaren gordeleku ere izaten ziren. Albeldako monasteriotik heldu dira, adibidez, X. mendean idatzitako libururik ederrenetako batzuk.

Erregek eta nobleek askotan lurrak, opari preziosoak, dirua eta abar ematen zizkietenez, monasteriook behin baino gehiagotan ondare larrixkoa bildu zuten. Gainera, Kristau guztiek beren parrokiari hamarrrena pagatu behar zioten (irabazien ehuneko hamarra), apaizen premiak asetzen eta eliz eraikinak egiten laguntzeko.

Gainera gune inportanteenetako abadeek eta, jakina, Iruñeko apezpikuak, itzal handia zuten Erregeren kontseilari gisa.

5.5. Bizitza ekonomikoa

Esan bezala, jende gehiena **nekazaritzatik** eta **abeltzaintzatik** bizi zen. Errioxako eremu batzuk kenduta, aurreratuagoak baitziren, apenas egoten zen komertziorik, eta **artisaauk** ere gutxi izaten ziren, nekazarien tresnak egiten edo konpontzen zituztenak gehienbat.

Laboreak, ardantzea, oliboa eta ardi eta zerri azienda ziren nekazari-lanik ohikoenak.

Paguak *ondasunetan* edo *trukean* egiten ziren. Aberez edo bihiz pagatzen ziren gauzak, oso diru gutxi egoten zelako. XI. mendearen bigarren erdialderaino ez zen **dirurik** egin Iruñeko erresuma osorako, eta lehenago erabiltzen ziren apurrak al-Andalustik edo Europako beste erresumetatik heldu ziren. Baina beren nahasturako metalaren arabera balio baitzuten, non-nahi onartzen ziren.

IRUÑEKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERRESUMARA (XI.-XIII. MENDEAK)

6.1. Iruñak Errekonkista bukatu (1076-1134)

Mende erdi batez Aragoiko erregea Iruñeko Errege ere izan zen. Iruñeko azken erregeek ez zieten lurralde handirik kendu musulmanei, nahiago izan baitzuten bakea eskeini tributuen truke. Iruña eta Aragoiko errege berriok, ordea, Ebro ibarreko musulmanen botorea suntsitzea beste asmorik ez zuten izan, eta berrogei urte horietan Huesca, Zaragoza eta **Tutera** konkistatu zituzten, inguruko eskualde guztiekin. Gainera Alfonso I.ak Arabako eta Bizkaiko lurak ere berreskuratu zituen, Gaztelak 1076an okupatu zituenak.

Denbora horretan Europa osoa gurutze-gerretan abiatua zen buru-belarri Lur Santua arabeen eskuetatik kendu beharrez, eta Penintsulako erresuma kristauei ere zaldun askok laguntzen zieten, **errekonkista** beste gurutze-gerra bat zela iritzirik. Erdi Aroko mendeko horietan erlijio-karrera agian inoiz baino handiagoa izan zen, eta Iruña-Aragoiko erregeek, suhartasun berarekin, beren lurraldeak zabaltzeko aprobeixatu zuten abialdi hura.

1134an Alfonso I.a hil zenean, Iruña eta Aragoi berriz banatu ziren. Iruñak Tuterako Erribera beretzat gelditu zuen, baina azken hamarkadetan berretutako beste lur guztiak Aragoiek eraman zituen. Iruña ez

zen aurrerantzean Islamaren mugakide izango eta hemengo errekonkista bukatua zen.

6.2. Nafarroako erresumaren behin betiko mugak

Erregek ordutik beste kezkabide bat izan zuten: Nola galarazi Gaztela eta Aragoiri, aldameneko erresuma askoz ere boteretsuagoi, Nafarroa irenstea. Hartarako ezinbestekoa zen erresumako talde sozial guztiak Erregeren inguruan bat eginik edukitzea, nola boteretsuenak nola ahulenak, denak herri bat berekoak zirela eta Errege guztien agintaria zela sinestarazirik. Ordu arte, izan ere, Erregek gehienbat bere nobleen bitartez izaten zuen harremana bere menpekoekin, eta noble horiek ez izaki beti leialak.

Aldaketa horren seinalagarri, izena ere aldatu zitzaion erresumari: Iruñekoa gabe, hemendik aurrera **Nafarroako** erresuma esango zaio. XII. mendearen erdialdean. «Nafarra» nekazari jendeari esaten zitzaion. Izen hori jartzean Antso VI.a Jakintsuak aditzera eman nahi zuen Nafarroako jende guztiak ardura ziola eta ez bakarrik nobleek.

Haren seme Antso VII.a Azkarrak ezin izan zuen galarazi Gipuzkoa eta Araba gehiena Gaztelak beretzea, Erregeren aginte esturik nahi ez zuten noble horietako batzuen laguntzarekin. Ordainetan Nafarroak bukatu zuen, Antso VI.aren denboran hasita, Bortuez haratako lurra menderatzez, gaurko **Nafarroa Beherea** alegia. Beste hiri batzuk ere, Pettilla de Aragon, kasu, eta Xabier, garai honetan eratxikitzen zaizkio Nafarroari.

Gaztelauen obraz hainbeste lur galdu bazituen ere, Antso Azkarrak Gaztelako erregearekin batera lan egin zuen almohadeen inbasioa baratzeko, inperio musulman horrek mehatxu egiten baitzien kristauei Penintsulako hegoaldeetik. Navas de Tolosako batailan ere parte hartu zuen (1212), eta hango garaipenetik sortu zen Nafarroaren Armarriko kateen leienda. Seme-alabarik gabe hil baitzen, koroa Txanpainiako Teobaldo bere ilobari egokitu zitzaion. Bera izan zen frantses leinuko lehenbiziko erregea Nafarroan.

6.3. Frankoen hiriak

XI. eta XII. mendeetan Europa guztian ekonomiak goraldi bizia izan zuten. Nekazaritzak eta abeltzaintzak aurrera handia egin zuten. Komertzioak, komunikabideek eta hiriek garapen galanta izan zuten. Hiri horiei *burguak* esan zitzaizen eta bertakoei **burgesak**.

Nafarroa Europa eta Espainia lotzen zituen bidagurutze batean zegoen. Hortaz aurki asko iritsi ziren hona aurrerapen horiek. XI. mendearen bukaera aldean eta XII.aren hasieran, etorkin asko iritsi ziren Frantziaren hegoaldetik Nafarroan ezartzeko, komertzioan eta eskulangintzan arituz. Lizarra, Gares, Erriberri edo Elo bezalako hiriak agertu eta garatu ziren, eta Iruñean aparteko auzoak sortu ziren: San Cernin eta San Nicolas. Bertako jendeari pribilegio bereziak eman zizkieten, *foruak* alegia, trabarik ez izateko beren eginkizunetan. Nekazariak ez bezala, horiek lurjabearen menpeko baitziren, etorkinok gizon libreak ziren («*frankoak*») eta zilegi zuten lurra saldu nahiz erostea, salgai negozioetan aritzea non-nahi, beren udal agintariak hautatzea edo administrazio publikoan postuak edukitzea.

Gainera 1119an konkistatuta, Nafarroak bazuen hiri bat berariaz eginkizun horietan aritzen zena: Tuteran. Bertako bizilagunei, kistauak haiek ere, foru berezia eman zitzaizen. Erriberako hiriburua Erdi Aro gehientsuan Erresumako hiririk jendetsuena izan zen.

6.4. Erlijio gutxiengoak

Frankoekin batera **juduak** ere etorri ziren: banka negozioetan espezializatutako gutxiengoa, eta hiri nagusietan judu-auzoak sortu ziren: Iruñean eta Lizarran. Tuterak segur aski lehendik ere bazuen judu-auzo bat, musulmanen agintalditik.

Musulman askok aldegin bazuten ere, eskulangile eta nekazari xumeak Erriberan geratu ziren, eta *mairu-auzoetan* zokoratu zituzten, bertan beren ofizioetan aritzen segitzeko.

Bai juduek eta bai **mairuek** beren-berenen legeak zituzten, eta jeneralean errespetuz tratatzen bazituzten ere, aparteko auzoetan bizi ziren

eta eginbehar bereziak izaten zituzten. Nafarroako Erdi Aroko gizarteak, Europa guztiak bezala, kristautasuna zuen oinarri, eta beste erlijio batekoa izatea oso traba larria zen gainerako populazioarekin harremanetan egoteko.

6.5. Aldaketa ekonomikoak

Franko eta juduekin aldaketa handiak etorri ziren. Jende gehiena artean ere nekazari aritzen zen, baina eskala handiko eskulangintza eta komertzioa sortzean mundu guztiak aldatu behar izan zituen bere ohitura ekonomikoetako asko. Dirua erabat normaldu zen eta pixkanaka trukea eta ondasunetan pagatzeko ohitura galdu zen. *Kanbistak* azaltzen dira, dirua kanbiatzea ofizio duen jendea, eta bai inbertsioak eta maileguak egitea ere.

Hiri handienek (Iruña, Tuter, Lizarra etab.), astero izaten zuten merkatua, inguruko nekazariak eta komertziantek txikiak beren produktuak saltzeko, edo urtero feria ere egiten zuten, erresuma guztiko eta bai atzerriko merkatariak eta erostunak etorrita. Bertan laboreak, ardoa, oiha, espezieak, olioak saltzen ziren eta mailegu eta negozioak eratzten.

Biltzar hauek hain izaten ziren jendetsuak non agintariak bide batez gaiztaginen kontrako juizio eta kastiguak antolatzeke ere aprobeztatzen zuten, horrela herritarrei ordena eta segurtasunaren irudia emateko.

6.6. Done Jakue bidea

Frankoen hiriak komunikazio bide handien bazterretan egoten ziren maizenik. Nafarroan bide horiek Bortuz haratagotik heldu ziren, Orreagan barrena eta Zangoatik. Lehenbiziko bideak Iruñean barrena gurutzatzen zuen erresuma; bigarrenak Elon barrena eta biek Garesen jotzen zuten elkar. Handik Lizarrara eta Los Arcosera eta Vianan barrena uzten zuten Nafarroa.

Bide horietan **erromesak** ibiltzen ziren, Compostelara, Santiago apostoluaren hilobia bisitatzera bidean. Horregatik esaten zaie **Santiago bideak**. Frantzia iparralde eta ekialdeko puntu batzuetan hasi eta Galiziaraino joaten zen. Horrez gain beste bide adar asko ere baziren, garrantzi gutxiagokoak, bidaztiaren komenentziaren arabera erabiltzen zirenak.

Erromesek eskubidea baitzuten laguntza eta babesa hartzeko, **Os-pitalak** eratu ziren haien mesederako: Orreagan, kasu. Aberatsenak hirietako **ostatuetan** jartzen ziren eta haien diruak zuzpertz egiten zuen ekonomia. Baina erromes intelektualak, artistak, elizgizonak nobleak eta printzeak ere joaten ziren batzuetan erromes. Eta Nafarroatik pasabidenabar hainbat berrikuntza tekniko, arte estilo berriak eragin ideologikoak etab. utziko zituzten.

6.7. Arte erromanikoa. Erromesbideko artea

Santiagobidean barrena, adibidez, **Erromanikoaren** arte joera berriak iritsi ziren. Kanoi erako ganga, puntu erdiko arkuak, kapitel historiatuak, edo Jakako xake-itxurako apaingarriak (Santiagobideko ezau-garri tipikoa) pixkanaka Nafarroa guztian hedatu eta jaundu ziren, erromanikoaren aurreko eraikinak lekutuz: haietako ale gutxi iritsi zaizkigu: Iratxetako garaia, adibidez.

Lehenbizi Aralarko San Migelgo lanak izan ziren edo Leireko San Salbatoreko kriptak eta absidetako lanak, XI. mende bukaerarako akabatuak.

Hurrengo mendean, ehunka eliza eraiki ziren estilo horretan, hasi herri txikienetatik eta monasterio handietaraino. **Iruñeko** katedral zaharra, (zeinetik kapitel batzuk beste hondarrak ez ditugun), **Tuterakoa**, **Uxueko** Santa Maria edo **Zangozako** Santa Maria, **Iratxeko** Monasterioaren eliza, horra hor eraikin inportante batzuk, beste asko aipa balitezke ere.

Eraikin horietako batzuek atari eta klaustroak dituzte eta bertan askotariko eskultura taldeak ageri dira, Bibliako pasarteak eta bai ba-

tzuetan leienda mitologikoak ere irudikatzen dituztenak (ikus Zangozako Santa Mariaren ataria), edo eguneroko bizitzaren gertaerak.

Erromanikoaren teknikak artean ere eskas ziren eraikin handiak egiteko, eta, batez ere herri txikietan erromanikoak ederki ematen du aditzera nekazarien bizimodu sinple eta murrizta. Baina bestetik, apaingarriek eta hiri handietan eraikin handiagoak egiteko saioek (**Lizarrako** San Pedro eta San Migel, **Erriberriko** San Pedro, **Garesko** Santiago, etab.), agertzeraz ematen dute zenbateko indarra hartzen hasia zen mundu urbanoa, eta hiri horietako burgesek eta apaizek zenbateko prestigio-gosea zuten. Zenbait eraikin zibil ere, hala nola Lizarrako errege-jauregia, gaur Gustavo de Maeztu museoa, hirien kemen horren erakusburu ona dira.

XII. mendearen erdi aldera arte erromanikoa oso errenergatua egin zen, aldaketa sozial eta akademikoen eta bai eliza katolikoaren boterearen sinboloa zen partez. Hiri handietako luxu eta ongi izatearen aurkez aurk, erreforma bat sortu zen monjeek urriagoko eta disziplinatugoko bizitza izan zezaten. San Bernardoren erreforma da, edo beste hitzetan, erreforma zistertarra, artean ere hainbat aldaketa sortuko zituen.

Apaingarriak ia erabat desagertu ziren. Teknika berriek arku puntaduna edo ojibala sartu zuten. Hari esker, Zisterko arkitektoek beste osagai batzuk kendu ahal izan zituzten beren obretatik, hain beharrezkoak ez zirenak. Horregatik Irantzu, la Oliva edo Fiteroko elizek horma soil-soilak ageri dituzte, oso pilare gutxirekin, ordena horren hasierako arauak bezain neurtuak.

Baina erreakzio artistiko hori zenbait monasteriotan baizik ez zen gertatu. Hiriek botere erakuskari ikusgarriagoak nahi zituzten, eta hartarako oraintxe agertzen ari zen arte berri bat, arte gotikoa, askoz ere baliagarriagoa izan zuten erromanikoa edo zistertarra baino.

7

FRANTSES DINASTIAK ETA ERDI AROKO ERRESUMAREN BUKAERA (1234-1512)

7.1. Txanpainako leinutik Evreuxko leinuraino

Txanpainako leinuak Nafarroan laketzearekin hasten da Nafarroan Frantses jatorriko erregeen agintaldia, Berant Erdi Aroko lehenbiziko bi mendeetan. Haietako batzuk ez ziren sekulan Nafarroan agertu, beste batzuek oso gutxitan egin zioten bisita eta gobernadoreen bidez hots eman zioten erresumari.

Baina Frantzia garai hartan Europako herririk aurreratuena zen eta Nafarroak mesede izan zuen hori, gobernadore horiek Bortuez haraindi abian jartzen hasitako erreforma administratiboak sartu zituztelako hemen ere.

Txanpaina leinuko erregeek «**merindade**»etan banatu zuten erresuma, merino bana (gobernadore suerte bat) buru zuten barruti militar administratiboak. Lehenbiziko lau merindadeak Mendialdea, Zangozako, Lizarrakoa eta Erriberakoa izan ziren. XX. mendean Erriberrikoa ere sortu zen. Bortu-haraindiak erregimen berezia zuen eta inoiz ez zuen merinorik izan.

Gainera fiskoa ere berrantolatu zuten eta bere lehen **Foru orokorra** eman zioten erresumari. Foru hori halako *Konstituzio bat* zen, herritar

guztiek, bai Erregek ere, obeditu beharreko agindu-sail bat. Denboraren joanean beste artikulu asko eta askotarikoak erantsi zitzaizkion Foru honi.

XIII. mendearen bukaeran (1276-1328), Frantziako erregeak Nafarroako Errege ere izaten ziren, Juana I.a Frantziako erregegai zen Felipe Ederrarekin ezkondu zenetik. Frantziako erregeek bere koroako beste lurralde bat bezala tratatu zuten Nafarroa, eta biziki mindu zituzten Nafarroako noblezia eta hiriak, nahiz eta aldi berean aurrera segitu zuten instituzioak modernizatzen.

Noizbait ere, 1328an, Nafarroak berriz izan zuen bere-bere errege bat, Frantzian ez baitzen zilegi emakume bat egotea tronoan. Juana II. Evreuxkoa, Erregeren alaba, Nafarroako erregina bihurtu zen; Frantzian, bitartean, gerra luzea hasi zen koroa nork eskurako: Ehun Urteetako Gerra.

Evreuxko leinuak ondasun asko zituen Frantzian, eta bertako gerra eta azpijoko guztietan hartu zuten parte.

Hartarako oso **zerga** dorpeak eskatu zizkioten beren menpekoei eta zerga biltzeko sistemak ahal zen guztian hobetu zituzten baliabideei etekinik handiena ateratzeko. Horrela dirutza handiak eskuratu ahal izan zituzten, garaia aski kalamidadetsua izan bazen ere. Gizarte osoak nozitu zituen XIV. mendearen erdialdean **Izurri Beltzaren** ondorioak. Nafarroan erdira jaitsi zen populazioa. Hegoaldean izan zen sarraskirik handiena. Erdi Aro guztian, inoizka berriz pizten zen gaitza; horregatik populazioa ez zen XVI. mendera arte lehengoratu.

Karlos II.a izan zen errege gerrazaleena. Haren seme Karlos III. Noblea (1387-1425) barne kontuetara irauli zen eta zergetako diruaren parte bat erabiliz luju eta punpezia handiko gorte bat eratu zuen hemen. Berak eraiki zuen **Erriberriko jauregia**, nahi zuen distiraren erakusgarri, bere gaztaroan ezgaututako gorte europarren irudira.

Bakezalea ere bazen; hala erakutsi zuen Iruñeko hiru auzoak baterazi zituenean, ordu arte zein bere eskuko baitziren eta hiru mendez etengabeko ahakarrean aritu baitziren. 1423an bategite-agindua eman zuen: handik aurrera Iruña hiri bakarra izan zen, populazio osoarentzako instituzio komunekin.

7.2. Gerra zibilak eta gaztelarren konkista

XV. mendearen erdialdean gerra zibila sortu zen. Aitzakia Juan II.a eta haren seme Vianako Printzea errege izateko borroka izan zen. Baina azpi-azpian nobleen arteko etsaitasunak eta ahalik eta botere zatirik handiena bereganatu nahia zegoen.

Bi talde aristokratiko handi eratu ziren: Agramontarrak eta Beaumontarrak, *Agramont* eta *Beaumont* handiki familien izenetatik, familia horiek, beste noble askorekin ahaidego eta ekonomiazko harremanak baitzituzten. Geratzen zen mende-zatian elkar akabatu beharrez aritu ziren eta erresumaren ekonomia eta fiskoa erabateko kaosean ezarri.

XV. mende bukaeran aldameneko bi potentzia handiek, Frantziak eta Gaztela-Aragoiek, beren mesede erabili zituzten **etsaitasun** horiek, Europako estatu nagusi izan nahian alegia. Azkenik, Gaztela-Aragoiko erregeak, Fernando Katolikoak, Beaumontarrak lagun, Nafarroaz jabetu zen 1512an. Handik hiru urtera Erregeak eta Gaztelako korteeak dekretatu zuten erresuma **Gaztelarekin** betiko bat eginik zegoela nahiz eta bere lege eta instituzioei eutsiko zien.

Nafarroako azken errege-erreginek, Juan II.ak eta Katalinak, Frantziaren hegoaldeko lurretara ihes egin zuten, eta erresuma berreskuratzeko zenbait saio izan baziren ere, haien ondorengoek Nafarroa Beherea besterik ez zuten gelditu berentzat, gaztelauek, defendatu ezinik, hura utzi zutenean (1527-1530).

7.3. Erresumaren instituzioak

Erdi Aroaren hasieran Erregeren inguruko jendea eta kontseilariak aski gutxi izaten ziren. **Gortea** txikia zen eta etengabe mugitzen ari zen. Gobernu kontuek ez zuten kontseilari gehiegirik behar izaten ia etengabeko gerran aritzen zen herri batean.

Baina frantses jatorrriko leinuek instituzioak modernizatu zituztenean, administrazioaren egitura korapilatu egin zen oso, organismo egituratuagoekin eta funtzionario espezializatuekin. Gizarteak arreta

gehiago eskatzen zuen. Ekonomiak ere ahalegin handiagoa, Erresumako eta bere administrazioko problemek erregeak behartu zituzten geroz eta kontseilari gehiago edukitzera eta bai gobernu lanean lagunduko zieten teknikariak ere.

Itzal handieneko noble eta elizgizonen osatutako **Kontseilu** batek aholku ematen zion gai ardurakoetan.

Gainera, gizarte talde inportanteenen (nobleen eta elizaren) ordezkariak **Gorteak** osatzen zituzten. Inportantzia handia zuten, berek ematen ziotelako baimena zergen kobrantzari eta eskubidea zutelako Erregeri legeak aldatzea proposatzeko.

Beste instituzio batzuk justizi emaile ziren: **Cort** delakoa adibidez, Auzitegi Gorena bezalako zerbait (nahiz bere erabakien kontra Errege-Kontseiluari hel egiten ahal zitzaion). **Kontuen Ganberak** kontu publikoak errebisatzeko ardura zuen, errege ondarearen gastuak, diru sarreak, eta funtzionarioen lana kontrolatzeko.

Gainera merindadeetan eta hiri-herri nagusietan Erregeren mandatarari bana egoten zen, eta gainera zerga eta errenta biltzaileak, soldadu aldeak gaztelu eta gotorlekuetan, etab. Frankoen hiriek beren **kontzeju** propioak izaten zituzten: auzokoek hautatuak ziren eta beren legeen arabera erabiltzen zituzten udal kontuak. Beste hiri edo herrietan bertako jaunak (erregea izan, aitoren seme bat izan, edo monasterioa), erabaki-ahalmen handiagoa zuen.

7.4. Gizarte aldaketak

Burgesiak gora egiten bazuen ere, **nekazaria** zen artean ere gizartearen osagai nagusia, aurreko mendeetako baldintza beretan; baina erresumako lege orokorrek (Foru Orokorra) haien eskubide-eginbeharrak mugatu zituzten.

Hala ere, XIV eta XV. mendeetan ibar pobreenetako jendeari, bereziki mendialdean (Erronkari, eta Baztan beste askoren artean) **franko** eta **kapare** maila eman zioten, haien egoera hobetu eta eskualde horien gainbehera galarazi nahirik.

Esan bezala kapare horietako asko nekazarien kondizio beretan bizi ziren, baina ez zuten errentarik pagatzen lurra lantzeagatik eta errazago lortzen zuten zenbait zergaz salbuestea.

Goreneko Nobleziak (handikiak eta zaldunak) eta **Elizako** kargudun inportanteenek, gizarte eta erlijio funtzioaz gain administrazio publikoko kargu asko ere izaten zituzten beren esku (Errege Kontseilua, Gorteak, merinoak).

Burgesiak ere bere ordezkioak zituen gorteeetan eta saldu-erosian eta artisau lanean aritu ez ezik, administrazioako kargu espezializatu gehienak beretzat esku izaten zituen (juezak, notarioak, zerga-ofizialeak etab.)

Erljio gutxiengok gainbehera hasi ziren Erdi Aroko azken urteetan. Zenbait arotan jende asko **kristautu** zen. Hala ere Erdi Aroa bukatzeaz zela, artean ere baziren **musulmanak** Erriberako dozen erdi bat herritan.

Juduek problema latzak izan zituzten Europa guztian, antisemitismo uhin batzuetan. Beste erlijio batekoak izateaz gain, juduak interes handiko mailegu-emaile aritzen ziren, eta hortik heldu zitzairen zordun zeukaten kristau jendearen gorrotoa. Lizarra, Funes eta San Adriango Judu-auzoak atakatu zituzten 1328an. XV. mendearen bukaeran Tuterakoa besterik ez zen geratzen.

1498an erregeek juduak **kasatu** zituzten Nafarroatik, baina gehienek nahiago izan zuten kristautu eta geratzea. Gaztela eta Aragoien sei urte lehenago hartu zuten neurri hori eta errege-erregina katolikoek, batasun erlijiosoaz zuzpertzeko eginahaletan, bultzatzen zuten Nafarroako errege-erreginei haiek ere gauza bera egiteko.

7.5. Arte Gotikoa

Burgesia, hiriak eta komertzioa garatzen zirenarekin batera, arte **gotikoaren** gorenaldia heldu da. Esan gabe doa eliza gotiko txiki asko daudela nekazari herri txikietan, baina estilo horren eta haren sinbolismoaren agerkari handiena hiriaren mundua da. Bertan eraikitzen dira

eliza eta katedral handiak, bertako jendearen harrobide eta botere ekonomiko politikoaren erakusburu.

Ezagutza tekniko berriei esker (arku puntadunak, kruzeriako gangak, arbotanteak) gero eta handiagoko eraikinak egin daitezke, urrutitik ikusteko modukoak eta hiri-eremu osoa betetzen dutenak. Eraikinok egiteak urteak eta urteak irauten baitu, egin bitartean estiloa moda berrien arabera aldatuz joaten zaie. Halatan, beren kokalekuko hiriaren historiaren adierazgarri ederrak izaten dira.

Eliza erromaniko asko, egituraz sinpleagoak, kendu eta gotikoak jartzen dira haien orde. Lehengo horiek baino askoz handiagoak ez baziren ere, herri hartako aberastasuna agertzera emateko balio zuten.

Nafarroak Espainian aurrenekoen artean jaso zuen arte berria, Frantziatik Santiago bidean barrena. XIII. mendean **Orreagako** Santa Mariaren Eliza eraiki zen, Parisko katedralaren miniaturazko kopia. Handik ehun urtera, **Erriberriko** Santa Maria eraikitzen ari zen.

Baina Nafarroako gotikoaren momumentu gogoangarriena **Iruñeko katedrala** da eta haren klaustroa, Europako arte gotikoaren adibide ederrenetako bat.

Gotikoaren teknikekin elizak ez ezik beste eraikin batzuk ere egiten ziren, gaztelu eta jauregiak ere bai, kasu, **Erriberrikoa** bezala. Gaurdaino anitz etxe iritsi dira arku puntadun eta lehiho geminatuekin Nafarroa osoan barrena. Estilo honek hain izan zuen arrakasta gaitza non XVI. mendera arte iraungo duen, Europako beste toki askotan Errenazimentuko moden arabera eraikitzen hasi eta gero ere indartsu.

Arkitekturak ez ezik beste arteek ere pieza ikusgarriak utzi dizkigute. Eliza barreneko eskulturek, bereziki Amabirjinarenek, hala nola Orreagakoa, horren mostra ona dira. Erregeen hilobiak ere aipagarriak dira (Karlos III.arena Iruñeko katedralean) eta apezpiku eta handiki askorenak ere.

Eliza eta jauregietako hormetan freskoak egoten ziren, kolore bizi-ko irudi erlijiozko eta kortesanoekin. Nafarroan erlijioari buruzkoak besterik ez da gordetzen, hala nola Artaxoako San Saturninokoak, Erri-

berriko San Pedrokoak edo katedraleko jantokikoak. Denak Nafarroako Museoan daude.

Urregin-lan ederrak ere egiten dira (eliz ontziak, joiak eta erliategiak), Karlos III.aren kaliza, kasu, edo Arantze Santuaren erlikitegiak, katedralean, edo Karlomagnoren xake jokoa (hau ere erlikiarioa) Orreagan.

II ARO MODERNOA

XVI. MENDEA. NAFARROA GAZTELAREKIN BATZEN DA

1512an Gaztelako armadak Nafarroako erresuma azpira ekarri eta Juan III.a eta Katalina errege-erreginak bortuez haratako lurretara ihes egin beharrean egon ziren. Baina Nafarroa Gaztelari eratzikitzekeo prozesua oso luzea izan zen; orduan hasi baizik ez zen egin. Atzera-aurrea asko izanen ditu XVI. mendean bertan. Nafar askok lehenagoko erregeak zituzten gogo-bihotzetan eta laguntza eman zieten Erresuma berreskuratzeko saioetan. Beste batzuek, berriz, berehala etsi zuten egoera berrian eta bai probetxu atera ere hartatik. Errege berriak luzaz mesfidatu ziren gizarte talde inportanteenen leialtasunaz (noblezia, kleroa, burgesia). Baina mesfidantza horrek berak agian sendotu egin zituen erresumako **instituzioak** eta lege bereziak, pribilegio horiek bermatzearen truke, galarazi egiten baitziren arrisku handiagoko liskarrik eta protestak.

Halatan, bada, lehenbiziko momentuan **konkista** izan zen, orduko Europan nagusitzeko Frantziak eta Espainiak zerabiltzaten liskarren barranean. Ondoren, ordea, erreforma batzuk etorri ziren eta erreforma horiek alde batetik Gaztelarekin batzea **-eratzikitzea-** bermatu zuten, baina bai bestetik Nafarroari bide eman ere foru eta instituzio berezien sistemari hiru mende baino gehiagoan eusteko.

8.1. Erresumaren zatiketa

Nafarroako erregeak behin eta berriz ahalegindu ziren galdutako eremua **berreskuratzen**. Saio horietako batean erresuma gehientsuenaz jabetu egin ere bai. Azken saioan buruzagi gehienak frantses militarrek ziren, gehienbat Espainiaren kontrako borrokan interesatuak, eta ez hainbeste Nafarroa bere lehengo erregeei itzultzean. 1521-1522an porrot egin zuen.

Baina erresumak bazuen Espainiatik oso nekez baizik defenda ez zitekeen eremu bat: bortu-haraindia hain zuzen, gaur **Nafarroa Beherea** esaten zaiona. Horregatik handik urte gutxira Gaztelako soldaduek leku horiek hustu zituzten eta Juan eta Katalinaren ondorengoa, haien seme Enrike II.a Albretekoa, lur horietan ezarri zen. Erresuma zati horrek, hala ere, 1.500 km² baizik ez zituen; Nafarroa Garaiak, berriz, bortuez hego aldera, halako zazpi zen.

8.2. Nafarren leialtasuna

Baina zatiketa fisiko horrez gain, zatiketa politikoa ere bazen. Erdi Aroaren bukaerako gerra zibiletan bi bando oso boteretsu ibili ziren elkarren kontra: **agramontarrak**, Gaztelarekin bat egitearen kontrakoak, eta **beaumontarrak**, eginahala guztian batzearen aldekoak. Bi taldeotako kide asko segur aski famili harremanengatik edo botere ekonomiko edo politikoa lortu beharrezko arrazoiengatik ari ziren, eta ez inongo patriotismo sentimentu batengatik gaur ulertzen dugun moduan behintzat. Nazioa edo aberria bezalako ideiek artean ere oso erro eskasa zuten gizartean.

Denboraren joanean agramontarrek egoera berrian etsi beste bideirik ez zuten izan. Haietako asko Nafarroan gelditu ziren eta men egin zioten Fernando Katolikoa errege berriari. Beste batzuek ihes egin eta errekonkista saioetan parte haru zuten. Gehienak itzuli egin ziren pixkanaka, behin eta berrizko **indultuak** aprobetxatuz, adibidez. Errege berriek (Fernando Katolikoa, Karlos I.), interes handia zuten populazioaren leialtasuna edo neutraltasuna erdiesteko, bereziki aristokrazia eta

gorengo elizgizonena, Nafarroa mendean edukitzeko, eta horregatik onartu zuten hain erraz ihes egindakoak itzultzea eta bai behin baino gehiagotan kendutako ondasunak itzultzeko agindu ere erregetzat aitortzen bazituzten (1523, 1524). Azkenean exiliatu gehien-gehienak itzuli eta lehengo jabetza eta karguetan ezarri ziren.

Baina batzuen eta besteen etsaitasunak luze iraungo zuen; erregeek eta haien ordezkariak arreta handia jarri behar izan zuten agramontarrei nahiz beaumontarrei ematen zizkieten mesede eta karguetan oreka bilatzen gizarte bakeari eutsiko bazioten, nahiz eta orain gatazka militarrik edo matxinadarik ez izan.

Eta gainera agramontar askok Juan eta Katalinaren edo haien seme Enrike II.aren aldeko atera baitziren, erregeek susmoa zuten lehengo **leialtasunean** irauten zutela eta parada izanez gero hutsik gabe lagun egingo zutelara. Urtez eta urtez, XVII. mendean bertan ere, Erregeren ordezkariak nafarren leialtasunaz duda egiten dute beren txostenetan eta noizetik noizera Albretarrak berriz erregetzeko konspirazioen hotsa ibiltzen da. Zuzmur horiek faltsoak izaten ziren gehienak, baina aditzera ematen dute egoera politiko eta instituzionalari luze jo ziola trankil-tzeak.

Denboraren joanean, dela etsi zutelako dela komentzitu zirelako, batzuek eta besteek onartu zuten 1512ko konkistaren aurreko egoera ez zela inoiz itzuliko.

8.3. «Nafarroa Behere»ko erresuma

Albretarrek, Nafarroa Beherea ez ezik, beste jabetza handi asko ziztuzten Frantziaren hegoaldean. Biarno eta Albretako jaunak ere baziren, besteak beste, eta beraz oso noble botoretsuak Frantzian. Baina batez ere Nafarroako errege legitimoztat zuten beren burua oraindik ere; Pauen ezarri zuten gorrea (Biarnon), eta handik gobernatu beren erresuma. Beren interesak defendatzeko Frantziako politikan esku hartu zuten, eta bai oso gatazka larrietako protagonista izan ere bai, hala nola katoliko eta protestanteen arteko muturketan. XVI.aren mendearen erditsuan Juana III.a kalbinista egin zen, protestantismoaren adarretako bat. Garai

hartan, Erdi Aroan bezala, gatazka asko ezkontzen bidez konpontzen ziren, eta ezkontza baten bidez, haren seme Enrike III.a Frantziako errege izan zen (1598), baina atzera katolikotu behar izan zuen populazioa bere alde jartzeko. Nafarroa Beherea Frantziari eratxiki zitzaion eta erregeak handik hara Frantzia eta Nafarroako errege titulatzeko ziren.

Baina hango instituzioek ez dute izango hegoaldekoek adinako beregaintasunik; gero eta eskumen gutxiago izango dituzte. Entzungor egingo zaie gehienetan bertakoen erreklamazioei. Azkenik, Frantziako Iraultzatik sortutako batzarrak (1789), Nafarroako errege titulua suntsitu eta lurralde hori Pirinio Behereetako Departamentuari (probintziari, alegia) eratxiki zion: Nafarroa beherea, Biarno, Lapurdi eta Zuberoaz osatua. Gaur Pirinio Atlantikoetako departamentua da.

Ez da ahaztu behar anitz urtez Albret-tarrek Nafarroa Beherean zuten gortea oso **kulturgune** inportantea izan zela, zeinera Europako literaturgile eta humanista handi asko biltzen ziren. Enrike II.aren emaztea, Margarita Angulemakoa, fama handiko idazlea izan zen, *Hep-tameron* liburuaren egilea. William Shakespearek zirkulu horretan girotutako obra bat idatzi zuen (*Amodio Galduaren lanak*), orduko intelektualek erreginari zioten errespetu eta mirespenaren erakusgarri.

8.4. Frantziako mugan

Nafarroa Beherea abandonatuz gero, Pirinioko muga, ukitu txiki-
ren bat gora behera, gaur dagoena bera izan da. Baina muga horrek, Euro-
pako bi monarkia handiren eta elkarren etsairen ukigunea osatzen
du. Nafarroa inbasio saio baterako bidea izan zitekeen. Horregatik Na-
farroa segurtatzea izan zuten kezka larria Austria leinuko erregeek.

Lurraldearen **defentsa** Iruñean kontzentratzea erabaki zuten. Gaz-
teluz eta harresiz hornitu ere egin zuten edozein setiori buru egiteko
moduan. XVI. mende bukaeran izan ziren lanik handienak eta
XVII.aren hasieran: Iruñeko **gotorlekua**, horma maldatuz, arroilez eta
baluartez hornitua, teknika modernoenen arabera.

Baina muga horietan sekulan ez zen izan esateko moduko borroka
saiorik. mende horietan oso maiz izan ziren Frantzia eta Espainiaren ar-

teko gerrak, baina Italia, Alemania edo Flandesko (gaurko Herbehereak) gudulekuetan mamitzen ziren. Hemen berriz oso noizetik noizera baizik ez zen izaten talka ttikiren bat, jendea asaldatu bai baina egiaz beste gatazkaleku inportanteagoetatik atentzioa desbideratzeko baizik balio ez zutenak. Ez Frantziak ez Espainiak ez zuten borroka bere lurraldera eraman nahi eta nahiago zuten urrutiko herrietan egitea. Hala ere, prekauzioak hartu behar ziren eta hartarako gotorlekua baliabide ederra zen.

8.5. Muga ideologikoak

Azkenean muga ideologikoak muga administratibo edo militarrek baino askoz handiagoko pisua hartu zuten. Nafarroa Behereko Albretarrak kalbinista egin zirenean, bertako gehienek katoliko iraun bazuten ere, hegoaldeko nafar askok hautsi zituzten sentimentuzko harremanak hangoekin. Gainera, Espainiako erregeek, katoliko gartsuak izaki, bost ahalak egin zituzten sarbidea galarazteko protestanteei eta haien ideiei; horregatik, Nafarroako Kantauri isurialdeko herriak, ordu arte Baionako diozesakoak baziren ere, Iruñekoari eratziki zitzaizkion 1567an, kalbinistak ez infiltratzeko. Horrela, gainera, Nafarroa osoa (Nafarroa Garai osoa alegia) Espainiatik gobernatu ahal izango zuten eliz kontuetan ere bai.

Nafarroa bien arteko loturak behin eta betiko hautsi ziren Gorteeke erabaki zutenean Nafarroa Behereko herritarrak beste edozein erresumatakoak bezain atzerritartzat jotzea (1583), Gaztelauak edo aragonesak balira bezala, alegia.

Alde batetik Nafarroako instituzioetako kideek kargu publikoetarako kompetentzia gutxitu nahi zuten horrela, baina aldi berean bortuez haratakoek Nafarroan erlijio ideia berriak sartzea galarazi ere bai. Hortaz, hurbileneko herrietan, bide den gisan, ahaidego, auzotasun eta ekonomiazko harremanei eutsi zitzaien ere, gainerako erresuman harremanak agudo hoztu ziren.

Aitzitik, orduko Nafarroa bezalako gizarte bati, muineraino erlijio-soa, Espainiako Erregearen babesa ezin hobeko euskarria irudituko zi-

tzaion fedea defendatzeko. Eta gainera, Iparraldearekiko lotura desegin zenean, Nafarroako noble eta burges askok politikan eta ekonomian gora egiteko bide ederra ikusi zuten Gaztelarekiko batasunean (ezkontzak, negozioak, emigrazioa). Halatan, ideia moral eta erlijioso finkatuek eta talde interes partikularrek ere norantza berean egiten zuten bide.

ERRESUMAREN DEFENTSA XVII. MENDEAN

9.1. Frantzia-Espainiaren arteko etsaitasuna

XVII. mendeko lehenbiziko hamarkadak bake denbora izan ziren Frantzia-Espainiaren artean; hala ere bi estatuok, artean, kontinenteko lehiakide handienak ziren, eta oso maiz izaten ziren problemak Nafarroan Frantziako mugan.

Espainiako erregeen boterea oso mantso gainbehera hasi zen, nahiz eta oraindik Europako gatazka inportante guztietan parte hartzen zuten, hala nola Hogeita Hamar Urteetako Gerran; Frantziako Borboiak, berriz, sendotu egiten ziren eta beti laguntzen zioten (diruz, armaz, hitzarmenez) Espainiak Europan hegemonia mantentzeko Espainiak traba izan zezakeen edozein printze edo erregeri. Frantzia behar bezain sendo sentitu zenean, gerra ezin galarazizkoa zen.

Ordurako prest egon beharra zegoen, eta oso maiz izaten ziren alarmak, inbasio, eraso eta tropa mugimenduengatik. XVII. mendearen lehenbiziko erdi honetan bukatu ziren Iruñeko gotorlekuaren lanak, arestian esan bezala. Oraindik ere ageri da, aldaketa handiak izan badi-tu ere, gotorleku ikaragarria zela, harresi maldatuak eta babesgarrizko arroila zuela. Barrenean hainbat eraikin zituen armak eta animaliak gordetzeko, soldaduei ostatu emateko eta jatekoak gordetzeko; hilabete as-

kotako setioei eusteko pentsatua zegoen eta murrailen diseinuak (izarren itxuran), ia ezintzen zituen oldarraldiak. Oso eraikin modernoa zen, Pirinioko alderdi hori guztia defendatzeko pentsatua. Jaka bezalako hirietan antzeko batzuk egin ziren.

Gainera erregeordeek etengabe bidaltzen zituzten tropak Nafarroara muga begiratzeko eta laguntza eskatzen zieten herriei gotortze lanetan parte hartzeko,azienda eta gurdiak emateko, arma eta soldaduen garraiorako, etab.

Herri horietako jendeak, batez ere Nafarroa Erdialde eta Erriberakoak (handiagoak izatean aukera gehiago ematen baitzuten), ostatu eman behar izaten zieten tropei (soldaduentzat lastategiak eta ofizialentzat oheak) eta askotan jatekoa ere bai. Maiz aski eztabaidak izaten ziren, batez ere soldaduek beren soldata garaiz kobratu ez eta bizimodu ateratzeko lapurretan aritzen zirenean.

Gainera, premia zegoelarik, armadak zilegi zuen gurdirako abereak (mandoak, zaldiak, idiak) eta gurdiak **errekisatzea** armak, eriak eta armadaren errekaitu guztia garraiatzeko (sukalde tresnak, dendak etab.) ez zen gerrarik, ez zen aintzat hartzeko moduko talkarik, baina mehatxua bera aski zen erresuma beti alertan egoteko.

Foruak zioenez ezin zen nafar jenderik behartu soldadu joatera salbu eta erresuma bera atakatzen bazuten. Horregatik Nafarroan ziren goarnizioetakpo soldadu gehienak beste erresumetako mertzenarioak ziren (soldatapeko soldaduak), gaztelauak, aragonesak eta Europako beste herrietakoak, Espainiako Erregek kontratatuak, Nafarroakoekin ez baitzen hornitzen muga zaintzeko behar ziren adina soldadu, eta bitartean Frantziarekiko gerra edozein momentutan piztu baitzitekeen.

Eta hala gertatu: 1635ean Frantzi-Espainiaren arteko etsaitasuna gerra deklaratu bihurtu zen. Baina aurreko mendean bezala, orain ere Nafarroako muga ez zen gertaleku inportantea izango borroka horretan. Hasierako urteetan fronte nagusia, beti bezala, Europako erdialdean egongo zen. Pirineoetan izandako talkarik ezagunena Hondarribiko bataila izan zen, 1638an frantses armadak Hondarribia setiatu zuenean. Foru Orokorak zioenez, ezin zen nafarrik behartu soldadu joatera non eta erresuma bera inbaditzen ez zuten. Hondarribia,

ordea, Gipuzkoan izaki. Baina Erregeordeak, hala ere, 5.000 nafar osteratu zituen, eta Diputazioak ez zuen traba handirik jarri, Hondarribia defendatzeak asko munta baitzuen Nafarroaren segurtasunerako. Frantsesak erretiratu beharrean egon ziren kalte-galera handiak hartuta.

XVII. mende osoan orduan baizik ez zen egon Nafarroa eraso beldurrean. Baina Frantziarekiko gerrak segitu zuen eta artean ere arriskua baitzegoen, arma eta tropa mugimenduak bere hartan segitu zuen.

9.2. Nafarroa eta «Arma Batasuna»

1625etik aurrera, Felipe IV.a Errege zela, haren «valido»ak, Olivaresko Konedukeak, plan bat jarri zuen abian Espainiako herriek parte gehiago har zezaten monarkia zuzpertzten, haren ustez Gaztelak eramaten baitzuen gerraren eta zergen zamarik larriena. Politika horri «Arma Batasuna» deritza («Unión de Armas»). Neurri horietako batzuek Kataluniako eta Portugalgo matxinadak sortu zituzten, besteak beste.

Nafarrek Gipuzkoako kanpainan parte hartu zuten, Gipuzkoa hurbil baitzen, baina askoz ere traba gehiago jarri zuten behartu nahi izan zituztenean Kataluniako (1640-1653) eta Portugalgo (1640-1665) matxinadak itotzeko bildu ziren armadetan parte hartzera. Kataluniako kasuan, gainera, ia hasieratik tropa frantsesek parte hartu zuten. Bi lurraldeok urrutiegi zeuden nafarrak mehatxaturik sentitzeko. Felipe IV. Erregeak eta Olivaresek nahi izan zituztenean hemen ere tropak mobilizatu Espainiako beste hainbat eskualdetan egiten zuten bezala, zailtasun handiak izan zituzten.

Lehenbiziko osteratze-saioan (1642), anitz desertzio izan ziren. Soldadu asko beren etxera itzulita beren etxeokok eta bai bertako agintariek ere babestu egin zituzten. Erregek azkenean Gortekin itundu behar izan zituen osteratze baldintzak. Gortek erabakiko zuten zenbat soldadu joango ziren, zer ofizialekin, eta tropak mantentzeko zenbat diru behar zen ere. 1652tik aurrera, nahiago izan zuten Erregeri diru

gehiago ematea gizonak Nafarroaz kanpo kontratatzeko, soldaduak bidali baino.

Alde batetik, Gorteen erakutsi zuten ezin ziotela Erregeri galarazi foruak haustea, osteratzea onartu zutelako. Baina bestetik Erregek aitortu behar izan zuen zenbateko itzala zuten Gorteen eta Diputazioak, haien laguntzarekin baizik ez baitzitezkeen soldaduak eta dirua erdie-tsi, eskatu baino gutxiago gehienetan.

Baina zuzmur asko izan baziren ere eta zenbait jende kartzelan fin egin bazuen ere (Miguel de Iturbide erresumako *sindikoa*, kasu), ez zen izan, antza, Katalunian edo Portugalen bezala independentzia berreskuratzeko saiorik, Frantziako erregeak (Luis XIII.a, Luis XIV.a) Nafarroako azken erregeen ondorengo zuzenak baziren ere.

Eskuharki, liskarrak negoziazioen bidez konpontzen ziren, noiz Koroaren alde eta noiz Nafarroako Gorteen alde, kasuan kasuko indar erlazioaren arabera eta segun nork zer behar zuen edo zer eskatzen zuen.

9.3. Azienda muga

Begirale lan asko muga herriek berek egin behar izaten zituzten, ohituta baitzeuden bestaldeko auzokoekin liskarretara aziendarentzako bazkelakuak zirela medio.

Udaberria eta uda heldu zirenean, alde bateko zein besteko aziendadunek mendiko larreetara bidaltzen zituzten behiak eta ardiak, eta oso maiz izaten ziren liskarrak muga ondoko belarrak erabiltzeko esku-bideagatik. Askotan, herrietako jende asko elkar adituta, zaurituak izaten ziren liskar horien ondorioz, korraleak lapurtzen ziren edo etxe bati eraso egiten, bereziki Nafarroaren ekialdean: Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari, Nafarroaren aldetik, eta Aldude, Baigorri eta Baretus beste aldetik. Talkarik latzenak, harrigarria bada ere, Nafarroa Behereko herriekin izaten ziren, XVI. mende hasierara arte erresuma bat berekoak izan baziren ere. Belarreatatik etsaitasuna aspaldi aspaldikoa zen. Treguak ezarri eta mugak berriz seinalatzen baziren ere, larreen gaineko liskarrek XIX. menderaino iraun zuten.

Horregatik, hango herritarrentzat munta handia zuen larreak begiratzeak eta begirale lan hori armadak ere erabiltzen zuen muga kontrolatzeko. Aziendadunek larreak eta aziendaren harat-honatak begiratu-bidenabar, soldadu frantsesak mugitzen ote ziren edo gehiegi hurbiltzen ote ziren begira zezaketen.

9.4. Erregeak eta erregeordeak

Mugaren inguruko problemak izan ziren nafarren eta batez ere haien agintarien kezka politiko handia XVII. mende osoan. Horregatik erregeek eta erregeordeek harreman ona zein txarra izaten zuten Nafarroarekin, segun eta Nafarroak nola erantzuten zien Koroaren eskariei. Behin edo beste Gorteek erregeordea aldatzeko eskatu ere egin zioten Madrili, kaltegarri jokatu zuelakoan, adibidez Valparaisoko markesak Lapurdira gerra-zango bat egiteko Nafarroan gizonak osteratu zitueanean (erabateko porrota izan zen). Felipe IV.ak Nafarroa bisitatu ere egin zuen –gauza harrigarria garai hartarako– nafarren haserrea baretzeko, 1640ko osteratzearen ondotik aski haserre latza baitzegoen. Baina Gorteak eta erregeordeak elkar aditzen baldin bazuten harremanak aski lasaiak izaten ziren.

Olivaresen politika zentralizatzailea izan ziteken arriskurik handiena Nafarroako foru eta pribilegioentzat, Felipe IV.aren valido horrek, gobernari hasi zenetik bertatik, nahi izan baitzuen Espainiako eskualde guztiek eginahal ekonomiko eta militar handiagoa egin zezaten. Baina ministroak bazekien Nafarroaren gaitasuna oso txikia zela eta hortaz sekulan ez zuen Nafarroa gehiegi estutu. Gorteek zenbait gauzatan amore eman zuten, baina gehienetan batzuen eta besteen irudia salbatzeko moduko akordioak egiten ziren. Karlos II.a Errege zela, Administrazio zentralaren anabasak eta mugan aktibitate militarrik ez egoteak, berretu egin zuten Gorteeek eta Diputazioak erregeordeen gainean zuten eragina. Erregeordeek, izan ere, jarraibide gutxiago jasotzen zituzten Madrildik eta esku handiagoa zuten libre jokatzeko. Nahiago izaten zuten agudo akordioetara iritsi gobernu lana konplikatu baino. XVII. mendeko azken hogeita hamar urteetan, adibidez, nafarrek zerga gutxiago

pagatuko dituzte, eta horren truke Diputazioak aurreratu egiten zion dirua Erregeri, herritarrei kobratu baino lehen ere.

9.5. Kontzientzia historikoa

Baina nafarrak ez zuten nolanaahi ahaztuko Erregek estutu egin zituela kanpaina militarretarako gizonak eta dirua lortzeko, nahiz eta azkenean instituzioek bestetan baino hobeki ateratzea lortu bazuten ere. Estualdi horiei esker ikusi zuten Nafarroak erakutsi egin behar ziola munduari, bereziki Erregeri eta Espainiako beste erresumei, bazuela aintzaz betetako iragan bat, zeinean hainbat instituzio eta pribilegio garatu ziren, eta eskubide historiko horri eutsi nahi ziola.

XVI. mende bukaerarako Gaztelan eta Aragoien lan hartan ari ziren, baina Nafarroa beranduago abiatu zen bide hartatik. Beharbada Pedro Agramonteko, Tuterako notarioa, izan zen Nafarroako iragana beste erresumen alderako goretsi nahi izan zuen lehenbiziko idazlea; 1632an bukatu zuen bere *Nafarroako Historia*. Baina obra hori ez zen XX. mendearen bukaerara arte argitaratu. Horregatik askoz ere handiagoko eragina izan zuen medio politiko eta intelektualetan José de Moreten obra, Gorteen erresumaren kronista izateko izendatu zuten, eta Nafarroako iraganaren balioa eta prestigioa defendatzeko historia bat idazteko eginkizuna eman. Moret hil zelarik obraren lehenbiziko bolumena baizik ez zen argitaratu, eta Francisco Alesónek, hurrengo kronista kargudunak, emango zion segimendu.

Nafarren etengabeko eskaera izan zen Foruak begiratu behar zirela eta Nafarroako Gobernuak Erregeren eta erresumaren arteko ituna zuela oinarri; Moret eta Alesonen *Anales del Reino de Navarra* delako obran eskabide horiek historiarik zaharrenaren eta tradiziorik eroenen bidez frogatuak ageri dira eskabide horiek. Nolanahi dela, Agramont, Moret edo Alesonek egin zuten ikerketak aukera eman zuen gure historia askoz ere hobeki ezagutzeko eta ordu arte Nafarroako Historiak askotan oinarritzat izan zuen leienda eta tradizio faltso asko (ez denak) zokoratzeko.

10 INSTITUZIOAK SENDOTZEA (XVI-XVIII. MENDEAK)

Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu eta Gaztelarekin batu zuenean zin egin zuen erresumako lege eta pribilegioak (**foruak**) begiratu zituela. Tradizio horrek XIX. menderaino iraun zuen. Errege berri bakoitzak edo haren ordezkariak, Erdi Arotik, zin egiten zuen foruak begiratu edo are hobetu egingo zituela (hortik «*amejoramiento*» hitza), eta Espainiako Erregeek men egin zioten arau horri.

Horrek ez du esan nahi ez zutela eskurik Nafarroan. Erresumako foruek oso eskumen zabalak ematen zizkioten Erregeri. Baina gobernua ez zen egiten Gaztelako legeen arabera, Nafarroakoen arabera baizik. Horrez landara behin baino gehiagotan, ikusiko dugunez, Erregeek edo haren ordezkariak zin hori hutsegiten zuten.

Diferentzia horren erakusburu, Erregek, Nafarroako errege gisa ari zela, Gaztelan ez bezalako numeralak ageri zuen izenean. Horrela, Espainiako Karlos I.a eta Felipe II.a, Nafarroan, Karlos IV eta Felipe IV ziren, edo XIX. mendean bertan Espainiako Fernando VII.a Fernando III.a zen Nafarroan.

Monarkia espainoleko beste lurralde batzuek ere, hala nola Aragoiko koroakoek, bazituzten beren legeak eta instituzioak. Baina mendeen joanean eta hainbat arrazoi zirela medio, instituzio partikular horiek as-

koz ere handiagoko inportantzia eta autonomia zuten Nafarroan, eta beste toki batzuetan, berriz, gainbehera hasi eta are desagertu egin ziren.

Gainera kontuan hartu behar da orain ahotan ditugun garaiotan zabal zebiltzan ideia politiko guztiak bat zetozeela erregeek eskumen handiak eduki behar zituztela gobernatzeko, eta instituzioek haiei lagun egitea zutela aurreneko lana, eta ez trabak jartzea. Aginte horri esker, beraz, erregeak bide asko zituen komentzitzeko edo eztabaida batean abantailaz negoziatzeko. Horregatik ez dugu pentsatu behar orain ahotan ditugun organismo horiek etengabe kontrari aritzen zizkionik Erregeri beren eskubideak defendatzeko; aitzitik, gehienetan men egiten zioten edo akordioak egiten zituzten harekin.

10.1. Erregeordea

Erdi Aroan ez bezala, Errege ez zen ia inoiz egoten Nafarroan, bisita edo inspezio militarren batengatik ez bazen. Erdi Aroan ere izan ziren, egia, ia beti lekutuak ziren erregeak, baina orain lekukurik egote hori arau egiten da. Erregeek Gaztelako Gortetik hots ematen zieten beren agintepeko herriei eta beren ordeko batzuk izendatzen zituzten Nafarroarako, beren izenean gobernatzeko eskumen handiak zituztenak. Horiek **Erregeordeak** dira. Titulua jasotzean eta aginteak irauten zien bitartean, jarraibide batzuk ematen zizkien erregeak nola jokatu jakiteko, baina hala behartzen bazen erabateko agintea zuten erabakitzeko, errege bera balira bezala. Garai hartan, hala ere, administrazioaren jarduna jada oso konplikatu zen eta hainbat kontseilu eta tribunal zeuden eskumen bakoitzaren arduradun. Erregeordeak gehienbat eginkizun militar eta polizialak zituen bere esku, administrazioa koordinatzea eta kargu asko izendatzea.

10.2. Errege Kontseilua

Errege Kontseilua zen erregeordeak gobernu lanerako zuen laguntzaile nagusia. Erdi Aroan ere kontseilu horrek aholku ematen zion

Erregeri baina orain organismo iraunkorra bihurtzen da eginkizun zehatzekin. Erregeordeek haren eskuetan uzten zuten administrazioaren eguneroko martxa. Gorengo justizi tribunal baten lana ere egiten zuen. Horregatik, kontseiluburu bat (erregentea) eta sei kontseilari izateaz gain, beste funtzionario asko ere bazituen (abokatuak, fiskalak, sekretarioak, almianteak etab.). Erregek izendatzen zituen zuzenean kontseilukideak, eta haietako hiru (erregentea eta bi kontseilari) gaztelauak izaten ziren beti.

Erresumako legeetan eskua zuen tribunala zen partez, berari zegokion XVI. mendearen erdialdetik aurrera, Erregeren aginduak foruen araberakoak ziren ala ez erabakitzea. Konforme zeudenean «sobrecarta» bat jaulkitzen zuten -agindua zekarren errege- kartaren gaineko zertifikatua- eta arau horrek erresuman indar hartzen zuen. Erregeren eta erregeordearen konfiantzako pertsonak baitziren, ia inoiz ez zioten kontra egin Erregeren politikari; aitzitik, haren laguntzaile leialak izaten ziren.

10.3. Tribunalak

Errege Kontseiluaz gain, beste bi tribunal handi baziren, haiek ere jatorriz Erdi Arokoak, kontseiluak kontrolatuak eta eratuak. Lehenbizi, **Gorte Nagusia**. Bertara bidaltzen ziren juez lokalek emandako sententzia larri xamarren kontrako helegiteak. Gorte honek epaia eman arte ez zen zilegi, kasu are bakanagoetan Errege Kontseiluari hel egitea. Gai ekonomikoak juzkatzeko ardura **Kontuen Ganberak** zuen; honek errege ondarearen eta haren funtzionarioen kontuak ere errebisatzen zituen.

10.4. Gorteak

Gizarte talde pribilegiatuak (nobleak, apaizak, burgesak), bazuten Erdi Aroz geroztik beren ordeko zen instituzio bat. Tradizioz, eta hala zen orain ere, berak onetsi behar zituen erregek erresumari ezarri nahi zizkion laguntza ekonomikoak (zergak); pixkanaka, ordea, eskumen

gehiago beretuz joan zen harik eta askotariko eginkizunak zituen organismoa bihurtu arte. Baina zerga berriak onestea ez ezik, eginkizun nagusia protesta egitea zen Erregek Nafarroako foruen kontrako arauak ematen zituenean –**kontraforua** salatzea– eta Erregeri legeak proposatzea hark onartzeko.

Baina maiz asko erregek entzungor egiten zien Gorteen eskariei; neurri askok beren hartan iraun zuten Gorteen kontraforutzat salatu ondoren ere, eta Gorteen eskatutako lege asko ere atzera bota ziren. Batzar honek arma bakarra zuen Erregeri presio egiteko: eskatutako zergak ez onestea («**donativo**» esaten zitzaion orduan zerga horri) harik eta bere proposamenak ebatzi arte. Kasuan kasuan negoziazioak noiz Erregeren interesen aldeko noiz Gorteentzat mesede izaten ziren.

Ez da hortik pentsatu behar gehienetan elkarren aurka ari zirenik. Maizenik akordio zabal xamarra egoten zen. De facto gorteen beti onetsi zuten zerga eskaera (nahiz eta eskatu baino gutxiagokoa izan), eta administrazioaren funtzionamendua hobetzeko asmoz egiten zituen proposamen gehienak onetsi zituen erregeordeak.

Eskaerak nekezago onartzen zituen Erregeren edo haren ordezkarien botereari ezertan eragiten bazioten. Nafarroak bere lege eta instituzioak bazituen ere, Koroak oso autoritate handia zuen. Gorteen ez zuten sekulan zalantzan jarri autoritate hori baina batzuetan aurkeztutako proposamenak erregeordeak gaitzetsi zituen, bere boterea gutxitzen zutelaren iritzita.

Gorteen erregeordeak nahi zuenean baizik ez ziren biltzen, eta biltzeko batzuetan zenbait aste irauten zuten soilik, edo hilabete batzuk, tratatu beharrekoak zein ziren. Batzuetan urte batzuk joango ziren gortetik bildu gabe, eta beste batzuetan desegin orduko ematen zen berriz biltzeko deia.

Erregimen Zaharreko gizartea estamentalak zen, eta gizarte talde bakoitzak bere-bere eskubide eta eginbeharrak zituen. Horregatik gortekideak ez ziren, gaur diren bezala, demokratikoki hautatuak: pribilegio jakin batzuk zituzten gizarte taldeak baizik ez zitezkeen gortekide izan eta haietako askok hautatu gabe ere parte hartzeko eskubidea zuten.

Hiru **Beso** edo **Estadu** (gizarte taldea *-besoa-* edo gizarte egoera *-estadua-* zein zen) zituen osakide. Estadu bakoitzak bere botazioa egiten zuen eta erabaki bat hartzeko hiruek ados egon behar zuten.

Lehenbizi, **beso militarra** esaten ziotena zegoen, nobleziaren ordezkaria (gerra gobernatzeko ardura zuena, gizarte hartako printzipio zaharrenen arabera) eta Erregek izendatzen zituen. Jarlekuak herentziaz jasotzen ziren eta erresumako aristokrata handienek edukitzen zituzten: noble tituludunak, jauregi edo armazain-gazteluen jabeak (noble leinu baten jaiotetxea) edo erregek beren mesede edo zerbitzuengatik nobletu zituen aberatsak. XVI. eta XVIII. mendeen artean ehun baino gehiago noble baziren gorteetan parte hartzeko eskubidea zutenak (*jarleku* eskubidea). Noble txikiek, hala ere, eta erdi mailako aristokrata gehienek (*zaldunak*) ez zuten ordezkariarik.

Bigarren lekuan **Elizaren besoa** zegoen, Nafarroako elizaren gorengo karguek osatua: Iruñeko apezpikua, Tuterako deana (XVIII. mende bukaera apezpikua) eta Monasterio eta kolegiata nagusietako abade eta prioreak (Orreaga, Leire, Iratxe, la Oliva, Urdazubi, Fitero, Irantzu, Marcilla). Hauxe zen talderik murrizena, baina besteek adinako boterea zuen, gizarteak erlijioari eta elizari ematen zion inportantzia zela medio. Kargu horiek gehienak ere erregek izendatzen zituen.

Hirugarren besoa edo estadua gainerako gizarteari zegokion, teoriari behintzat. **Unibertsitateetako** besoa zen (herri baten osotasuna *-unibertsitatea-* ordezkatzeko zuelako). Baina talde honetako kide bakan batzuek baizik ez zuten ordezkariarik: pribilegio bereziak zituzten herrietako jendeak (*hiribilduak* eta *hiriak*). Zenbait hirik Erdi Arotik zituzten beren administrazioan halako beregaintasuna ematen zieten foruak eta ekonomi jardun jakin batzuk egiteko beste pribilegio batzuk, hala nola komertzioa eta eskulangintza. Hiri horiek eskubidea zuten gortetara ordezkaria bidaltzeko. Gainerako ibar eta herriek, gehienak nekazari herriak, kanpo gelditzen ziren. XVIII. mendearen erdian berrogei bat herri zuten gortetako jarlekua.

Halatan, noblezia eta elizako ordezkariak erregek izendatzen zituen eta haietako askok karguak zituzten administrazioan edo armadan, Gaztelan edo Amerikan, karguren bat beretzeko asmoa zuten. Gainera, ez gorengo nobleek ez gorengo elizgizonek ez zuten gorteen

onesten zuten zerga pagatu beharrik izaten. Hortaz Erregek erraz xamar komentzitzen zituen bi besook nahi zuena onesteko.

Gorte ordezkarien kopurua zabala baitzen oso, eta haiez gain eskribauak, Erregeren ordezkariak, abokatuak, kontserjeak eta abar gehitzen baitziren, leku handi-handia behar izaten zen. Egoitza iraunkorrik ez baitzegoen, batzar gehienak Iruñeko katedralean egiten ziren. Baina batzuetan beste hiri batzuetan biltzen ziren, hala nola Tuteran, Lizarran, Erriberrin, Tafallan, Zangozan edo Corellan.

Iduri du, beraz, gorteen osakera eta funtzionamendua aski konplikatua izan zela. Hala ere oso bizitza aktiboa izan zuten, Espainiako beste erresumetan baino askoz ere gehiago. Gainera, XVIII. mende hasieratik Nafarroa bakarrak eutsi zien bere gorteei, Espainiakoez landara, XIX. mendera arte. Felipe IV. Borboikoak suntsitu zituen Aragoiko lurren pribilegio eta biltzarrak (Aragoi, Katalunia, Valentzia, Mallorca), ez baitzuten Errege izendatu nahi izan; Nafarroakoak, berriz, berretsi zituen, lagun egin ziotelako.

10.5. Diputazioa

1576tik aurrera, Gorteak desagiten zirenean **Diputazio** (hau da, ordezkaritza) bat hautatzen zuten, erabakitakoak kunplitzen zirela begiratzeko eta erresumaren ordezkari izateko Erregeren eta haren ordekoen aurrean (erregeordea, Kontseilua etab.). Antzeko organismoak baziren beste erresuma batzuetan ere, hala nola Kataluniako edo Valentziako *generalitat* direlakoak. Gorteak ez baitziren aldizka baizik osatzen eta batzuetan urteak joaten baitziren deitu gabe, erabakitakoa kunplitzen zela begiratzeko organismo bat sortu beharra zegoen: foruen kontrako erasoak zuzentzea («*reparos de agravios*») eta proposatutako legeak aplikatu zitezkeen bultzatzea. Zergen kobrantza erregek berak egiten zuten Kontuen Ganberaren bidez.

Baina, denboraren joanean, Erregeren ordezkarietako negoziatioek esku eman zioten Diputazioari gero eta eskumen gehiago bereganatzeko. XVII. mendearen erditik *emaitzaren* parte bat jasotzen zuten, bere zuten dirua egitea eta zeharbideko beste zerga batzuk (salgaien gaine-

koak) jasotzea ere; lagun egiten zion erregeordeari tropak osteratzen, txostenak jaulkitzen zituen Nafarroan Foruen kontrako legeak aplikatzea galarazteko, eta XVIII. mendearen bukaeratik errepideak egitearen ardura ere bere izan zuen. Erregeordeak edo Kontseiluak baino eskumen gutxiago zituen, baina Gorteen ordezkaria zen partez, itzal handia zuen hala ere.

Hiru besoek hautatzen zituzten diputatuak: Elizak bat, Militarrek bi eta Unibertsitateek lau. Gainerakoan, Madrilen ere bazuen ordezkari bat (*sindikoa*), Diputazioaren eta Gorteen interesak zuzenean Erregeren aurrean defendatzeko.

10.6. Udalak

Gaur egunean bezalaxe Nafarroako udalak bi klasekoak ziren.

Iparraldean herriak -«lugar» direlakoak- ibarretan biltzen ziren (mendi eremuetan) edo zendeetan (Iruñerrian). Ibar edo zendea bakoitzak herri kopuru diferentea zuen eta ibarreko agintariak zituzten, bate-tik, (ibarreko alkatea eta junta) eta gero herri bakoitzak bereak (erregidorea, herriko batzarra), zeinek bere ondasun eta funtzioak kudeatzeko. Karguak hautatu egiten ziren edo txandaka banatu.

Hegoaldean, jendeguneak handixkoagoak izaten baitziren, herri bakoitzak udal bat osatzen zuen. Hemen udal karguak (alkatea -juez eginkizunak ere bere- eta erregidoreak -gaurko zinegotzien antzekoak edo- ez ziren hautatzen: suertean ateratzen ziren baldintza batzuk kumplitzen zituztenen artean (posizio sozial eta ekonomikoa, adina, auzotasuna etab.) erregeordeari hiru hautagai aurkeztu, eta hark haietatik izendatzen zituen.

Iruñeko auzoek (Navarrerria, San Cernin eta San Nicolas), pribilegio berezi baten bidez batu ziren Erdi Aroaren bukaeran (batzearen pribilegioa, 1423) eta beren errejimentua (udala alegia), barruti bakoitzeko hainbana errejidore zituen, urtez urte beren ondorengoak hautatzen zituztenak. Horregatik gehienetan handiki familia beretakoak izaten ziren. Alkatea, berriz, urtean auzo batekoa izaten zen.

10.7. Dirua

Nafarroa 1515ean Gaztelari eratziki bazitzaion ere, erakunde eta pribilegio askok beren hartantxe iraun zuten: besteak beste Nafarroako dirua egitea. Ondorengo erregeek, bai Austriatarrek nola Borbondarrek Nafarroarentzako diru berezia egin zuten, nahiz eta gehienetan gainerrako Espainian kurrutzen zuenaren balio berekoa izaten zen. Orduko diruak, izan ere, osagai zuen metalaren balio berbera izaten zuen (urrea, zilarra, kobrea eta askotariko nahasturak). Horregatik Nafarroan onartu egiten zen aldameneko erresumetako dirua, kanbioa egin beharrik gabe, batez ere diru frantsesa eta Gaztelakoa. Hala ere, Nafarroan egin dako dirua, jeneralean kalitate txarrekoa izaten baitzen (zilar eta kobrez egina edo kobre hutsez), Nafarroa barrenean baizik ez zen usatzen. Salbuespenez zilarrezko dirua ere egin zen, eta are bakankago urrezkoa ere bai. Nafarroako dirua erosketa txikietarako erabiltzen zen, eta kanporako komertzioan edo negozio handietarako Frantziako edo Gaztelako dirua hobesten zen, urre eta zilarrezkoa, askoz ere ezagunagoa eta prezia-
tuagoa.

Diru horiek Iruñeko **diru-lantegian** egiten ziren eta eskuarki dirua egiteko agindu zuen erregearen izena daramate, Nafarroan tokatzen ziztzaion zenbakiarekin. Hortaz, Espainiako Felipe IV.aren diruek «Felipe IV, por la gracia de Dios» irakurgaia dute, edo Karlos II.arenek «Carlos V, por la gracia de Dios». Nafarroako azken diruak Isabel II.aren agintaldiko hasieran egin ziren (1837), Nafarroa probintzia bihurtu baino lehentxeago.

11

GIZARTEAREN ANIZTASUNA

Erregimen Zaharreko gizartean (XVIII. eta XIX. mendeetako iraultza liberalak baino lehenagoko sistema politiko eta soziala) Erdi Aroko aztarna askok irauten zuten. Taldeak ez ziren zein bere gaitasun ekonomikoaren arabera antolatzen, baizik eta beren **kondizio juridikoaren** arabera. Nobleek, nekazariak, burgesak (pribilegio bereziak zituzten zenbait hiritako bizilagunak) eta apaizek, zeinek bere eskubide-betebehar diferenteak zituzten legearen aurrean, edo, hobeki esan, zeinek bere lege diferenteak. Bistan da talde batekoa edo bestekoa izateak zaildu edo erraztu egiten zuela aurrerabide ekonomikoa, baina lege ondorioetarako horrek ez zuen gizarte maila aldatzen, nahiz eta bizitza baldintzei eta besteen aurreko prestigioari eragiten zion. Era, apaizen kasuan izan ezik, gehienetan jaiotzeak markatzen zuen zein taldetakoa zinen, salbu eta parada berezietan erregek bestela erabakitzen bazuen.

11.1. Nobleak

Teorian, nobleak ziren talderik faboratuena. Nobleek beren esku izaten zituzten administrazioko posturik inportanteenak, Gortean bizitzeko eskubidea zuten eta Kontseiluetaarako, Enbaxadetaarako, Amerike-

tako karguetarako eta abarretarako izendatuak izateko. Gainera, haietako askok ez zuten zergarik pagatzen eta lur jabe handiak ziren, nekazariak zituztelarik beren meneko lur horiek lantzeko.

Hala ere, aukera teoriko handi horietako asko talde ttiki batentzat baizik ez ziren benetakoak izaten. Nobleen eskalan **noble tituludunek** zituzten goreneko lekuak (markesek, kondeek, baroiek): berrogeita hamar bat familiak XVIII. mendean. Gorteetan jarleku erreserbatua zuten eta haietako batzuk beren posizioa aprobetxatuz oso postu inportantetara iritsi ziren. Beren bizilekuko hiri eta herrietako gobernua beren esku izaten dute, edo interes handiak dituztenetakoa (etxeak, lurrak etab.). Duten itzalaren eta eraginaren adierazgarri, toki berezia izaten dute elizetan eta gizarte jarduera askotan buru aritzen.

Haien hurren, eta prestigioz askotan haien maila berean, jauregizainak daude, **jauregi** edo **armazain-jauregi** baten jabeak, hau da, noble leinu bateko jaiotetxea. Erregek, hala ere, jauregi berriak izendatzeko eskubidea zuen, Erdi Aroko landa-etxeak izan edo askoz berriagoko hiri jauregiak, noble familia horietako batzuk hirira aldatu zirenetik. Gehienek, halaber, Gorteetako **jarleku eskubidea** zuten, nahiz eta asko ez ziren inoiz bilkuretara agertzen; baina pribilegio hori beren «eskubide» bat zen, ez erabilia ere. Nahiz eta gutxi iristen ziren noble tituludunek zituzten goi-goiko lekuetara, haiek ere itzal handia zuten beren herrietan.

Baina noble gehien-gehienak **kapare** huts izaten ziren (XII eta XIII. mendeetan infanzon esaten zitzaienak berak) Gainerako nekazarien antz-antzeko bizimodua izaten zuten. Herri batzuetan ia denak ziren kapare, hala nola Pirinioko zenbait ibarretan (Baztan, Erronkari, Zaraitzu etab.), eta hala ere beste edozein nekazarik bezala segitzen zuten laborantzan eta berdin pagatzen zituzten gorteek onetsitako zergak. XV. mendeko erregeek herri askori eman zieten kaparetasuna, batez ere lur menditsu eta pobreenetan, jendehustea galarazi, garapen ekonomikoa faboratu edo jendea beren alde jartzeko. Kapare zirelarik, beren lurren jabe egiten ziren, eta, horrenbestez, ez zioten errentarik pagatu behar lehenagoko jabeari). Erregek, hala ere, nolabaiteko ordainbidea bilatzen zuen ez hainbesteko beherakadarik izateko bere errentetan. XVIII. mendearen bukaeran, Nafarroan lautatik bat aitoren seme zen, hau da, Es-

painiako beste tokietan baino askoz ere jende gehiago. Kontuan hartu, hala ere, iparraldean, menditsua baitzen, ia lautatik bi zirela kapareak, eta hegoaldean, berriz, %10 baino gutxiago.

11.2. Petxeroak

Herri gehienetan kapare horiek, noble ez ziren nekazarien (erdia baino gehiago) bizimodu bera zuten. Haiak ere gehienetan laborantzatik bizi ziren, baina garai hartan kapare ez ziren beste nekazariei **petxero** esaten zitzaien. **Petxa** pagatu behar zutenak alegia. Petxa zen errenta bat, berena ez zuten lurra lantzeagatik, eta petxa gutxiagotasun sinbolo bat ere bazen, lurjabe izateko eskubidea zutenen alderako (kapareak). Batzuetan petxero horiek herri bereko edo inguruko kapareak baino aberatsago bizi ziren, baina prestigioz eta eskubidez (herri lurren aprobetxamendua, udal karguak, juizioetako pribilegioak) gutxiago ziren.

Ez dezagun ahaztu herri horietako batzuetan bestelako bizilagunak ere izaten zirela: Erdi Aroan komertzioan edo eskulangintzan aritzeko pribilegio bereziak (frankiziak) jaso, baina nekazaritzan segitu zutenak alegia.

11.3. Auzokoak eta bizilagunak

Frankotan kapareen eta nekazarien arteko diferentzia hutsaren hurrengo zen, herriaren barreneko harreman ekonomiko eta juridiko asko **auzokoen** eta **bizilagunen** arteko berezkuntzan oinarritzen baitziren.

Auzokoek bizilagunek baino eskubide gehiago zuten herri lurrak aprobetxatzeko (larreak, egurra, lur partiketa) eta batzarretan parte hartzeko. Gaur harrigarria izan daitekeen diferentzia hori familia bakoitzak bertan zeraman denboratik heldu zen. Herri edo ibar bateko populazioa hazten zenean, lehenagoko bizilagunek mugatu egiten zituzten etorri berrien eskubideak, eta oztopo horiek haien ondorengoei ere pasatzen zitzaizkien. Kasu horietan ez zen berezkuntzarik egiten

kapare eta petxeroen artean, baizik eta auzoko eta bizilagun hutsen artean, nahiz eta behin baino gehiagotan petxeroek parada aprobetxatu eta kaparetasuna eskatzen zuten eta bai lortzen ere.

11.4. Apaizak

Ehun nafarretatik bi apaiz estamentukoak ziren. Elizetako erretor, fraile eta monjak herri guztietan egoten ziren banatuta eta eragin handia zuten gizartean.

Elizgizonik aipagarrienak (Iruñeko apezpikuak eta XVIII. mende bukaeratik Tuterakoak ere), gortekide izaten ziren eta Diputazioan ere ordezkaria zuten. Eliz-erakunde horietako batzuk nekazaritza eta abeltzaintzako lurjabe handiak ziren, nahiz eta denek beren ondarearen puska handia galdua zuten Erdi Aroko garai aberatsenen alderako.

Baina klero gehiena herrietako erretor aritzen zen, edo komentuetako fraile edo monja huts (gehienetan herri larrietan) edo monasterioetan, (jeneralean herriz kanpo, landen artean, eta batzuetan jendeguneetatik franko aparte, hala nola Leire edo Irantzu). Erretore asko herriek berek izendatzen zituzten, auzokoak bertako elizaren jabe zirenean. Beste batzuetan elizjabea noble bat zen, monasterio bat edo apezpikua. Erretor horiek hamarrenak izaten zituzten bizibide. Kristau guztiek beren irabazien ehuneko hamarra eman behar zioten Elizari. Horregatik, herri bakoitzaren aberastasunaren arabera, apaiz batzuk naharo bizi ziren eta beste batzuk berriz gosea orpotik zutela.

11.5. Maiorazkoa

Ipar-iparreko lurretan nekazaritza oso pobrea zen, eta abeltzaintza zen bizibide nagusia. Baina haize zabalean azienda hazteko, larre handiak behar izaten dira, eta langile gutxi; hortaz, jardun horretatik jende gutxi bizi daitezke. Erdi Arotik, baina bereziki Aro Modernoan, **Maiorazkoaren** premia gaintzen da: etxe bateko herentzia osoa seme zaharrenari uzteko ohitura. Bestiak, berriz, beste bizibideren bat bilatu beha-

rrean egoten ziren: emigratu edo etxean egon baina maiorazkoaren menpeko eta gehienetan ezkongai; dena jabetzaren batasuna mantendu ahal izateko eta iraupen aukerak gehitzeko. Ekonomiak agindutako jorkabide hori tradizio bihurtu zen azkenerako, eta bere hartantxe irauten du gaur ere Nafarroako Iparraldeko herri askotan.

Familiako batasun horren adierazgarri, etxeak bakanduta eraikitzen dira, baserriak ez ezik herri barreneko etxeak ere bai (Lesaka, Bera, Elizondo, Otsagi eta abar).

11.6. Hirietako gizartea

Nafarroa Aro moderno guztian oso hiri gutxiko erresuma izan zen, eta zeudenak ere aski txikiak. Iruña, Lizarra eta Tuteran besterik ez ziren 5.000 bizilagunetik gorakoak. Baina bizilagun kopurua alde bat utzita, esan dezagun hiri horietan askotariko eskulangintzak, komertzioa eta industriak izaten zirela jardun nagusia, eta horretan zetzan gainerako herrien alderako diferentzia, han halako lanbiderik gutxi izaten baitzen.

Hala ere, erresumako hiriburuan, Iruñean, populazioaren heren bat baizik ez zen aritzen industri eskulangintza horietan; baina funtzionario asko zeuden, instituzioetan aritzeko; eta bai apaiz-monja asko ere, komentuetan, parroketan eta apezpiku- edo katedraleko kurietan (apezpikuarekin edo katedralean lanean aritzen diren pertsonak); eta bai, halaber, itzaleko noble asko ere, hiriko jauregian bizi nahiago zutenak, nahiz eta errentak herrietan izan. Inguruetako mahasti eta labore lurretan aritzen diren nekazariak ere badaude, eta horiek batzuetan esku-langileak edo komertziantek adinatsu izan daitezke, batez ere Iruñean eta Tuteran, Lizarra baino askoz handiagoko udalerrria baitzuten.

11.7. Bazter-jendea

Nafarroa bezalako gizarte batean, ez baitzen oso dinamikoa, bestetan baino gizarte diferentzia txikiagoak zeuden. Horregatik pobre gu-

txiago ere egoten zen eta zeudenak ere komentuetan artatzen zituzten, noiz ongi noiz gaizki, komentuek beti beren irabazien parte bat hartarako berezten baitzuten. Limosna egitea ere, gainera, erro handiko ohitura zen jendearen artean, eta karitatea erlijioak agindutako eginbidetzat hartzen zen.

Baina bazen hala ere bestelako bazter jende bat, diruz agian nasaia-goa baina gizartearen arbuioa sentitzen zuena. Lehenbizi, **kristau berriak ditugu**, zeinen arbasoak, -edo haiek berak XVI. mende hasieran- judu edo musulman fedea ukatu eta bataiatu egin zirenak. Juduak 1498an bidali zituzten Nafarroatik, Gaztela eta Aragoitik baino sei urte beranduago. Baina gehienek nahiago izan zuten kristautu erresumatik aldegin baino. Urte hartarako **judu-auzo** (aljama) handi bakarra gertatzen zen, Tuteran, beti bezala komertzioan, esku langintzan edo nekazaritzan aritzen zena. Juduak kristauak baino jantziagoko jendea izaten ziren, eta beraz kristau berriok sarri hasi ziren postuak beretzen administrazio zibilean eta bai erlijiosoan ere batzuetan. Behin baino gehiagotan debekatu zieten kargu publikorik beretzea handik belaunaldi askotara arte, eta jeneralean gizarteak baztertu egiten zituen: ohore gehiagokoa irizten zitzaion kristau-leinukoa izateari judu leinukoa baino, eta askotan duda egiten zen kristautu berrien fedea benetakoa ote zen. Hala ere familia horiek bestekin nahasiz joan eta bereizkeria desagertuz joan zen.

Musulmanen egoera (**moriskoak**) bestelakoa zen. 1610era arte ez zituzten zeharo bidali, Aragoien bezala, nahiz eta XVI. mende guztian hainbat arau eman ziren musulmanak kristautzera behartzeko. Beren fedeari eutsi ziotenak Tuteran hirian eta inguruetakoko hirietan bizitzen ziren, gehienetan nekazaritzatik eta eskulangintzatik, baina inondik ere familia bakan batzuk baizik ez ziren.

Nafarroako kasu bereziagoa -nahiz ez eskusiboa- **agoteena** izan zen. Talde hori Nafarroako mendialdean barreiu aurkitzen dugu, gehienbat Baztanen (adibidez Arizkungo Bozate auzoan). Jatorri ilunekoak dira. Baliteke aspaldiko legendunen ondorengoak izatea, aparteko auzo eta herrietara bidaliak legena ez kutsatzeko. Maiz asko haien eritasuna ez zen legena, baina orduan ez zen ongi bereizten eite bereko eritasun diferenteen artean. Eri horien ondorengoak, hortaz, herentzian

hartuko zuten inguruko herrietako jendeak haien arbasoei zien higuina, baztertze horren arrazoia ahazturik bazegoen ere. Heretikoen ondorengoak zirela ibiltzen zen hotsa, ume eragabeak egiten zituztela eta beste hamaika asmakeria. Elizetan aparteko jarlekuak zituzten, eskubide gutxiago zituzten herri lurren aprobetxamenduetan, ez baitziren auzoko izaten, eta oro har bazterkeria latza sufritu zuten XIX. mendera arte, nahiz eta anartean anitz epai beren alde jaso tribunal zibil eta elizarenetatik.

12 EKONOMIA TRADIZIONAL BAT

Nafarroako ekonomiak funtsean nekazaritza eta abeltzaintza zituena oinarri oraindik ere. Eskulangintzak lotura handia zuen nekazaritzako jardunarekin (nekazari tresnak, adibidez) eta komertzioak ere zerikusi handia zuen Mendialde eta Erriberaren artean produktuak trukatzearekin.

Oro har, produkzioak abeltzaintza (iparreko ibarretan), sekanoko nekazaritza (arroetan eta hegoaldeko erdian) eta erregadioa (ibai handien hurbileko hegoalde lurretan) zituen ardatz.

12.1. Abeltzaintza

Mendialdeak ez ziren egokiak nekazaritzarako, hango malda gogorak, zoruaren kalitate eskasa eta klima zirela medio, hezeegia baitzen hainbat espezie hazteko. Euri horri esker, bestalde, ipar-ekialdeko ibarretan ia urte guztian egoten zen behi edo ardi aziendarentzako bazka ugari. Ardiak, bereziki egokiak ziren ipar ekialdeko ibarretarako. Uda berrian eta udan mendietako larretean egoten ziren, eta neguan, berriz, elurrak larreak estaltzen zituenean, Bardeara aldatzen ziren, Erriberara. **Larre-ald**a hori anitz mende lehenagotik egiten zena zen eta gaur arte iraun du.

Lehenbiziko kasuan (ipar-ekialdeko ibarrak) etengabeko larreak egoteak baserriaren alde egiten du, hark aukera ematen baitio baserriarri mendian daukan aziendatik hurbil bizitzeko. Ekialdeko Pirinioan, neguan elurrak harturik baitago, ezin da azienda urte guztian larratu eta baserria hortaz ez da hain egokia.

Hego alderago goazela, kortako azienda (zerria, hegaztiak) eta ardi azienda izaten dira gailen, horiek uzta ondoren ibintzea aprobetxatzeko gai baitira (lurrean geratzen den labore-lastoa). Horrez gain, etxe guztietan idia edo mandoa egoten zen soro lanetarako. Baina beti ere laborantzaren osagarritzko abeltzaintza zen.

Mendia, **komunala** nahiz pribatua, ez da bakarrik larretarako: zura, ehiza, eraikitzeo harria eta halako aprobetxamenduak ere ematen ditu. Herriek eginahalean lur horien erabilera arautzen dute, batez ere herri lurak direnean.

12.2. Nekazaritza

Hego aldera goazela, aitzitik, nekazaritzak geroz eta handiagoko garrantzia hartzen du.

Iparraldeko ibarretan ongi aprobetxatzen da azienda ongarria aziendarentzako bazka-landareak hazteko eta bai zenbait eltzekari ere. XVII. mendiaz geroztik labore tradizionalen ordeztan (garia, garagarra, artaxea), emaitza eskasekoak baitziren, pixkanaka **artoa** sartzen da, jatorriz Amerikakoa, oso egokia hemengo klimarako. Arto hori, hala ere, berandu arte aziendari bazkaren osagarri emateko hazten zen, zenbait bitaminaren faltan ez baitzuen balio gizaki-mantenu oinarrizkoa izateko. Amerikako beste landare bat, **patata** alegia, beranduxeago hasi zen sartzen, eta gainera pobreenentzako eta animalientzako janari gisa.

Pirinio aurreko arroetan eta hegoaldeko erdian laboreak, mahastia eta oliboa ziren gailen aspaldi handitik. Oso eremu jakinez landara, sekanoko hazkuntza zen. XVII. mendiaz geroztik eta bai lehenagotik ere, lur menditsuenetan eta hezeenetan mahastiari uzten hasi zitzaion; hegoaldean, berriz, mahastiek hartu zioten lekua lehenagoko labore so-

roei. Zenbait eskualde oso aberastu ziren mahastiaren zabaltze honi esker. Nafarroako hegoaldeko herri askotan ikusten diren dorre barroko handiak -batzuetan eliza osoak ere bai-, dirutza handiak gastatuz eginak, aberastasun horren adierazgarri bikaina dira.

Ebro bazterreko lurretan, eta Arga, Ega eta Aragoi ibaien hegoaldeko bideetan, hazkuntza horiek batzuetan erregadio bihurtzen ziren eta aldizka lur landuen %20a ere hartzen. Hala ere, lur horietan ez zen gehienbat barazkia etortzen, sekanoko produktu berak baizik.

12.3. Eskulangintza eta industria

Herri handi gehienetan, jakina, eskulangile bakan batzuk izaten ziren lan behinenetarako: arotzak, eltzegileak, kisuskileak; maiz asko haiek ere nekazaritzan aritzen ziren. Baina hiri handienetan ofizio espezializatuenak biltzen ziren (zamarginak, ganibetagileak) eta bai sortzen hasia zen industria apurra ere, ehungintza, kasu, Iruña eta Agoitz bezalako herrietan aski inportantea.

Gremioek (ofizio bakoitzeko eskulangileen baldernak) gobernatzen zituzten oraindik ere prezioak eta soldatak, kompetentzia zailduz. Horrek, halaber, eskala handiko industria sortzea nekezten zuen, inor ez zelako prest egoten inbertsio handiak egiteko kapitaletan eta langiletan ezin bazituen bere benefizioak hobetu prezio-soldata librean bidez.

Iparreko ibarretan zenbait burdin ola ezarri ziren, bertako egur eta ur ugaria aprobetxatuz, eta bai emaitza gutxiko zenbait mehatze ere; eskasia hori berdintzeko, Gipuzkoa eta Bizkaitik ekartzen zen minerala. Tirogai fabrikak ere ezarri ziren, Nafarroako eta Gipuzkoako goarnizioak hornitzeko, hala nola Eugi eta Orbaizetako arma olak.

12.4. Komertzioa

Truke gehiena iparreko eta hegoaldeko eskualdeen artean egiten zen: zura eta azienda lur zelaietarantz jaisten ziren, eta handik berriz laboreak eta ardoa igotzen. Hala ere, eskala txikiko **komertzioa** zen, bideak

txarrak baitziren eta ibaiek, ur-eman txikikoak izateagatik, ez baitzuten balio nabigatzeko. Ibaibide bakarra almadien bidezkoa zen, zura garraiatzeko. Saldu-erosi gehiena **merkatuetan** egiten zen (astero, bi aste-ro) eta ferietan (sei hilabetero, urtero). Bertara, inguruko nekazari eta eskulangile xumeetatik hasi eta egun seinalatuenetan kanpotik etortzen ziren merkatarietaraino biltzen ziren. Feria horietan ezagunena Iruñeko feria izaten zen, uztailean (1590az geroztik San Fermini eskainia), baina Tuteran, Lizarran edo Tafallan ere egiten ziren, eta beste herri handi batzuetan ere bai.

Kanpo aldera, Nafarroak lehengaiak eta elikagaiak esportatzen zituen (zura, laborea, ardoa) baina manufaktura inportante gehienak erosi behar izaten zituen, eta, jakina lujuko produktu guztiak (kalitateko oihala, Ameriketako produktuak: kakaoa, azukrea, piperrautsa eta abar). Truke handia egiten zen bereziki Frantziarekin eta, gutxiago, Araba eta Gipuzkoarekin.

Material horietako asko **kontrabandoz** sartzen ziren, batez ere Frantziatik, baina bai Espainiako beste erresumetatik ere (Gaztela eta Aragoi). Ez dezagun ahaztu Nafarroak, erresuma zen partez, aduanak zituela oraindik inguruko lurraldeekin, eta zerga pagatu behar izaten zela kanpoko komertzioagatik. Muga-herrietako auzoko askok, baina bai Iruñeko komertzianta handi batzuek ere, oso etekin handia ateratzen zioten komertzio ilegalari, tasak pagatu beharretik libratuz eta produktuok mugako pasabide kontrolatu gabekoetatik ekarriz (asko ziren), edo mugazainak sobornatuz.

13

ERLIJIOA, KULTURA ETA ARTEA

13.1. Herriaren fedea

Erregimen Zaharreko nafar gizartea muineraino katolikoa da eta erlijioaren praktikak jendearen bizitza publiko nahiz pribatuaren momentu asko hartzen ditu. Gainera, Trentoko Kontzilioa izan zenetik, XVI. mendean, eta batez er XVII eta XVIII. mendeetan, Europa katoliko guztian berretu egiten dira jendaurreko zeremoniak, eta bai ikusgarriagotu ere (prozesioak, hots handiko mezak). Lehenagotik ere izaten ziren erlijio kofradiak eta erromeriak egiten ziren ermita nahiz basilika ezagunenetara -eta bai herri bakoitzekoetara-, baina orain inoiz baino maizago egiten dira, eta Corpus Christi edo Aste Santua bezalako ospakizun handiak hots handiz egiten dira. Horrela munduari erakutsi nahi zitzaion katolikotasuna indar-indarrean zegoela protestantismoa bezalako doktrina «etsaien» aurrean. Arte erromanista XVI. mendean, eta arte barrokoa, XVII eta XVIII. mendeetan, irudi hori sendotzera etorri ziren. Hala ere, Erlijio berotasun horrek lagun egiten zion Elizari jendearen bizitza pribatua gehiago kontrolatzen, eta ordu arte aski normalak izaten ziren zenbait portaera pertsegitu egiten dira orain, hala nola ume sasi-koak, bikoteak ezkondu gabe elkarrekin bizitzea etab.).

13.2. Sorginak eta Inkisizioa

Nafarroan, egia esan, mugimendu erreformistek (protestanteek) ez zuten izan esateko moduko eraginik, ez kalbinistek eta ez luteranoek, eta artesirik gabe eutsi zitzaion erlijio batasunari. Hortaz, Inkisizioaren tribunalak, ardura baitzuen erlijio ideia eta ohituren ortodoxotasuna begiratzeko, ez zuen izan Nafarroan motibo handirik protestantismoaren inguruko talde edo pertsonen kontra esku hartzeko, nahiz eta kristau berrien portaerari begia edukitzen zion, batez ere, beste fenomeno arras diferente baten kontra jokatu zuen behin baino gehiagotan: sorginak.

Nafarroako mendi eskualdeetan populazio sakabanatua gailen zen, etxe bakartuak, eta oro har harreman gutxiago egoten zen hezkuntza eta erlijio korrante berriekin; horrek betidanik faboratu zuen medikuntza naturaleko zenbait praktika eta naturaren erritmoarekin lotutako tradizioak mantentzea: solstizioak ospatzen ziren, esate baterako (negu eta udaren hasiera). Ohitura horiek mendez eta mendez toleraturik iraun zuten, baina elizaren jarrera gogortu zenean, gero eta gehiago trabatu zituen halako jardunak. Pixkanaka, ohitura horietako asko sorginkeriatzat eta deabruarekiko tratutzat juzkatu zituzten Elizako agintariek eta bereziki Inkisizioaren tribunalak, eta gupidarik gabe pertsegitu, batez ere XVI. mende bukaeran eta XVII.aren hasieran. Hala ere, askotan jardun horiekin inolako loturarik ez zuten pertsonak akusatu zituzten, auzokoen arteko liskar edo interes ekonomiko ilunak zirela medio.

Nafarroako sorgin prozesurik handiena 1610ean izan zen, Zugarramurdi eta Urdazubiko herritar batzuen kontra. Emaiza larria izan zen: dozena bat jende heriotara eman eta erre zituzten. Harrigarria da, baina prozesu horren ondorioz duda handiak piztu zitzaizkien agintariei ohiko akusazioez eta handik hara franko murriztu ziren prozesuak.

13.3. Hezkuntza

Gizartearen erlijio oinarri hori oso argi ageri zen, halaber, hezkuntzan. Oinarrizko hezkuntza («Lehen Letretako eskolak») udalen kargu egoten zen, eta haiek hautatzen zuten maisua. Eskola hori, funtsean, do-

trina izaten zen eta irakurtzen eta idazten irakastea bost urtetik hamabira bitarteko haurrei. Hala ere, gurasoek erabakitzen zuten haurrak eskolatzea ala ez, eta haietako askok nahiago izaten zuten haurrek etxeko zein soroetako lanetan laguntzea. XVIII. mende bukaerara arte baizik ez da izanen hezkuntza derrigorrezkoa, eta XIX. mendera arteraino ez da benetan gauzatuko erabaki hori, oso poliki.

Eskola horiez gorago, «Arte edo Gramatikako ikastegiak» zeuden, eta han gramatika, latina edo filosofia bezalako ikasgaiak ematen ziren, unibertsitaterako edo elizgizon karrerarako prestatzeko. Familia aberastek baizik ez zuten sarbiderik halako ikastegietan. Halako ikasketetan zenbait erlijio ordena espezializatu ziren, hala nola jesuitak.

Unibertsitatearen munduak ez zuen inoiz izan Nafarroan halako bizitza distiratsurik. Gorteak unibertsitate bat sortzen saiatu baziren ere, haien ahaleginek huts egin zuten beti, eta beneditarrek ikastetxe bat (Iratxeko unibertsitatea) zabaldu bazuten ere, eta dominikoek beste bat (Iruñeko Santiago unibertsitatea) aski bizitza makala izan zuten, karre-
ra gutxi emanaz (filosofia, teologia) eta gehienetan eliz-gizonak forma-
tzea gogoan zutela, ez hainbeste laikoak.

13.4. Hizkuntza. Euskara eta erdara

Ordu arte bezala, Nafarroa Aro Modernoan ere bi hizkuntzako erresuma izan zen: euskara eta latinetiko erdara. Erdara horrek gero eta antza handiagoa hartu zuen gaztelarekin eta aro honen bukaerarako ez zegoen ia diferentziarik. Elite buruzagien hizkuntza zen; hartan idazten ziren xedapen legalak eta juridikoak, eta segur aski horrek guztiak pisatu egiten zuen erdara pixkanaka euskarari gailenduz joateko.

Euskara, izan ere, aspaldi hasia zen atzeraka. XVI. mendearen bukaeran erdialdeko zati handi bat oraindik euskalduna zen, Lana ibarra eta Zarrakaztelu Oteitzan eta Tafallan barrena lotzen zuen lerro baten iparrera, gutxi gora behera. Baina XVIII. mendearen bukaeran hizkuntza muga horrek iparralderago egin zuen, batez ere Zangozako merindadean, Irunberriko arro aldera, eta bai mendebalean ere, Allin eta Lizarra aldean. Muga-eskualde horietan, jakina, ukipen eremu zabala

dago, eta jende askok nola-hala bi hizkuntzei eusten die. Euskarak nekazarien artean irauten du hobekienik, eta iparralderago eta gailenago egoten da: mendialdeko ibar askotan populazio gehienak ez du beste hizkuntzarik jakiten.

13.5. Arrazoiaren bidea, Errenazimentua eta erromanismoa

XVI. mende hasieran, Italiako humanismoaren ideiek erabat mendean zeukaten, oro har, mendebaleko Europa. Ideia horiek gizona jar-tzen zuten kreatzioaren erdigune, eta Gizonaren arrazoa munduaren jabe. Erdi Aro gehiengan, berriz, fedezko izpiritua ibili zen gailen (arrazoi beharrik gabe sinistea). Arrazoizko izpiritu horrek eragin handia izan zuen arte kontuetan, eta Erromatar inperioaren ereduak kopiatze-ra saiatu ziren arkitekturan –klazisismoaren ideala– eta pinturan eta eskulturan teknikak hobetzera, errealitatea ahalik eta zehatzen jasotzeko.

Espainiako kasuan, hainbat estilo diferente kokatzen dira Errenazimentuaren izenpean: isabelinoa, platereskoa, herrerianoa edo Errenazimentua bera. Haietako batzuk Nafarroan ere ageri dira.

XVI. mendearen parte handi batean Nafarroak oraindik estilo gotikoan eraikitzen ditu bere obrak. Estilo horri, garai honetan, gehienbat Esuakl Probintzietako harginek egina izaten delako, *gótico vascongado* deritza.

Errenazimentu estiloko berrikuntzak oso poliki hasten dira sartzen, aldaketa politiko larriengatik ere eguneroko bizitzan, bizitza erlijiosoan eta ekonomikoan aldaketa handirik izan ez balitz bezala. Nafarroa, Europaren aldean, ez zen artez edo ekonomiaz bizitasun handiko eskualdea, eta kanpoko eraginak beranduago iristen ziren hona beste inora baino.

Herri askok ordurako ez zuten beste eraikin handirik behar, Erdi Aroaren bukaerarako altxatu baitzituzten beren elizak, eta batzuetan, XVI. mendean lehenagoko lan hori bukatu beste zereginik ez zuten izan. Halakoetan, zenbait eraikinek puntu Erdiko arku edo kapitela klasikoko kolumna erabiltzen hasi ziren, Errenazimentuko berrikuntza aipagarrienetako bi. Los Arcoskoak eta Vianako Santa Maria elizetako

portadak izanen dira agian mostrarik ikusgarrienak, errenazimentu estiloko bi erretaula handiren itxuran eginak baitira. Los Arcoskoa, gainera, bere dorre parrokiala ere bukatu zuen, errenazimentu egiturako eraikuntza lan zoragarria (oso diseinu soilekoa) eta apainlan plateresko-koa (detaile eta grazia handikoa); estilo plateresko horretan berean, hain apaingarria, Fitero eta Iratxeko klaustroak egin ziren.

Nafarroako Errenazimentuko lanik soilena agian Iratxeko monasterioaren dorrea izanen da, El Escorial bezalako estilo *herrerianoan* egina, Felipe II eta haren gortearen gusto-gustokoa.

XVI. mende bukaerarako, ordea, errenazimentu estilo hutseko zenbait eliza eraiki ziren, adibidez Lerinen, Larragan edo Zigako eliza monumentalak, kasu: kanoi erdiko ganga eta lunetak ditu (gangan diseinatutako lauki handiak) eta pilastra ikaragarriak, puntu erdiko arkuak erreferentziaztat daukala. Adreilua erabiltzen hasi zen gangetarako eta hortaz, pisua asko arindu eta arkitekto gotikoek erabiltzen zituzten nerbioak kendu ziren, eraikineko nabeetan altuerarik edo espaziorik galdu gabe.

Errenazimentuko arkitekturak eraikin zibiletan utzi du Nafarroan aztarnarik handiena: Zangozako jauregia edo San Adriango markesaren palazioa, Tuteran, zur landuzko hegatsak arkadak eta barne patioak dituenak.

Estilo hori bera inposatzen da erretaulak egiteko ere; haien artean aipagarriena Genevillakoa da, mendearen erdialdekoa. Erretaula hori gehienbat eskultorikoa da, baina erretaula pintatuak ere egin ziren, arte aleman eta italianoaren eraginpean, adibidez Erriberriko Santa Mariarena, estilo horretan egin ziren lehenbizikoetakoa (1515). Ikusgarriagoak dira, bai teknikaz eta bai gaiez, Orizko jauregiko horma-pinturak (Nafarroako Museoan daudenak), grisean pintatuak, eta bataila irudiek, besteak beste.

Nafarroako artearen historian lehen ez bezala, orain ia beti jakiten dugu lanen egilea nor den. Horrela, Juan de Orbara (Leringo Asuntzioko elizaren arkitektoa), Esteban de Obray (Tuterako koroaren harlandu lanaren arkitektoa. Andrés de Araoz eta Arnaldo de Bruselas (Genevillako erretaularen egileak) edo Pedro de Aponte (Erriberriko erretaula), dira ezagunenetako batzuk.

Eta noiz eta Errenazimentuko artea azken hatsetan zegoela, Nafarroan erabat gailendu zen. Nafarroan izan zuen, izan ere, arrakastarik handiena erretaulak itxuratzen espezializatua zegoen **erromanismo** izeneko arte korronteak. Orduko Erroman zabal zebiltzem moda manieristan segitu nahi zituen, zeinek Michel Angelo zuten inspirazio bide handiena. Manierismoa, esan bezala, Errenazimentuko deribazio bat da eta estilo horretako teknika eta estiloak kopiatu nahi izaten zituen (Michel Angeloren maneran, adibidez).

Erromanismoa, besteak beste, Eliza Katolikoak protestantimoari aurre egin beharraren ondorioa da. Trentoko Kontzilioaren ondotik, katolikoek protestantismoaren aurrerabidea galarazi zuten, eta artea oso sinbolo egokia zen jendeari Elizaren garaipen hori (kontrarreforma) erakusteko. Protestantek askotan gaizki irizten baitzioten elizetan santu irudiak egoteari, katolikoek erretaulak, kontrakarrez, gizamoldez betetzen dira, ahal adina santuri eskainiak.

Horregatik, erretaula erromanistak gehienbat eskultura exentua edo erliebekoak dira, hormazuloetan jarriak eta solairuetan eta kaleetan banatuak. Irudiak hobeki ikusi ahal izateko, apainlana murriztu egiten da eta multzoa oso ordenatua da.

Nafarroan –eta Espainia guztian– estilo horrek izan duen egile nagusia Juan Antxieta da, besteak beste honako lanen egilea: Cásedako Santa Maria erretaula, edo Iruñeko katedralaren aldare nagusirako egin zena, eta gaur egun Iruñeko San Migel elizan dagoena. Harekin elkarlanean beste langile eta lantegi asko aritu ziren Lizarran, Zangozan edo

Tuteran, eta hamaika eliza bete ziren Nafarroan halako irudiz eta erretaulaz XVI. mende bukaeratik XVII. mende hasierara bitartean.

13.6. Barrokoa gailen.

Erromanismoak osagai ideologikoa izan bazuen, Eliza katolikoak protestanteen konta egiten zuen ahaleginaren adierazgarri, hori are agerriago da arte barrokoan.

Kontrarreformak ordena erlijiosoei bultza egin zien, eta ordena horietako batek Nafarroan ezarri eta bere presentzia nabarmendu nahi izan zuenean, estilo barrokoan eraiki zituen bere komentuetako elizak. Hasieran egitura arkitektonikoak xinpleak izaten dira (Iruñeko karmelitalak, XVII. mendearen erdialdean), baina azken aldera apainlanak itota geratzen dira eta exuberantziaren sentsazioa eman nahi du: katolizismoaren goraldia eman nahi du aditzera aingeruak, landarezko apaingarriak, urre-geruzak eta abar erabiliz, eta osotasunari mugimendu bat emateko dauden hutsune guztiak beteaz. Santa Anako kapera, Tuterako Katedralean, San Gregorio Ostiense Sorladan edo Los Arcosko Santa Mariaren elizako barnealdea dira oso tipikoak XVII. mende bukaerako eta XVIII.aren hasierako urte hauetan.

Baina garai honetako zenbait eraikinek, eta are gehiago, XVIII. mende erditsuko beste zenbaitek ere, mugimendu sentsazio hori eta lerro apurtze hori bera beren diseinu arkitektonikoan sartzen dute. Milagroko Patrozinioko basilika edo Tuterako Compañiako eliza dira horren erakusbururik ederrenak («La enseñanza»).

Eraikin barrokoak ez dira mugatzen elizaren mundura. Estilo horretan eraikitzen dira Nafarroako udaletxe asko, ezagunenetakoa, Lesaka, Viana, Bera edo Iruñekoak kasu. Hala ere, erlijio propaganda egiteko asmorik ez baitute, baizik eta udalen seriotasuna eta gobernu ona zabaltzekoa, azkoz ere soilagoak izaten dira, nahiz eta apaingarriak hemen ere inoiz ez diren falta.

Antzeko irizpideak erabiltzen dira hegoaldeko harri eta adreiluzko eraikinetan eta iparraldeko harri hutsezkoetan. Adibide asko daude; haien artean Huarteko jauregia Tuteran, Erreparatzea Baztanen edo Iruñeko apezpiku jauregia.

Erretaulak ere arkitekturarako ikusi dugun lerro beretik joaten dira. Eskuarki egiturak xinpleak izaten dira, baina apainlanak espazio guztiak betetzen ditu, elizak eman nahi zuen botere eta garaipen sentsazioa zabaltzeko; Iruñeko Errekoleten komentuko erretaula adibide ona da. Interes horiek hobekienik biltzen dituen mugimendua Rococó delakoa da -bukaera aldeko barrokoa alegia-, XVIII. mendearen bigarren erdian. Apaingarriak murriztu egiten ditu baina aldaketa horren ordaine-

tan askoz ere handiagoko kolokatasuna eta mugimendua sartzen du egituran berean, erlaitz ilkiak, baketoien gaineko zutabeak, lerro zuzen eta kurboak nahasiz (Lerin, Larraga edo Lesaka). Horrela ikuslearen atentzioa ekarrarazi nahi da, Jainkoa, Amabirjina edo santuak gogorazten dizkioten eskulturetan jar dezan arreta.

Eraikinen eta erretaulen kalitatea jeneralean aski ona bada, ezin gauza bera esan daiteke pinturaren kalitateaz. Egile bakarra gailentzen da: Vicente Berdusán, argiaren efektuetan eta zero estudioetan trebea, barroko klasikoagoaren ildotik (Tuterako Katedralaren Kontseilu gela). Corellako González Ruiz ere aipa daiteke. Oro har, Nafarroako pintore barrokoek erlijio kutsuko gaiak erabiltzen dituzte, arkitektura eta erre-tauletarako ikusi ditugun oinarri berekin.

Aro Modernoaren bukaerak Erregimen Zaharraren oinarriak krisian sartzea ekarri zuen berekin. Bi mendez Nafarroako instituzioak gauza izan ziren hamaika zailtasuni aurre egiteko, bai eta sendotasun itxura bat emateko ere denetariko nahikunde zentralizatzailen aurrean. XVIII. mendearekin, ordea, batez ere bukaera aldean, Erregek ez ezik intelektual askok ere erreforma modernizatzailen gosez, estatu eredu berri baterako bidea urratu zuten.

14.1. Ondorengotza gerra

XVIII. mendea gerra batekin hasi zen. Azken Austriatarra, Karlos II.a ondorengo zuzenik gabe hil zen, eta bi erregegai elkarren etsai agertu ziren erresuma beretu nahirik, zeinek bere aliatuak zituela Europan. Nafarroa, Gaztela bezala, Felipe V.aren alde atera zen, Nafarroako azken erregeen, Albreteko Juan eta Katalinen ondorengo zuzena baitzen. Horrexek eragin zien beharbada Nafarroako buruzagiei. Baina baita praktikoagoko irizpideek ere. Felipe Borboikoa nagusitzen bazen, Frantziarekin bakea egin eta muga aldeko bakea segurtatuta egonen zen, eta bai mugakidearekiko harremanak hobetuko ere.

Gerrak ez zuen askorik ukitu Nafarroa; gehienbat ekialdea eta hegoaldea. Azkenean Felipe V.a nagusitu zen (1713). Garaipen horren lehenbiziko ondorio gisa, eta larriena ere bai, Aragoi koroako erresumek, Karlos Austriakoaren alde atera baitziren, beren intituzio propioak galdu zituzten (erregeordeak, gorteak etab.); Nafarroak berriz, irabazlearen aldeko agertu baitzen, eutsi zion bere instituzio sare osoari.

14.2. «Instituzioen» defentsa

Baina Nafarroa aparteko erresuma zela aitortu bazen ere, izan ziren bere pribilegioen kontrako neurriak hartzeko saioak. Pixkanaka gobernu diferenteak gero eta gehiago inposatu zituzten beren nahikunde ekonomikoak (zergak igotzea) edo militarrek (lebak egitea), Gorteen oniritziarekin nahiz gabe. Ordainetan, Gorteen ezeztatu baino lehen hautatzen zuten Diputazioak gero eta eskumen gehiago beretu zituen, Borbondarren izpiritu erreformazaleari horrela praktikoagoa zela iruditzen baitzitzaion. Horregatik Diputazioa bidegintza eta bide zainketa beretu zituen (gaur egun ere oraindik bere esku ditu) eta zergen parte bat biltzeko ardura ere bai.

Gorteak puntu bakar batean egin zuten kontra gogorki: mugetako aduanak kendu beharra. Erregeek uste zuten aduanak kentzeak lagun egingo ziola modernizazioari eta diru sarrerak berretuko zituela; gortekide gehienek, berriz, uste zuten hura zela foruen akaberaren hasiera, eta bai iparraldeko mugakideekin egiten zituzten negozio pribilejiatuen bukaera.

14.3. Los Arcos. Lurraldearen azken buruko diseinua

Erregeren eta erresumaren arteko gatazka ugarietan, bat izan da oso aparteko ezaugarriak dituenena. XVI. mende erditsutik, gerra bati esker, Gaztelak Los Arcosko hiria eta inguruko herriak bere manupean zeuzkan. Ordutik, eskualde hori Gaztela zen ondorio guztietarako, eta bertakoak, ofizialki behintzat, burgostarrak edo toledoarrak bezain gaz-

telau. Egoera horrek zenbait abantaila izan zituen bertakoentzat, trabarik gabe aritzen baitziren merkataritzan eta aldi berean ordu arte bezala eusten baitzieten Nafarroarekiko harremanei, erresumarentzat nafarrak baitziren.

XVIII. mendera arte (1753) Los Arcos eta bere barrutia ez zitzaizkion atzera eratxiki Nafarroari. Beharbada Borbondarren zentzu praktikoak izan zuen horretan eragina: bitxi antza zen egoera bati akabera emateko, edo Gorteei horretan amore emanda beste zenbait abantaila lortzeko.

14.4. Erreformen garaia

Erregeekiko eztabaida, itun eta negoziazio horiek guztiengatik ere Nafarroa ez zen libratu izpiritu ilustratuaz kutsatzetik: ekonomiaz eta kulturaz modernizatu beharretik alegia. Urte hauetan anitz hirigintza proiektu egin ziren, eta bai nekazaritza hobetzekoak ere, nahiz eta haietako asko, diru faltan, ez ziren gauzatu. Adibidez, mendearen bukaeran Iruñarentzako ur-ekarri berria egin zen (Noaingo akueduktua), edo Zangoza berri baten proiektua, Aragoi ibaiaren gainezkaldietatik babes-tua. zenbait hamarkada lehenago Erregeordeak, Gages-ko kondeak, gaur ezagutzen ditugun komunikazio bide nagusi batzuk egin eta eraberritzeari ekin zion. Arte neoklasikoa modernizazio kezka horien sinbolorik hoberena izanen da.

14.5. Nafarroako ordua

Aldi honi «Nafarroako ordua» deitu izan zaio, jatorri nafarreko hainbat eta hainbat pertsonaiak beren xokoa bilatu baitzuten Espainiako bizitza sozial eta politikoan, nafar jendea ere Erregek berak adina interes izan balu bezala ideia erreformazaleen buru jartzeko. Jakina: gizon eskolatuen eta aberatsen gutxiengo txiki bat besterik ez zen, jende osoaren aldean ezer gutxi, baina oso gailen agertu zen.

Espainia guztian eta are Europa guztian entzute handia izan zuten pertsonaia batzuek lehendik ere agertuak ziren. Ezin aipatu gabe utziko ditugu Martin Azpilkuetako, XVI. mendean, agian Nafarroak izan duen intelektualik (moralista, jurista eta ekonomistarik) handiena, eta Donibane Garaziko Huarte filosofoa, edo San Frantzisko Xabierkoa misiolaria, XVII. mendetik Nafarroako bigarren patroia, San Ferminen aldameanean.

Orain, ordea, bestelako pertsonak dira: ez dira hain bizitza distiratsukoak baina asmatu zuten botere ekonomiko eta politikoaren kokagune funtsezkoenetan jartzen: besteak beste Tiburcio Redín militarra, Juan Bautista de Iturralde eta Juan de Goyeneche finantzariak (azkenak Nuevo Baztan fundatu zuen Madrildik hurbil, bere jaioterriaren oroimenean) edo Jerónimo de Ustáriz ekonomista; XVII. mendean administrazio zentrolean goi-goiko karguak iritsi zituzten beste nafar batzuen ondorengo dira; orain ere irabazbide handiko negozioetan aritzen dira (bankariak, zerga alokatzaileak etab), eta batzuetan gainera garrantzi bereziko idazkaritzak (ministerioak) hartzen dituzte: gerrako ministerioa, kasu (Sebastián de Eslava) edo Ogasunekoa (Miguel de Múzquiz). Askotan esan da itzal handiko pertsonaia horiek galga egin ziotela Erregeek Nafarroako instituzioak mugatu edo are ezeztatzeko izaten zuten asmoari.

14.6. Mende bukaerako gerrak

Dena dela, Nafarroa gero eta azkarragoko krisian abiatu zen. Mende guztian zehar Frantziarekiko harremanak oso onak izan ziren eta Nafarroa gerra mehatxuetatik libre egon zen, aurreko garaietako kezka-bide handiena baitziren. Baina Frantzian iraultza nagusitu zenean (1789), erabat aldatu zen egoera. Aldameneko herri hori berriz ere etsai agertu zen eta Nafarroa berriz ere borrokaren aurreneko lerroan zegoen. Gainera Frantziako sistema politiko berriak Espainiako monarkia-
ren egitura instituzional eta ideologiko guztiari egiten zion mehatxu, absolutismoaren eta Gorte estamentalen kontrako eredu bat proposatzen zuelako. Gerra 1793an piztu eta 1795era arte iraun zuen; Nafarroako iparralde osoa, Iruña ingururaino, Frantziako armadaren erasopean

egon zen. Konbentzioko gerra (hala zeritzan Frantzia gobernatzen zuen biltzarrari) desastre ekonomiko handia izan zen eskualde horientzat, eta gainera, instituzioen gainbehera ere abiatu zuen.

14.7. Foru instituzioen gainbehera

Karlos IV.aren ministroek, Godoyk bereziki, egoera politiko, militar eta ideologiko korapilatsu bati egin behar zioten aurre. Eta hartarako gutxi ardua izan zieten Nafarroako pribilegioek. Gorteen baimenik gabe zergak ezarri eta sistematiko behartu zituzten Gorteok eta Diputazioa erresumako estadien aurreko onespenerik gabe eman zituzten arau militar eta ekonomikoak onartzera.

Jokabide hori, hala ere, ez zuten Nafarroako intelektual eta politiko guztiek gaitzetsi. Batzuek oraindik sendo defendatzen zuten sistema tradizionala eta sinistuta zeuden foruak indarberrituko zirela krisi horren ondoren. Beste batzuek, ordea, agian Frantziatik heldu ziren ideien eraginpean, hasiak ziren pentsatzen erreformak behar zirela instituzioak modernizatzeko, ezinbestez itzaltzera zihoazen eredu sozialetan eta legeetan oinarritzen zirelako.

14.8. Arte klasikoaren itzulera

Barrokoarekin gertatu zen moduan, mugimendu **neoklasikoak** berandatu zen Nafarroan laketzen. XVIII. mendeko ilustrazioak ere bere eragina izan zuen arteari ideia hotzagoak, lasaiagoak eta soilagoak emateko, barrokoaren gainkarga eta espantu haien alderako. Oraingo artea ez dabil erlijio jakin baten gailenaldia erakutsi beharrez. Ez: gizartean eta artean ere berriz arrazoia nagusitu beharrean dagoela eman nahi du aditzera. Horregatik XVIII. mende bukaerako eta XIX.aren hasierako arte nafarrean lerro garbitasuna eta soiltasuna itzultzen dira eta premia-rik gabeko apainlanak desagertzen.

Ventura Rodríguezek sartu zuen estilo berria; Iruñeko katedralaren fatxada berria enkargatu zitzaion (1783-1800) eta Noaingo akueduktua

(1790), ura Erreniegatik Iruñera ekartzeko. Haren lankide batek, Santos Ángel de Ochandáteguik, ildo beretik segitu zuen (Iruñeko San Lorenzo elizako San Fermin kaperaren erreforma, 1797an proiektatua) eta Zangoza berri bat diseinatu zuen, Aragoi ibaiaren gainezkaldietatik begiratua (1787). estilo berean egina, baina askoz beranduagokoa, Tafallako plaza berria dugu, Martín de Saracíbarrek proiektatua (1856).

Pinturan, Luis Pareten lanak gailentzen dira: Vianako Santa María elizakoak, kasu; Iruñean ura partitzeko hainbat iturri ere diseinatu zituen, Kontseiluko plazan gaur egun dagoena, adibidez.

Ageri denez, ilustratuek, bizitzari buruz zuten ikuspegi praktikoak eramanda, herrilan askotan parte hartu zuten, Ventura Rodríguezek eta Pretek berak, kasu.

Hala ere, aldi honetatik Nafarroan kontserbatzen diren lanik hobeenak Francisco de Goyaren zenbait pintura dira; formazio neoklasikoa zuen baina estilo hori baino askoz ere harantzago joan zen. Hark eginak dira San Ariango markesaren bi erretratu (Nafarroako Museoan) eta beste bat Fernando VII.arena (Nafarroako jauregian).

III
XIX. MENDEA

ERRESUMA BATEN BUKAERA (1808-1841)

Frantziako Iraultzak Frantzian bertan ez ezik Europa guztian izan zituen ondorioak. Espainia, eta Nafarroa ere ez ziren salbuespena izan. Urteak joan urteak etorri, ideia berriak izan ziren, Konbentzioko eta Independentziako gerretan Pirinioak pasatu zituzten armadak baino areago, Erregimen Zaharra kordokarazi eta azkenean uzkaile zutenak (Erregimen Zaharra: botere handiko erregeak eta lege eta pribilegio banako gizarte-talde handiak osagai zituzten instituzio eta eskubide multzoa). Nafarroako Erresuma eta, gehiago dena, haren egitura instituzional eta juridikoa ere prozesu horren eraginpean egon ziren. Gainera, Nafarroan bereziki gogor jo zuten elkar Berdintasuna eta Libertate indibiduala bezalako ideia iraultzaileak (erradikalak nahi moderatuak) defendatzen zituztenek, batetik, eta aurreko tradizioari eutsi nahi ziotenek, bestetik.

15.1. Independentziako Gerra

Orduan esan bezala, Konbentzioko gerran, XVIII. mendeko azken urteetan, lehendabizikoz jo zuten elkar Nafarroak eta Frantziako tropa iraultzaileek, eta hortik aski ondorio sozial eta ekonomiko larriak etorri ziren.

Hala ere, Napoleonekin are gehiago korapilatu zen egoera. Napoleoneon, izan ere, eta paradoxaz, iraultza baliatu zuen boterea eskuratu eta enperadore proklamatzeko. Liberalismo iraultzailearen printzipio askori eta lege berrikuntza askori eutsi, baina bere baitan bildu zuen botere politikoa eta militarra, eta Europaz jabetzera oldartu zen. Espainia, aurreko mendeetako prestigioaren parte handixkoa galdu bazuen ere, pieza inportantea zen artean ere Kontinenteko mapan. Penintsula Iberikoa kontrolatzea ezinbestekoa zen arrisku handiagoko potentziei buru egiteko, adibidez Britainia Handiari, gainerako errietatik isolaturik uzteko asmoz (blokeo kontinental). Eta Espainia menderatzeko bidea Nafarroa zen.

Lehendabiziko tropa frantsesek Espainiako Borbondarren aliatu gisa gurutzatu zituzten Pirinioak Portugaliko kontra egiteko, tradizioz Britainia handiaren sozioa baitzen. baina egoera hori erabat aldatu zen etorri eta egun gutxitara, sorpresaz, gizon horiek hiriaren zitudela hartu eta Iruñeko defentsak beren mende ekarri zituztenean (beste anitz herri-tan bezala). Hasieran Iruñeko agintariek, (erregeordeak, Diputazioak) onartu zuten ekintza hori, baina Napoleonek Karlos IV.a eta haren seme Fernando VII.a abdikatzera behartu zituenean bere anaia José I.a Bonaparte erregetzeko, inbasoreen kontrako matxinadak hasi ziren Espainia guztian eta handik sei urtera frantsesak erretiratu arte ez ziren gelditu.

Nafarroa Frantziatik etortzeko eta Frantziara joateko pasabidea zen, eta tropa frantsesek interes gogorra zuten komunikazio bideak etenik gabe kontrolatzeko: Iruña edo Tuterako bezalako hiri handiak eta mugako pasabide estrategikoak (Orreaga, Urdazubi). Adibidez frantsesek Tuterako matxinada ito zuten (1808ko azaroa), eta Diputazioak inbasoreei buru egitea erabaki zuenean hiriburutik aldegin eta hegoaldera ihes egin behar izan zuen, eta bai erresumatik atera ere.

Espainiako armada erregularrak ezin izan ziren buru egin tropa frantsesei, askoz ere hobeki entrenaturik eta armaturik baitzeuden, hasierako zenbait arrakasta gora behera (Bailén, Jaenen) eta pixkanaka gerrillero talde batzuk, armada hautsiaren militarrek eta zibilak nahaste, esetsika hasi zitzaizkien frantsesei, eta haien arma eta elikagai-garraioei, patruila txikiei eta abarri. «Partidak» ziren (taldeak), batzuetan oso txikiak, baina beren terrenoa oso ongi ezagutu eta zelai zabalean soldadu

aralde handiekin lotu nahi izaten ez zutenak, han erraza baitzen harrapatzea.

Nafarroako guerrilla taldeak 1809an hasten dira, bereziki bi talde: 1810 urte hasierara arte Javier Mina, goitizenez Estudiantea, Nafarroako erdialdean mugitzen zen gizon talde baten buru aritu zen («El Corso terrestre» esaten zitzaien). Frantsesek harrapatu zutenean, haren osaba Francisco Espoz y Minak hartu zion txanda eta Nafarroan ari ziren talde guztiak batzea lortu zuen, benetako armada bat osatu arte: Nafarroako Dibisioa. Hiriak frantsesen esku bazeuden ere, haien tropak gero eta nekezago mugitzen ziren herrietan barrena eta frantses jeneralek eta gobernadoreek ezin izan zituzten matxinatuak menderatu, gero eta sendagoak baitziren.

Toki guztietan jendeak bai batzuen nola besteen presioa jasaten zuen, bai frantsesek eta bai guerrilleroek jendeari zergak, nahitaezko maileguak, bahiturak eta isunak jartzen baitzizkioten gerraren gastuak berdintzeko. Guerrilleroen kasuan beharbada jendeak errazago onartuko zuen beren herrikideei laguntzea, baina Espoz y Minak zalantza gutxi izan zuen nahitaezko errekiak egiteko herriek borondatez ez bazioten ematen eskatutako laguntza guztia. Egia esan, Espoz y Mina eskualde guztiaren benetako buruzagia zen frantsesek kontrolatzen ez zuten eremuan, bere aduana eta tribunalekin.

Azkenik, tropa anglo-espainolek, Wellington buruzagi, 1813ko urrian Napoleon Nafarroatik bidaltzea lortu zuten. Gerra bukatua zen, baina ondorioek luze iraungo zuten.

15.2. Absolutistak eta liberalak. Ideien gatazka

Frantsesek Nafarroako instituzio propioen abantaila guztiak suntsitu zituzten. Sortu ziren organismo guztiak, Gobernu Kontseilu bat et Diputazio bat, sinbolo hutsak izan ziren, benetako boterea gobernadore militarren esku egoten baitzen.

Espainolen artean, Napoleonekiko gatazkak ez zuen galarazi Iraultzak sortarazi zituen ideia batzuk bertako intelektual eta politikoen

artean zabaltzea. Gorteak, Cadizen bilduta, 1812an onetsi zuten konstituzio liberal bat, herritar guztien eskubideak bermatu, Erregeren boterea murriztu, diputatuak hautatzeko hauteskundeak ezartzen zituen eta abar. Nafarroari ere, Gorte propioak zituen erresuma bazen ere, biler horietara joateko hotsegin zioten, eta, larriagoa dena, Konstituzioak ezarri zuen haren foruak eta instituzioak desgertzekoak zirela eta erresuma gabe besteak bezalako probintzia bat izanen zela. Eskubide berdintasunaren ideiarene ondorioz, Cadizko Konstituzioak organismo horiek ezeztatu nahi izan zituen, lurraldeen eta gizarte taldeen desberdintasunean oinarrituta baitzeuden hain zuten. Nafarroako Gorteak eta Diputazioa estamentuka hautatzen ziren, eta estamentu horietan, gainera, ez zen populazio osoa sartzen, eta Nafarroa aparteko erresuma zen, Espainiakoak ez beste lege batzuk zituen. Bide zen, beraz, Cadizko liberalek bereizkuntza horiek suntsitu nahi izatea.

Hala ere, Fernando VII.a 1814an berriz aginteratu zenean, Konstituzioa ezeztatu eta gerra aurreko instituzio guztiak berrezarri zituen. Harrigarria da ikustea nola Erregek berak berrezarri zuen Nafarroako foru eraentza, frantsesetaren aurretik Borbondarrek hain gogor hartu zutena. baina Erregek tradiziozko sistemara itzuli nahi zuen eta botere absolutua berreskuratu, ezer gertatu ez balitz bezala.

Baina ideia liberalak politiko eta militar askorengan mantendu ziren; are gehiago: Espoz y Mina bezalako pertsonaia bat, lehenago absolutista amorratua izan bazen ere, liberalen aldera mugitu zen eta atzerriratu beharrean egon zen. Bereizkuntza horrek Nafarroako historia markatuko zuen mende guztian zehar. Liberalek ez bezala, absolutistek zioten erregeak eta erlijioak ezinbesteko garrantzia zutela (Aldarea eta Tronoa, beren hitzetan esateko) estadia gobernatzeko eta ide horiek gidatu behar zutela erresumaren gobernamendua, ordu arte izan zen bezala. Libertate indibidualek ez zuten aparteko garrantziarik printzipio horietan, uste zutelako Errege zela, talde pribilegiatuak kontseilari (nobleak, kleroa), gizarteari zuten hots emateko egokiena.

Liberalek, aitzitik, uste zuten funtzio hori herritar guztiei zegokiela beren ordezkarien bidez, eta beren erradikaltasunaren arabera noiz gehiagoko noiz gutxiagoko boterea uzten zioten Erregeri. Oro har, eta ikusiko denez, Nafarroako liberalak sektore moderatuekin lerrokatu zi-

ren, eta horregatik, gainera, Nafarroako instituzioak ezeztatu beharrean, erreforma sakona egin nahi izan zuten, zenbait berezitasun mantentzeko.

Ideia horien atzean zenbait interes jakin ere baziren: Kleroa, noble xumeak, eta anitz jabe edo maizter txiki edo ertain: horiek defendatzen zuten sisteman zenbait pribilegio fiskal eta juridiko zituzten, eta zerbait estabilitate beren eginbehar ekonomikoetan (adibidez, mende askoan aldatu gabeko errentak). Burgesiak, ordea, edo Erriberako lurjabe handiek, askoz handiagoko aukera ekonomikoak ikusten zituzten liberalismoan, komertzio librea faboratzen baitzuen, lurren salerosketa, barneko aduanak desagertzea, prezioen libertatea eta abar. Hortaz, Nafarroako ipar eta erdialdeko eskualdeak, Iruña kenduta, absolutisten alde aterako ziren denboraren buruan, eta Erribera, berriz, lurjabe handiak eta jornaleroak, edo populazio burges kokorra zuten hiriak, liberalen alde.

Borroka ideologiko honek ondorio larriak izango ditu ondorengo urteetan. 1820an, militarrek matxinatu eta Errege behartu zuten Konstituzioari zin egitera. Hiru urtez gobernu liberala egon zen eta horek Nafarroako Foruak ezeztatu zituen. Hala ere, azkar asko Junta Errealista bat eratu zen (Erregeren botere tradizionalen aldekoa) eta junta horrek lurralde gehientsuena kontrolatu zuen, Iruña kenduta. Tarte laburra izan zen, harik eta Europako potentzien armada batek Fernando VII.ari botere absolutua itzuli eta Nafarroak berriz ere bere foruak, Gorteak eta Diputazio berreskuratu zituen.

Jakina, Gorteak eta Diputazioa berrezartzeak ez zuen galarazi Erregek, gainerako borbondarrek egin zuten bezala, instituzio horietatik zenbait kontzesio lortzen saiatzea, askotan erresumaren pribilegioen kontrakoak. Baina absolutisten ideologian, instituzio horiek mantentzea, haiekin gatazkak baziren ere, monarkia tradizionalak iraun behar zuelako sinboloa zen, ideologia liberalaren kontrakoa.

1828-1829 urteetan, azkenekoz bildu ziren Nafarroako gorteak eta hainbat lege onetsi hezkuntza eta udalak modernizatzen. Adibidez, orduan sortu zen Hezkuntza Batzorde Nagusia, 1836an suntsitu eta XX. mendean berrabiatuko zena.

Hala ere, handik gutxira Erregek sobrekartako eskubidea ezeztatu zuen (Gobernuaren aginduak Nafarroan gauzatzeko Errege Kontsei-

luak baimena eman beharra alegia eta ikerketa bati hasiera eman zioten foruak monarkiaren interesen arabera errebisatzeko.

Bazirudien, beraz, batera edo bestera Nafarroako foru sistemak larrialdi handiak pasatuko zituela ondoko urteetan.

15.3. Lehenbiziko karlistada

Fernando VII. aren erregealdiko azken urteetan, boterea eskuratzeko borrokan liberalak hasiak ziren, antza, nagusitzen. Gortean bertan liberalak gero eta handiagoko eragina zuten Erregeren inguruan eta haren laugarren emazte María Cristina Borbongoaren zirkuluan; absolutistek, berriz, Erregeren anaia, Karlos infantea zuten sustengua. Borbondarren tradizioan debeku zen emakumeak tronoa beretzeari, eta ondorengotasunaren gaia problemaren parte funtsezkoa izan zen errege hil eta bere alaba Isabel utzi zuelarik ondorengo (1833).

Nafarroan, Espainia guztian bezala, egoera oso nahasia zen; kleroak eta populazioaren parte handi batek Karlos infanteari lagun egiten zioten, baina Diputazioak eta Iruñeko Udalak –nahiz bertako jende asko Karlosen aldeko izan– liberalen alde atera eta Isabel II.a aldarrikatu zuten (Isabel I.a Nafarroan). Handik hara, tradizionalistak edo absolutistak «karlista» deitzen hasi ziren, eta liberalak berriz kristino –María Cristina erreginordearen izenetik– edo isabelino. Jakina, gatazka horren atzean, Koroaren inguruko borroka baino askoz gehiago zegoen; sistema politiko eta soziala ikusteko bi modu diferente ziren (edo bi baino gehiago ere, bando bakoitzak bere barne taldeak baitzituen).

Karlistak armatan altxa ziren Fernando VII hil orduko, baina toki gehienetsuenetan aurki azpiratu zituzten salbu eta Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan –zeinen sistema foralak ideario liberalarekin bateraezinak ziren– Katalunian eta Aragoiko hegoaldean, han nagusi baitziren nekazari herri askotan eta Pirinioan.

Lurralde horietan eta gerraren lehenbiziko urteetan, karlistek garaipe handiak izan zituzten, hala nola Lizarra edo Tolosa hartzea. Gerran parte hartu zutenetatik militar bat gailentzen da bereziki: Tomas de Zumalakarregi karlista, armada karlistaren antolatzailea. Liberalak hiri

handienetara eta Nafarroako hegoaldera zokoratzea lortu zuen eta bata bestaren ondotik buruzagi kristino guztiak hautsi zituen. Baina Zumalakarregi Bilbo hartu nahirik ari zela hil zen (1835) eta gerraren zortea aldatzen hasi zen. jeneral karlistak elkarren kontra hasi ziren, Karlos (v) erregenahiaren Gorteko intrigengatik eta prestigioa eta nazioarteko aitormena lortzeko moduko hiri handi bat eskuratu ezinagatik, buruzagi asko etsitzen hasi ziren. 1837an Karlos V eta bere tropak Madril ingururaino iritsi ziren (Erregeren Espedizioa) baina azken orduan erretiratu beharrean egon ziren.

Azkenik, armada karlistaren buruak, Marotok, hitzarmen bat sinatu zuen Espartero liberalarekin (Bergarako Hitzarmena, 1839). Karlista asko itun horri muzin egin bazioten ere, erregenahia -tronoa eskuratu nahi zuen printzea- erbestera beharrean gertatu, eta haren soldaduak, askotan boluntarioak, handiki txiki eta nekazarien artetik sortuak, beren etxera itzuli edo Amerikara aldegin zuten.

15.4. Eredu instituzional bat suntsitzeko bidean

Baina hitzarmenaren ondorioak ez iren hutsik militarrik izan. Azken finean, bi eredu ideologiko diferentek jo zuten elkar, eta liberalen garaipenak, kontrarioa erabat menderatuz izan ez bazen ere, ezinbesteko ondorio politikoak izanen zituen.

Bake hitzarmenak ezartzen zuenez, sistema foralak begiratu eginen ziren, Espainiako Gorteen konstituzioaren arabera eginen zuten interpretazioaren arabera (1837ko Konstituzioa); halatan bada gaia aski lauso geratzen zen.

Eta ez pentsa foruak izan zirenik matxinadaren arrazoi nagusia, baizik eta Erregimen Zaharra oro har defendatu nahia; baina sistema forala multzo horren parte zen, nahiz eta monarkiak askotan eraso egin zion. Eta foruen aldekoek ezinbesteko laguntza aurkitu zuten karlisten artean, liberalek foruak suntsitzeko zituzten asmoei kontra egiteko, iruditzen baitzitzairen lurralde batzuen eta besteen artean bidegabeko diferentziak markatzen zituztela. Eta orain, bakea iristear zela, foruen gaia nahitaez eztabaidatu beharra zen.

Gerrak iraun zueino, gobernu liberal guztiek ahal zuten guztian murriztu zituzten Nafarroako pribilegioak nagusi ziren eremuetan (Erriberan, Iruñean). Nafarroako liberalek, instituziook berritzearen aldekoek, nolabaiteko autonomia gorde nahi zuten halare zenbait gaitan, bereziki ekonomian, eta horren alde saiatuko dira Diputaziotik.

Espainiako Gorteek, gehiengoa progresista zutela (hauexek ziren liberalik erradikalenak), lege bat eman zuten 1839ko urrian, foruak berresteko Konstituzioarekin batera zitezkeen guztian, eta negoziazio bat eskatzen zuten instituzio foraletako ordezkariekin printzipio horren arabera moldatzeko foruak.

«Probintzia salbuetsien» Diputazioek, hau da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia (beren pribilegio bereziengatik esaten zitzaizen horrela), ez zuten beren foruak ezertan ere aldatzerik nahi, eta lortu ere lortu zuten ordu arteko erregimena beste mende erdi batez iraunaraztea, Espainiako liberalen barne-diferentzia handiei esker. Baina Nafarroako Diputazioa liberalen esku zegoen –José Yanguas y Miranda idazkaria buru zela– eta berehala hasi zen negoziazioetan bi helburu oinarrizko iristeko: sistema eraberritzea, zaharkitua eta bidegabezkoa iruditzen baitzitzaien, eta aldi berean ahal zen autonomiarik handiena atxikitzea.

Edozein modutan ere alde bateko zein besteko ordezkariak (Nafarroako Diputazioa eta Espainiako Gobernuak) talde berekoak izanak ziren gerran (biak liberalak) eta beraz biak zeuden sistema forala bere-bere hartan iraunaraztearen kontra. Halatan, ezin galarazizko gauza zen sistema hori desagertzea edo gutxienekoan haren ezaugarri tradizional gehienak aldatzea.

16.1. Instituzio berrien sorrera nekeza

Foruak eraldatzeko negoziazioetan, Espainia liberalean ohiko ziren gorabehera guztiak gertatu ziren: gobernu aldaketa ustegabekoak, moderatuen eta progresisten arteko tirabira, militarren matxinadak eta abar. Azkenean Espartero jeneralaren gobernu progresistak emanen die akabera ordezkari nafarrekiko elkarrizketei, Yanguas haien buru zela.

Historialariek eta batez ere juristek, politikoez, kazetariak mende eta erdi batez aritu dira eztabaidan 1841eko abuztuaren 16an onetsi zen Legearen ezaugarriak direla eta ez direla. Batzuentzat, Madrilgo Gobernu liberalak Nafarroari inposatutako ereduak izan zen, Nafarroak gerra galdu berria baitzuen. Beste batzuentzat Nafarroko instituzioen ordezkari legitimoen eta Espainiakoen arteko ituna izan zen. Batzuek kontraforu klaroa ikusten duten lekuan, Gorteen iritzia aintzat hartu gabe aldatu baitzen sistema, beste batzuek soluziorik egokiena ikusten dute itun horretan, sistemaren egiturak modernizatzeko, ez bakarrik egitura juridikoak, egitura ekonomikoak eta sozialak ere bai. Batzuek foru sistemaren desagertzea ikusten dute; beste batzuek modernizatzea. Batera nahiz bestera izan, oso aldaketa larria izan zen.

Nafarroako Foruen gaineko Legea -Lege Hitzartua ere deitua, Diputazioak eta Gobernuak ituna egin baitzuten- Probintzia bihurtzen

zuen Nafarroako erresuma: Erregeordea, Errege Kontseilua, Kontuen Ganbera, Gorteak berak eta Gaztela eta Aragoiko aduanak ere kentzen ziren. Justiziaren sistema ere Espainiako sistemara moldatzen zen, eta administrazio militarra ere bai. Orduz geroztik lege orokorrak Nafarroan ere ezarriko ziren, gazteak soldadu joango ziren gainerako espainolak bezala, eta hauteskunde sistemak araudi bat bera izango zuen Gorteak, udalak eta Diputazioa bera hautatzeko.

Hala ere, legeak Nafarroaren berezitasuna bermatzen zuen zenbait alderditan. Nafarroako zuzenbide zibila (familia, ondorengotza, herentziak, jabetza liskarrak eta abar) indarrean zen oraindik; Diputazio Probintzialak –aurrerago Diputazio Forala deitua– udalen administrazioa bere esku zuen; gainerako Espainian, berriz, Gobernuak hots ematen zien zuzenean. Eta batez ere Diputazioak bere esku zuen artean ere zerga handienak biltzeko ardura (salbu eta gatzaren eta tabakoaren salmenta zamatzen zutenak); horren truke, urtero dirutza jakin bat oradaindu behar zuen Estaduak Nafarroan zituen gastuak berdintzeko (**kupoa**). Nahiz eta teorian gobernadore zibila Diputazioaren buru ere zen, praktikan kargu hori lehendakariordeak hartzen zuen beti, diputaturik zaharrenak alegia.

Halatan bada, aurreko mendeetan instituzioek gar handiz defendatu zituzten zenbait pribilegio desagertu baziren ere, eta bai instituzio horietako franko ere, Nafarroako Diputazioa ez zen Espainiako besteak bezalakoa (probintzia bakoitzak berea baitzuen); besteek baino askoz ere handiagoko autonomia ekonomikoa eta udalen eta herritarren gaineko eragin politikoa zituen.

Legea ezartzerakoan zenbait traba aurkitu ziren, gobernu liberalek (aurreko mendeetan absolutistekin gertatu zen bezalaxe) eta Diputazioak interpretazio bana ematen baitzioten maiz; batez ere gai ekonomi-koetan, hortxe gorde baitzituen Nafarroak eskumen gehienak.

16.2. Abentura karlistak eta foruen berrezartzea

Bide denez, karlistak eta Erregimen Zaharraren alde atera zirenak Lege Hitzartuaren kontra agertu ziren berehala; liberalak, berriz, mo-

dernizazioaren eta geratzen zen autonomiaren laudoriotan hasi ziren. Baina karlisten eta karlistazaleen haserrea, Nafarroa bezalako toki karlistazale batean, urtez eta urtez eduki zuen bizirik tentsioa. Gainera, hemendik aurrera foruen berrezartzea –galdutako pribilegio eta instituzio guztiak berreskuratzea– karlisten bandera handiena izan zen, nahiz eta ordu arte beren errebindikazioetako bat besterik ez bazen ere.

Harrigarria bada ere, jeneral liberal batek erabili zuen deskontentu hori bere mesede: O'Donell, Euskal Probintzietako eta Nafarroako Kapitán Jeneralak; Esparteroren kontra altxatu zen Iruñean (1841), baina kale egin zuen, segur aski karlistek berek ez baitzioten konfiantza gehiegirik.

Azken batean Iruñeko matxinada hori beste bat izan zen Isabel II.aren erregimena kordokatu zituztenen artean, progresistak eta moderatuak etengabeko gatazkan aritu baitziren boterea nork eskurako. Diputazioan bertan ere ikusi ziren halako liskarrak eta borrokak, eta Gobernu zentralarekiko tentsioa oso goraino iritsi zen batzuetan, hala nola 1845ean Probintziako Kontseilu bat eratu zenean, Gobernuak izendatua, 1841eko Lege Hitzartuak Diputazioari ematen zizkionak adinako administrazio eskumenak zituena.

Baina 1846an karlistak Katalunian jazarri zirelarik, eta Karlos (V.)aren semea errege aldarrikatu, arrakasta eskasa izan zuten. Ez zuten lortu armada antolatua sortzerik, buruzagi jantziekin, eta zenbait boluntario partida eratu zituzten, isabeldarrek noiz asko noiz gutxi pertsegitu zituztenak. 1849rako ez zen matxinadaren arrastorik gelditzen.

Hurrengo egokiera, eta orduan sendoago, 1868an izan zen, Isabel II.aren erregimena eraitsi zutenean. Iraultzak («La Gloriosa») Konstituzio bat ekarri zuen berekin, orduko Europakoetan aurrerakoienetako: gizonen boto eskubide unibertsala (gizon guztiak zuten eskubidea, eta ez soilik ondasundunek, ordu arte bezala). Baina erorkortasun politiko izugarriko garaia ere izan zen hura. Elizak kontra egin zien iraultzaileei, haien ideiek erlijio katolikoa mendratzen zutelakoan; Isabel II.aren ondoko erregea, Amadeo I.a italiarrak (1870-1873), abdikatu behar izan zuen politikoak eta herria kontra zituelako, eta ondorengo Errepublikak hamar hilabete eskas iraun eta lau lehendakari izan zituen.

Nafarroan ere nahasmendu berbera zen nagusi: iraultzaileak eta karlistak berehala azaldu ziren foruak berrezartzearen alde, baina le-

henbizikoek nafar gehienen gorrotoa beretu zuten elizaren etsai izateagatik, erlijioak oso sustrai sakona zituen Nafarroa bezalako lurralde batean. Karlistek, eta aurki haiekin batera Isabeldarrik moderatuenek ere, Gobernuaren anabasa eta erlijioaren krisia behar zituzten, berriz saiatzeko boterea eskuratzen, batez ere orain itzal ukaezineko liderra baitzuten: Karlos (VII) erregeahia.

1872az geroztik, Amadeo I.aren monarkia ahultzen denarekin batera, hasi ziren aurreneko errebolta, nahiz eta aurreko gerran ideia karlistek erro egindako tokietan baizik ez zuten arrakastarik izan, eta bereziki Euskal Herrian. Karlisten armadak, oraindik gaizki koordinatua, desegigo latzak izan zituen hasierako hiletan (Orokietan), baina ondoren berrantolatu, eta Amadeo I.aren azkenaldiko erorkortasun politikoa baliatuz, atzera zuzpertzur zen. Errepublikak etorri zelarik izan zituzten garaipen handienak. Karlos VII.a Lizarran finkatu da eta bere armadak behin eta berriz ateratzen da garaile; berriz ere Bilbo setiatu du, eta berriz ere ezin beretu. Hiri handiek, ongi gotorturik baitzeuden, irmo egiten diete buru. Iruña ere setiatu zuten 1875. urtearen hasieran, eta orain ere Iruña gai izan zen eusteko harik eta Erregek tropak bidali zizkion arte. Errege hori Alfonso XII.a zen, Borbon leinuaren berrezartzailea. Karlos VII.aren aldeko asko, Errepublikari kontra egiteko erantsi baitzitzaizkion, Errege Alfonsoren lerroetara pasatu ziren, erregeahia beraren baimenarekin.

Erregimen konstituzional berriak, egonkortasun politiko eta militarra erdiestean, bere alde ekarri zuen gerrako balantza, eta karlistak atzera hasi beharrean gertatu ziren. Karlos VII.ak 1876an utzi zuen Espainia eta harekin batera bere aldekoek agintea eskuratzeko zan zuten benetako azken aukera.

16.3. Gobernu zentralaren presioa. Sistema sendotzen da

Oraingoan ere, inoiz baino gehiago, foruen berrezartzea izan zen karlisten ikur-hitza, eta 1839an gertatu zen bezala, Espainiako Gobernuak bere baldintzak inposatu zituen garaile atera zenean. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak, 1839ko xedepenengatik ere, beren sistemari eutsi

zioten; orain, berriz, prerrogatiba gehientsuenak galdu zituzten, nahiz eta zenbait pribilegio fiskal atxiki, Nafarroak zituenen parekoak.

Baina 1841eko Lege Hitzartua bere hartan utzi zen eta Diputazioak eutsi egin zien bere eskumenei. Alde horretatik, bigarren karlistaldiak lehenbizikoak baino arinagoko ondorioak izan zituen erregimen foralarentzat, nahiz eta, Nafarroak oraingoan, sobra ere orduan baino indar gehiago egin zuen erregenahiaren alde.

Baina Espainiako Gobernuak, bide denez, Nafarroan ere saiatu zen bere gailentasuna aprobetxatzen Diputazioaren eskumenak ahal zuen guztian murrizteko. Lege Hitzartua errebisatu ere egin nahi izan zuen, baina azkenean Nafarroako zergen eta diru ekarpenen gaineko xedapen bat besterik ez zen eman. Gobernuak zenbait zerga berri ezarri eta berak zuzenean bildu nahi zituen, eta Nafarroaren kupoa handitu ere bai. Azkenean, Gobernuaren mandatariak, Tejada-Valdosera-ko kondeak, proposatu zuen hitzarmenak tasa berriak kobratzeko ardura Diputazioari ematen zion, baina bai galanki handitzen ere kupoa, Nafarroako aberastasunaren arabera (1877). Gobernuak, hortaz, askoz gehiago kobratzen zuen, nahi bezala, eta Diputazioak horri esker itxura egin zezakeen aldaketa hura negoziatua eta ez inposatua zela.

Horrela, eta galdutakoak galdu, sendotu egiten zen 1841eko Legetik sortutako sistema, Diputazioa bertan jasotako interes eta eskubideen berme nagusi zelarik, eta Gobernuak ezin argiago onartzen zuen izaera hori. Aurreko mendeetan ere gertatu zen bezala, Nafarroako instituzioak, gauza harrigarria, noiz eta botere zentralak presio gehien egiten zien momentuan sendotu ziren, nahiz eta sendotze horren truke handiagoko edo txikiagoko galerak onartu behar ziren.

16.4. Errestaurazioaren garaiko Espainia

Errestaurazioaren garaiko Espainiak -Alfonso XII eta Alfonso XIII.en erregealdiak eta 1931n II Errepublikaren etorri arteko denbora alegia- alternantzia eta ustelkeria izan zituen ezaugarri: orduko bi alderdi handiek, kontserbadoreak eta liberalak txandaka aritu ziren agintean,

eta hartarako hauteskundeak manipulatu egiten zituzten batari eta besteari garaipena emateko.

Nafarroan, halare, karlistak ziren oraindik ere gehiago, nahiz eta hainbat korronte zituzten, askotan elkarrekin etsaituak. Kontserbadoreen artean aristokraziako eta burgesia handiko kide batzuk kontatzen ziren; liberalek askoz ere eragin txikiagoa zuten. Are gutxiago ziren integristak (karlismoaren banakuntza erradikala) eta errepublikanoak.

Errege Alfonsok Borbondarren leinua berrezartzean, eta horrek forudun probintzietan izan zuen oihartzunarekin, beste mugimendu politiko bat hasten da garatzen: «fuerismoa», denboraren joanean euskal nazionalismoa sortuko zuena. Hasieran, Nafarroaren kasuan, Juan Iturralde y Suit eta Arturo Campi3n bezalako intelektualak izan ziren fueristak, eta euskara eta euskal kultura bultzatu eta gordetzea nahi zuten, eta, horrekin batera, erregimen forala defendatu eta berrezarri, eta Bidasoaren alde bietako euskaldunekin senidetzea ere bai (*Zazpiak bat*). 1878an *Asociaci3n Euskara* delakoa fundatu zuten, eta alderdi politikorik osatu ez bazuten ere, beren ideien ingurura etorrarazi nahi izan zituzten talde politikoak. Ideia horiek, hala ere, hurbilago zeuden karlismotik alderdi liberaletatik baino. Hortik ulertzen da nola fuerista bat edo beste azaldu ziren karlisten hauteskunde zerrendetan eta integristenetan eta bai diputatu atera ere; Campi3n bera, 1893an. Hurbileneko hedabide idatzia *El Aralar* izan zuten.

Izan ere, sektore hauek guztiak ideologia hurbileko kazetaren bat izaten zuten. Orain hasten da Nafarroan egunkari prentsa garatzen, nahiz eta egunkari gehienek bizitza labor xamarra izaten zuten. Kazeta horietatik *El Pensamiento Navarro* da ezagunena (1897), karlisten egunkaria, oraintsu arte iraun duena (1981). Aipa ditzagun, halaber, *La Tradici3n Navarra*, integristen egunkaria; *El Liberal Navarro*, *El Eco De Navarra* -alternantziako alderdien hurbilekoak- eta, errepublikanoen egunkaria, *La Democracia*.

Baina diferentzia eta interes guztiak gora behera, alderdiak eta prentsa bat zetozen -oro har- foru sistema defendatu beharrekoa zela (nahiz batzuek eskumen gehiago eskatu eta beste batzuk zegoenarekin kontentatu), Espainiako Gobernuak 1841etik zetorren egoera aldatu

nahi zuen bakoitzean. 1893an izan zen talkarik handiena, Germán Gamazo, Ogasun Ministroak, Nafarroako autonomia fiskala suntsitu nairik Espainiako erregimen komuna ezarri nahi izan zuenean. Diputazioa, gortekideak, prentsa, udalak, denak mobilizatu ziren gobernuaren kontra. Herritarren artean sinadurak bildu ziren protestatzeko eta hainbat agerraldi egin ziren, bat behintzat oso handia (1893ko uztailaren 4an).

Gobernua beldur zen karlistak berriz jazarriko ote ziren, hamazapi urte besterik ez baitziren joan gerra bukatu zenetik. Diputazioak muzin egin zion araudi berriari eta azkenean ministroa kendu zuten kargutik. Gatazka, jakina, ez zen hor bukatu, baina gatazka honexek, «gamazada» esaten zaionak, ondorio handienak izan zituen. Gamazadaren oroitzapenetan eraiki zen Iruñean *Foruen Monumentua*.

Foru sistema Espainiako Gobernuaren aurrean defendatzeko guztiek zuten interes horri esker eratu ahal izan zen Nafarroako Administrazio Kontseilua; 1898tik bere kargu izanen du Diputazioari aholku eman eta aurrekontuei, kontuei eta beste jakingarri larriei buruzko txostenak egitea. Zergadun handienek osatzen zuten kontseilua eta 1901etik aurrera baita diputatu foral ohiek ere bai. Benetako eskumenik ez zuen, Diputazioak ez baitzuen Kontseiluak ematen zuen iritzia zertan segitu, baina sistemaren berezitasuna azpimarratzeko balio zuen.

17 GIZARTEA ESNABIDEAN

Nafarroako gizartea aurreko mendeetan gizarte tradizionala izan zen, Espainia guztian bezalaxe, bestalde. Baina lehenagoko denboretatik heldu diren ohitura eta ideien defentsa horrek XIX. mendea ere markatuko du Nafarroan, beste eskualdeetan baino askoz ere sakonago. Ez da harritzeko, beraz, karlisten jarrerak hemen hain erro sakona egitea, haiek baitziren ideia horien aldeko sutsuenak eta hemen erlijio sukarra gainerako Espainian baino handiagoa izatea. Ez horregatik pentsa Nafarroako gizartea erabat mugiezina zenik, baina bilakaera erritmoa bestetan baino mantsoagoa zen.

17.1. Gutxi izan eta kanpora

Izan ere, jende mugimendua hasten den arte Nafarroan jende hazkundera bereziki baratza da. 1826tik 1900era bitarte Nafarroa 207.000 jendetik 307.000ra pasatu zen, hiru mende laurdenetan ehuneko hamar eskas, beraz. Gainera, hazkunde hori ere mendearen lehenbiziko erdian gertatu zen: 1860tik (300.000 jende) bere hartantsu egon zen jendea. Dударik gabe gerrengatik izan zen: gerrok ez ziren oso heriotsuak izaten, baina gizon asko denbora askoan kanpoan edukitzen baitzituzten, jaiotza tasak behera egiten zuen. Emigrazioak ere, bestalde, Nafarroako

toki askotan nahitaezkoa, baliabide eskasiagatik, pisu handia izane zuen mendearen bigarren erdian populazioa bere hartantxe egoteko.

Gainera, bizilagun gehienak nekazari eremuetan zeuden. Iruñak 15.000 bizilagun besterik ez zuen mendea hastean, eta bukatzean ez zen 30.000tara ailegutzen. Hala ere batz bestekoa baino askoz handiagoko hazkundera izan zuen; hortik segitzen da hemen ere Europa guztian bezala, hasia zela jendea hirietan biltzeko prozesua, nahiz baratxago hemen. Tuteran, proportzioz, gutxixeago hazi zen (6.000tik 10.000ra). Lizarra edo Tafalla bezalako hiribilduak, berriz, 7.000 jenderen inguruan egon ziren.

Jaiotzak, gutxi ala asko izan, **emigrazioarekin** ordaintzen ziren, gehienbat Ameriketara. Gehienak gizon gazteak ziren eta horrek, jaiotza tasari eta zahartzeari ere eragiten zion.

Batez ere mendialdean, han nekazaritzak eta abeltzaintzak ez baitzuten askotarako ematen eta burdin olak gainbehera hasiak baitziren, gazte askok utzi behar izaten zuten jaioterria. Maiorazkoa zela medio etxea eta lurrak seme primuarentzat izateak ere bultzatzen zion emigrazioari. Ez dezagun ahaztu, bestalde, karlista batzuek (nahiz ez askok) nahiago izan zutela deserrira joan karlista gerrak bukatu zirenean.

Egoera horren aurrean Ameriak –nahiz eta batzuk Espainiako beste lurretara ere joan ziren– itxuraz askoz handiagoko aukerak, lur eta baliabide gaitzak eta gutxi erabiliak eskaintzen zituen. Ontzietan belak kendu eta motorak jarri zirenean, izugarri merketu zen itsasozko bidaiak eta horri esker asko erraztu zen jendea batetik bestera mugitzea. Nafar asko etorkizuneko berri zehatzegirik jakin gabe joan ziren hemendik, baina beste askok han lehendik joandako eta dirua egindako ezagun edo ahaideren bat zutela emigratu zuten, lana aurretik izanda.

Batzuetan emigrantea, nola edo hala dirutu eta itzuli egiten zen; *indianoak* esaten zitzaaien (Indietan egondakoak zirelako, Amerikari lehenago deitzen zitzaion moduan). Itzuli eta etxetzarrak eraikitzen zituzten beren jaioterrietan, etxeari, maiz asko, egondako lurra gogorarazteko moduko estiloa emanaz. Oraindik ere ikusgai daude etxe horietako batzuk, batzuetan benetako jauregiak, bereziki mendialdeko herrietan.

Ameriketako emigrantearen helburu arruntena Río de la Plata ingurua izaten zen (Argentina eta Uruguai), eta, gutxiagotan, Mexiko, Venezuela eta Kuba ere bai, kasurik normalenak aipatzeko. Beste batzuk, ordea, Estatu Batuetara joan ziren (Kalifornian urre bila, Nevada-ra artzain). Ez dugu datu osorik baina zenbait mila jende (eta XX. mendeko lehenbiziko hamarkadak ere kontatuz gero askoz ere gehiago) deliberatu ziren Atlantikoa pasa eta han bizitza berri bat bilatzera.

Denak ez ziren dirutu, jakina, ez eta gehienak ere, eta bat baino gehiago joan bezain pobre itzuli zen, baina Amerikatik itzultzen zena-
ren irudia gehienetan dirua egindako indianoarena zen, edo bere etxe-
koei lana eman zien ugazabarena; irudi hori bera ematen zuten
ahaleginean «*engantxadoreek*», emigranteak eramaten aritzen ziren on-
tzi-enpresen agenteek. Herriz herri joaten ziren jendea itsasoratzera ha-
rrotuz, eta, jakina, aukeraz betetako etorkizuna pintatzen zieten.

Nafarroan geratu zirenek eutsi egin zioten ordu arteko famili egi-
tura tradizionalai. Mendialdean, maiorazkoaren instituzio zurruna in-
posatzen zitzairen etxeko guztiei: seme primuak (edo alaba primuak
semerik ez bazen) herentzia eskuratu eta bere meneko zituen etxeko
guztiak. Abeltzain ekonomia ahul batean ezinbestekoa zen jabetzaren
batasunari eustea, familiak erreka joko ez bazuen, baina denboraren joa-
narekin, hasierako komenentzia hura instituzio bihurtua zen; liberalek
neurriak hartu zituzten lurak libre saldu edo partitu ahal izateko, bai-
na ohiturak hain erro sakonak egin zituen non, egitez, toki askotan gaur
arte iraun duen.

Horregatik oso maiz aurkitzen ziren familietan primuaren anaia eta
osabak jabearen agintepean lanean, edo, emakumeak baziren, etxekoan-
drearen agintepean. Hautabide bakarra zen etxea utzi eta soldadu, ma-
rinel, apaiz edo emigrante joatea.

Hegoaldean, lurra aberatsagoa baitzen, maizago partitzen zen he-
rentzia anai-arreben artean. Errazago zatitzen ziren etxaldeak eta fami-
liaren osakideak gutxitu egiten ziren partiketa horien arabera. Lurralde
hauetan emigrazioa faboratu zuten gizarte probemak beste batzuk izan
ziren: desamortizazioaren ondorioak edo, mendea bukatzeaz zela, filo-
xera izurritea.

17.2. Desamortizazioa eta gizarte ondorioak

Desamortizazio prozesua, ondoren aipatuko duguna, ordu arte apaizenak edo udalarenak izandako lurren jabe-aldatze hutsa baino askoz gehiagoko zerbait izan zen; oso ondorio sozial larriak izan zituen populazio osoaren gainean eta bereziki nekazarien artean.

Erdi Arotik, kleroak, instituzio publikoek (estadua, udala, kontzejuak) eta maiorazkoek (handikiak maiz) ezin zituzten saldu zenbait ondasun (beren etxe eta lur gehienak), ondareak osorik iraun behar zuelako. Ondasun horiei *esku hilak* zeritzen, haien jabezata ezin «ukituzkoa» zelako. Aurrena ilustratuek eta gero liberalek uste zuten xedapen horiek kenduta lurren salmenta libreak eta alokairu kontratuen berri-tzeak bide emanen zuela nekazaritza hobetzeko, askoz ere zauliigo ku-deatuz, eta nekazaritza teknika askoz emankorragoak sartzeko.

Liberalek 1833an agintea beretu zutenean (Nafarroan gerra bukatzearan karlistak nagusi izandako tokietan), hainbat neurri hartu zituzten *esku hilak* suntsitzeko. Prozesu horri deritza *desamortizazio*.

Maiorazkoak legez kentzeak ez zuen liskar berezirik sortu (salbu eta familien barrenean), ondasunak lehengo jabeen esku segitu zutelako eta horiek handik hara libre izan baitzuten ondasunak nahi zutenean saltzea. beste kontu bat da tradizioak eta ohiturak luze egin ziotela kontra berrikuntza horiei eta maiorazko askok lehengoan iraun zutela.

Askoz erradikalagoa izan zen Elizaren eta udalen ondasunetan esku hartzea.

Lehenbiziko kasuan, gobernu liberalek komentu eta monasterio asko ezeztatzea erabaki zuten, 1835etik aurrera, eta Nafarroan 1838tik bereziki. Leire, Iratxe edo la Oliva bezalako monasterioek galdu zituzten beren fraile baldernak, eta bai Nafarroako gizonezko komentu gehienek ere. Katedralak, parrokiek eta Orregako kolegiatak iraun zuten, baina ondasun gehientsuenak galduta. Gobernu liberalak hori baitzuen helburu: ez eliz instituzio guztiak ezeztatzea, baizik eta haien ondareak salgai jarri eta horren onurak beretzea. Horren truke, *Culto y Clero* deitu kontribuzioa ezarri zen: estaduak lagun egiten zion horrela elizaren ekonomia-ri. Bere horretan egon da XX. mendearen bukaerara arte.

Nafarroako eliza katolikoa ez zen bereziki lurjabe aberatsa, bestetakoarekin konparatuta. Alor lurren %3 inguru zuen bere. Katedralaren ondarea zen handiena, ondoren San Juan de Jerusalem ordenarena eta Orreagako kolegiatarena. Nafarroako erdialde eta hegoaldean izaten ziren lurrok, batzuetan monasteriotik franko urruti ere.

Baina ilustratuek eta liberalek zuten asmoaz bestera, ondasun horiek saltzeak ez ziren nekazariei berehalako hobekuntzarik ekarri. Lur erostun gehienek ordu arte beren lurretan aritzen ziren nekazariei errenta igo besterik ez zuten egin, nekazariak ez baitzuten modurik izan lurra enkantatu zenean erosteko. Lurjabe berri horietako askok beren dirua inbestitu beste interesik ez zuten, lur ondare handia beretzeko.

Hala bada, errentapekoen egoera kaskartu egin zen, lehen erabat geldirik eduki baitzuten errenta, batzuetan mendez eta mendez; teknika berriak, bestalde, ez ziren iritsi, lurjabeak oso gutxitan aritu zirelako laborantzan eta maizterrek ez baitzuten dirurik makina berriak erosteko. Lur jabetzaren titulartasuna besterik ez zen aldatu, eta nekazariaren gastuak handitu.

Hala ere, ondorio sozialak ez ziren bereziki larriak izan salgai jarritako apaiz-lurrak oso gutxi baitziren lur kopuru osoan. Nafarroan lurjabe txikiak eta handikien latifundioak ziren gailen, eta horiek ez ziren jarri desamortizaziopean.

1855ean beste desamortizazio prozesu bat jarri zen abian, oraingoan bereziki estaduaren eta udalen ondasun publikoen gainean. Haietako asko lehendik ere salduak zituzten beren ondasun asko gerren gastuak berdintzeko, baina orain ondare gehien-gehiena atera zen saltzera. Salmentaren dirua estaduak eskuratuko zuen, horrela bere zorrak kitatu eta burdinbidea jartzeko asmoz. Trukean bildutako gehiena emanen zitzaien udalei baina Zor Publikoaren titulutan (maileguaren antzeko zerbitu, herritarrek eta organismo publiko zein pribatuek estaduari egiten diotena eta urte kopuru jakin baten buruan interesekin itzultzen dena).

Nafarroan, desamortizazio zibilak askotariko ondorioak izan zituen. Alde batetik Diputazioaren eskumenen kontra joan zitekeen, Lege Hitzartuak eskumena ematen baitzion udalen eta haien ondasunen gai-

nean. Azkenean estaduak amore eman eta Diputazioak berak hots eman zion prozesuari. Horrela, bada, herri lur asko –gehienbat iparraldean– ez ziren saldu ere egin, eta beste batzuetan udalek berek proposatu zuten besterik ez zen atera saltzera.

Erdialdean izan ziren lur salmenta gehienak, maiz bertako lurjabeek, aberatsenek, hartara bultzatuta, udalekin hartzekoak baitzituzten edo haien gaineko agintea. Larre-sail handiak jarri ziren salgai (*corralizas* direlakoak). Erostunei *corralicero* esan zitzaien. Kasu horietan ondorioak batzuetan oso larriak izan ziren, herritar gehienak azienda larratzeko tokirik gabe geratu baitziren, herri lurretan larratzen baitziren gehienbat. Toki batzuetan larreok erabiltzeko eskubidea besterik ez zen saldu, baina *corraliceroek* askotan jabetza osoa beretu zuten azkenean eta handik zenbait urtetara herriek lurrok atzera eskuratzeko eskatu zutenean, alor lurrak egiteko asmoz, lurjabeek ez zuten nahi izan. Korralizekin izandako liskarrak oso inportanteak izanen dira XIX. mende bukaeratik hasita eta XX. mendearen hasieran Erriberri, Tafalla edo Miranda de Arga bezalako herrietan.

17.3. Eliza eta erlijio bizitza. Irudi zahar eta berriak

Desamortizazioarekin, Elizak bere ondasun gehienak galdu zituen eta gizonezko erlijio ordena gehienak ezeztatu ziren. Horrek, ordea ez du esan nahi gizartearen bizitzan zuten pisua neurri berean gutxitu zenik. Erretorek eta apezpikuek artean ere ikaragarritzko eragina zuten predikuen bidez eta herrien eguneroko bizitzan parte hartuz. Nafarroa funtsean nekazari herria baitzen; apaizak oso gertu egoten zitzaizkion jendeari eta hortaz aukera handia zuten haren ohitura eta portaeretan pisua izateko. Prozesioetan beti aurreneko lerroetan joaten ziren herriko agintariak eta herritarrik aberatsenak, eta nezakaritzako lanek artean ere erlijio bestak edo elizkizunak zituzten gobernabide (mezak, goizeko otoitzak, arimezkila, ilunezkila eta abar.).

Gainera liberalek ez zuten erlijio bizitza suntsitzeko asmorik izan, ezinezkoa baitzen hori kristau erro sakoneko herri batean, baizik eta hura bizitza publikoaren alorretan zertxobait mugatzeko, politikan, adi-

bidez. Horregatik suntsitu zuten inkisizioa edo gizonezko erlijio ordenen kopurua gutxitu, horiek baitzuten eraginik handiena gizartean; parrokiak edo emakumezko ordenak, ordea, beren hartan utzi zituzten, eta bai klero sekularraren mantenua bere bizkar hartu ere (apaizak alegia).

Nafarroan apaiz asko iparraldekoak izaten ziren, han, esan bezala, herentzia egiteko moduak -maiorazkoak alegia- faboratu egiten baitzuen seme gazteak elizgizon joatea. Herri horietan, gainera, izaten zen gartsuena elijioaren praktika. Elizak Erregimen Zaharra defendatzen baitzuen, eta desamortizazioak haren ondareari eraso egiten baitzion, klero hori gehiena karlisten alde atera zen mende guztian. Vatikanokiko harremanak normaldu arte (1851etik aurrera, eta batez ere Alfonso XII.a monarkia berrezarri arte ez zen Eliza erregimen berria onartzen hasi, nahiz eta Nafarroan apaiz askok kasuan kasuko erregenahi karlistari leial segitu zuten.

1870etik aurrera, gero eta maizago itzultzen hasi ziren berrogeita hamar urte lehenago ezeztatu ziren erlijio ordenak, bai behar ere, Nafarroan Espainian inon baino handiagoko bokazio indizea eta erlijio praktika baitzegoen. Ikastetxe asko ireki zituzten eta hortaz asko berretu zen haien eragina gizartean.

Elizak gai sozialetan jartzen zuen kezkak interes berezia izanen du Nafarroan nekazari kooperatiben gertaerarekin, zenbait erretorek bultzatu baitzituzten, ikusiko dugunez.

17.4. Gizarte egituraren gabeziak

Esan bezala, Nafarroan nekazari jendea zen gailen. Nekazari horiek, lurjabe xumeek, maizterrek eta jornaleroek, bizimodu tradizionalari eusten zioten, izadiaren zikloen arabera eta erlijiozko egutegiaren arabera. Nekazari jende kontserbadore hori, beraz, ez zen hain aldaketazalea, eta apenas faboratuko zuen gizartea modernizatzea, nahiz eta liberalen erreformak petxeroak desagertarazi zituen. Petxeroek lehenago bai errentaz eta bai eginbeharrez nagusiaren jopu ziren hein handi batean. Hemendik aurrera maizter hutsak ziren edo, oso gutxitan baina,

mendez eta mendez erabili zituzten lurren jabeak, desamortizazioari esker. Baina berrikuntza horiek ez zuten ekarri, oraingoz behintzat, aldaketa sozial eta ekonomiko horienganako jarrera aldatzerik.

Jarrera aldaketa hori gainerako Europan burgesia eta proletarioak egiten ari ziren, industria iraultzaren egile baitziren. Baina Nafarroan iraultza hori artean ere gertatzeko zegoen. Hemengo burgesia, izan ere, komertzianta eta industrial talde txikia zen eta haien eragina ez zen luzatzen beren hirietatik askoz harantzago, nahiz eta hor udal kargu gehienak beren esku zeuzkaten eta batzuetan fortuna larrien jabe ziren.

Industria indartsurik ezean, langileak ere gutxiengoa ziren, kezka sozial handirik gabekoak. Hala guztiz, 1872tik aurrera Iruñean baten I. Internazionalaren azpiko federazio bat. 1901ean Unión General de Trabajadores delakoaren atal bat fundatzen da, eta baita *La Conciliación* ere, langile eta ugazaben sindikato katolikoa. Baina horiek denak oso gutxi ziren oraindik, mende bukaerako nafar gizartea zen nekazari itsasoan.

17.5. Eguneroko bizitza

1900 inguruan Iruñean lehen zabalguneko sei etxemultzo eraikitzen ari ziren, diseinik aurreratuena erabiliz. Horiexek dira, agian, mende bukaerako Iruña horren sinbolorik hoberena. Mugimendu pixka bat nabari zen gizarte hartan, eta bazirudien poliki poliki bere garaiko korronte sozial eta ekonomikoei irekitzen zela. Atzean, ehun urtetako konbulsio denetarikoak, baina ez zuten lortu, hala ere, orotan gailentzen zen kutsu tradiziozalea itzalzerik.

Erlijioa zen inondik ere tradiziozaletasun horrek eguneroko bizitzan zuen agerkaririk klaroena. Eta ez zen bakarrik erlijio praktikarako ohitura handia zegoela, hori Europako beste toki askotan ere bai-baitzen, baizik eta hemen bereziki suharki bizitzen zela praktika hori eta elizkizunek eta eliz bestek gizarte bizitza hezurramitzen zutela, bai nekazarien artean nola hirietan.

Nekazarien lan gogorrak, oraindik gutxi mekanizatuak, nekeztu egiten zuen lanaz beraz aparteko beste jardunik egitea. Elikadura urriak

ere, alorrek eta aziendak ematen zituzten produktuak oinarri, bariazio gutxiko dieta osatzen zuen. Gizonen jazkerak galtza, jipoia eta brusa zituen osagai, espartinak eta txapela: lanerako gauza ziren jazkiak. Emakumeek kolore iluneko gonak edo soineko luzeak eta buruan paineluak, ez atentzioa emateko. Igande-jaietako aisian, beti gutxi, gizonak pilotan aritzen ziren, edo pasean.

Hirietako bizitzak hori baino gehixeagoko pizgarriak zituen: jazkiak, ekonomiak hartarako bide ematen zuenean (kapak, pajaritik, korbatak, idunekoak, mende bukaeran gizonetzkoentzat; kapeluak, miriñakeak, brusak emakumeentzat). Frontoietako pilotaz gain (Mañuetako frontoia Iruñean, adibidez) kafetxeak erantsi ziren geroago. Iruña kafetxea 1888an sortu zen. Berriketa leku eta eztabaidaleku izaten ziren, gehienbat gizontentzat. Emakumeek eginahal handiak egiten zituzten azala zuria izateko, beltzaran egoteak garai hartan nekazari izatea salatzen baitzuen; emakume nekazariak berek ahal zuten gehiena estaltzen ziren eguzkirik ez hartzeko.

Bizikletak agertu zirenean (edo, orduko izenez esateko, *belozipe-doak*), 1878az geroztik, eta autoak 1894az geroztik, eta, jakina argindarra (1887an Iruñean, 1894ean Tuteran) eta kainuko ura etxeetan, hiritarren bizitza erraztu eta erosotu zen. Aurrerapen horiek, izan ere, berandutuko zuten herrietara iristen, batez ere argindarra eta kainuko ura. Baina data horiek ikusita erraz da igartzen hirietan ere ez direla erabat hedatuko XX. mendea sartu-sartua egon arte, beste hainbat gauza bezala.

18 EKONOMIA BARATURIK

18.1. Nekazari ekonomia

Bide denez, nafar gehienak nekazariak zirelarik Nafarroako ekonomiak nekazaritza zuen ardatz. Eta nekazari ekonomia horrek ere egitura zaharkituak zituen, ez zen oso berrikuntzazalea. Desamortizazioak, esan bezala, ez zuen faboratu, oraingoz behintzat, hazkuntza teknika berriak sartzea; oraindik ere erromatar goldea zen gailen eta gehienez ere golde belarriduna.

Urte biz behingo hazkuntzak laboreak izaten ziren, eta hegoaldean mahastia zen inportanteena; oliboa, Mediterranioko landare-hirukoaren hirugarrena, askoz ere garrantzi gutxiagokoa zen. Kantauri aldeko lurretan artoa sakon sartua zegoen ordurako, nahiz eta gehienbat azien-daren bazkatak erabiltzen zen, eta patata ere mende hasieratik mendietako ibar batzuetan nagusitzen hasia zen, hor laborea oso eskas etortzen baitzen; patata ere, ordea, gehienbat azienda bazka izaten zen edo pobreenen janari.

Seigarren hamarkadara arte ez zen asko hobetu zenbait sektoreren egoera. Zehatzago aipatzeko, urte horietan Frantzian hedatu zen filoxera izurriteak esportazioen gorakada ekarri zuen hemen eta mahasti lurrak berretu ziren. Laboreak, aldiz, labore inportatuak zituzten lehiakide, bertakoak baino askoz merkeagoak.

Abeltzaintza, mendearen lehenbiziko erdian gora egin ondoren, gainbehera hasi zen azken hogeita hamar urteetan, batez ere erdialdean eta Erriberan. Ardi aziendak, ordu arte gailen baitzen, behi aziendari utzi zion lekua eskualde horietan, nahiz inoiz ez zuen haren garrantzia iritsi. Beharbada herri-korraliza asko desagertzeak erraztu egin zuen lurjabe xumeek azienda kentzea, ezin baitzuten gehiago korralizetan larratu. Behiak, berriz, ikuilutan edukitzeko egokiak ziren eta bertan bazka-landareekin elikatzeke, halakoak laborearekin txandaka hazita. Iparraldean, han herri lurrak ez baitziren enkantatu –edo nolnahi ere gutxiago– abeltzaintzaren egoera ez zen hainbeste aldatu.

18.2. XIX. mendearen bukaera. Krisia eta berrikuntza

XIX. mendearen azken hamarkadetan Espainia guztian hasten da laborea bultzatzeko politika bat, inportazioak gutxitzeko. Horrenbestez, Nafarroak ere parte hartu zuen ekimen horretan. Luberriak egin ziren, gehienak garai bateko larre komunaletan. Haietako asko desamortizazioaren ondoren pribatizatuak izan ziren, erdialdeko eta Erriberako korralizak bezala, eta beste batzuk, berriz, udal eta kontzejuek herritarren artean zozketatutako lur sailak ziren urte-errenta baten aldera. Pirinio aurreko arroetan, han lehengo herri lurrek bere-bere hartan iraun baitzuten, lur partitze hori 80 eta 90. urteetan egin zen, nahiz eta lana mekanizatzea artean ere zaila zen, gehienetan partzelak txikiak izaten zirelako. Hegoalderago beste traba bat zegoen luberriak egiteko: korralizen jabetzarena.

Korralizak luberri bihurtzeak, izan ere, liskar handiak sortu zituen zenbait herritan. Udalek eta herritar askok (maiz «sociedad obrera comunera» direlakoetan bilduta) korralizak itzultzeko eskatu zieten eros-tunei, haien ustez ez baitzen jabetza osoa saldu, azienda larratzeko eskubide soila baizik; beraz uste zuten ez zela zilegi laborantzarako erabiltzea, edo luberriak egin eta denen artean partitzeko itzuli behar ziztuztela. Korralizadunak, berriz, korralizak nahi zutenerako erabiltzeko eskubidea nahi zuten eta finka horiek batzuetan oso handiak baitziren, uste zuten askoz ere probetxu gehiago aterako zitetela laborantzan jarrita larretarako erabilia baino. Herriek laborantza lur gehiago behar zi-

tuzten pobretasuna eta emigrazioa gutxituko bazuten, eta korralizadunek ahal zuten probetxu guztia atera nahi zieten lur zabal haiei.

Indarkeria ere azaldu zen liskar horietan (Erriberrin, Tafallan) eta XX. mendera arte ez ziren baretu. Inoizka batzuen eta besteen arteko hitzarmenak egin ziren (Carcar); inoizka korralizak, edo haien zati bat herri lurretara bihurtu ziren (Tafalla); kasuren batean tribunalek korralizadunei eman zieten arrazoia (Beire, 1914rako); beste herri batzuetan, berriz, herritarrek elkarteak sortu eta finkak erosi zituzten.

Tuterako Erriberan, han desamortizazioaren hasieratik beretik erabateko eskubideekin saldu baitziren korralizak, ez zen halako gatazkaririk izan eta zenbait korralizadun inor baino lehen hasi ziren hazkuntza teknika berriak ezartzen errendimendua hobetzeko.

Baina gehientsuenetan XIX. mendeko azken urteetara arte, eta are gehiago XX.eko lehenbizikoetara arte ez ziren ongarri kimikoak, eultzi-makina mekanikoa, segamakinak eta antzeko lanabesak sartu. Hasiera hartan produzioak gora egin bazuen laborantza lurra asko ugaltu zirelako izan zen. Ondoren mekanizazioari esker ere gora egin zuen produzioak, orduan baizik ezin izan baitziren luberri bihurtu ordu arte landu gabe edo larre egondako lur asko.

Labore-lurra galanki hazten bazen, mahasti lurra, berriz, egundoko krisia izan zuen. Filoxera izurriteak, Frantziako mahastiak hondatuz hemengo inportazioak sustatu zituena bera, Nafarroan ere sartu zen (1890 inguruan). Frantziak, jakina, krisitik ozta-ozta aterea, debekatu zuen Espainiako ardoa erostea. Baina ez zen hori makurrena izan, filoxerak Nafarroako mahasti denak edo gehien-gehienak hondatuta zeuzkan mendea bukatu baino lehenago.

Egoera latz horrek gosea, pobrezia eta emigrazioa ekarri zituen Nafarroa hegoaldeko herri askotara, han, izan ere, inon baino handiagoa izan zen kaltea, mahatsa bizibide nagusi baitzuten, laborea baino askoz gehiago maiz.

Baina, kontrakarrez, izurrite horrek nekazaritza sektorearen modernizazio sakona ere ekarri zuen. Diputazioaren nekazaritza zerbitzuak, García de los Salmones injineroa zuzendari, 1896tik hainbat ikerketa egin zituen Ameriketatik ekarritako eta intsektuari gogor egiten zioten landareen gainean, mahasti-txertoekin, esperimentazio alo-

rrekin, zoru-analisiekin eta abarrekin. Horri esker, aski zauli berrindartu zen mahastia. 1890ean 50.000 Ha. mahasti zeuden Nafarroan, eta 1897an ia denak ezereztatuak baziren, 1906rako berriro 10.000 baino gehiago ziren.

Mendea bukatzearekin beste hazkuntza bat hasi zen zabatzen: azukre erremolatxa, Kubako gerrak ekarri zituen eskasiak berdintzekoa, Kubatik etortzen baitzen orduan Espainiara iristen zen kanabera azukre gehiena.

18.3. Barne aduanarik gabeko komertzioa

Esan bezala, XVIII. mendeko azken urteetan eta XIX.eko lehenbizikoetan Nafarroak Gaztela eta Aragoirekin zituen aduanak kendu beharrrak saltsa larriak sortu zituen. Monarkia ilustratuak kendu nahi zituen, ustez eta horrela egitura ekonomikoak modernizatuko zirela eta prezioak merketuko. Hegoaldeko lurjabe handiek uste zuten aduanak kenduta aukera gehiago izango zirela beren laboreak eta ardoa aldameneko erresumetan saltzeko. Iparraldeko laborari xumeek, berriz, abantailaz egiten baitzuten salerosketa Frantziarekin, Nafarroak oso arantzel txikiak zituelako Frantziarekin –Gaztelarekin edo Aragoirekin baino askoz txikiagoak– ez zuten kentzea nahiz, aduana kentzea edo, orduan esaten zen bezala, Piriniora aldatzeak ekarriko zuen konpetentzia ekarriko ote zien beldurrez.

Liberalen errefomak, ordea, eta 1841eko Lege Hitzartuak, suntsitu egin zuten Nafarroako aduana sistema. Handik aurrera erabat libre izan zen Gaztela et Aragoirekin komertzioan aritzea nahiz eta Arabak eta Gipuzkoak beren kontrolguneak mantendu zituzten 1876an haien foruak aldatu arte.

Hala ere, nahiz eta barne aduanak kentzeak beharbada faboratu zuen salgai trukea, sartu eta atera egiten ziren produktuen noranzkoa lehengo bera zen artean ere. Nafarroak orain ere gutxi esportatzen zuen, gehienbat laborea eta ardoa; hortaz, segur aski Erriberako nekazariiek egiaz lortu zuten beren irabaziak handitzea, aduanak Piriniora eramatea defendatzen zutelarik uste zutenean bezala. Nafarroak artilea ere es-

portatzen zuen Frantziara, baina oraindik ere ez dakigu aduana postuen aldatzeak salmentetan kalte egin ote zien, mendialdeko abeltzainek uste bezala.

Hemengo bizilagunen eroste ahalmen txikiak, bestalde, inportazioak ere mugatzen zituen, baina gehienak esku-langintzak ziren. Horatik igartzen zaio hemengo industri gaitasun eskasari. Oihala erosten zen kanpoan, eta altzairua, berina eta, jakina, kolonietako produktuak (azukrea, kakaoa) eta espezieak. Gure eskulanetan ezagunenak, berriz, eta hori ere esanguratsua da, espartinak eta ezpel kutxetak ziren.

Barneko salgai trukea ere ez zen askoz handiagoa. Eskualde bakoitzak bere burua hornitzeko joera zuen, eta ia ez zegoen esateko moduko komertziorik, feriak eta herrietako merkatuak besterik, non nekazaritzako soberakin urriak saltzen ziren. Hiri handietan dendak ere baziren. Gainera, Gaztela eta Aragoirekiko aduanak kendu baziren ere, bideetan barne kontrolerako postuak egoten ziren («kateak», bidea katea batez tratatuta egoten baitzen) salgai trafikoa begiratzeko eta udalen zergak kobratzeko.

Urteroko edo sei hileroko ganadu feria handiak ere egoten ziren, soro lanei hertsiki loturik (laborantzarako mandoak eta idiak) eta azienta lanei ere bai (hazitarako arrak, umetarako emeak, esnetarako behiak), Otsagin edo Auritzen, kasu. Iruñekoa zen handiena joan zen aspaldi handitik, San Fermin denboran, baina Lizarra, Altsasu edo Tafallakoak ere oso sonatuak ziren. Kasu horietan denetariko produktuak saltzen ziren; azienda, jakina, baina baita Espainiako hainbat tokitatik ekarritako salgaiak ere, hasi soro lanetarako makinetatik eta oihal edo patarretaraino, gainerako urtean lortzeko zailak. Herri gehienetan ez zegoen dendarik, batez ere Nafarroako iparraldean, non herriak txikiagoak izaten ziren; hangoek, bada, bilkura horiek baliatzen zituzten behar zituztenez hornitzeko.

18.4. Industria eta banku sistemaren ahulezia

Esandakoak esanda ez dirudi gehiago azpimarratu behar denik industriaren produkzioa oso urria zela. industria iraultza mendea bukatu

arte ez zen iritsi Espainiara, eta orduan ere oso eskualde jakinetan baizik ez, eta Nafarroan urte horietara arte ez zen hasi jardun mota hori oso poliki esnatzen.

Gainera, ipar-mendebaleko olak, aurreko denboretan industrigune larrienak izaten zirenak, gainbeheran hasi ziren azkar asko, Bizkaiko burdinak, kalitatez hobeak, konpetentzia egiten zielako eta handik ekarri behar izaten zelako burdina hemengoarekin nahasteko. Mehatzeak pixkanaka itxiz joan ziren, produkzio urrikoak baitziren eta bertako minerala ere eskasa eta geroz eta alferrago baitzen burdina Bizkaitik honaino ekartzea, han lantzen hal zelarik.

Orbaizetako tirogai fabrika mendeko borroka guztietan partaide izana zen, oso garrantzi handia izan zezakeelako haren jabe izateak. Frantsesek ezeztatu zuten, karlistek 1828an berriro altxatu, lehenbiziko karlistaldian gelditu zen eta azkenean 1873an abandonaturik geratu, bigarren karlistaldia bete-betean ari zela. Ixteko arrazoietan, gerrako problemenez landara, komunikabide handietatik urruti egoteak ere pisua izan zuen, horrek produkzio eta garraio kostuak asko igotzen baitzitu.

Gainerako industri langintzak hauek besterik ez ziren: pare bat ehun-lantegi (hilaturak Agoitzen eta txapelak Lizarran), paper fabrika bat Atarrabian eta hiri handienetako esku langintzak. Enpresa haietako bakan batzuek baizik ez zuten hogeitangiletik goiti eta esku-lantegiak familia baten ardurakoak izaten ziren. Guztien artean ez zuten jendearen beharrak berdintzeko ere produzitzen.

Beste hainbat gauzatan bezala, XX. mendera arte, argindarra iristearekin, ez dira hasiko produkzio teknika berriak garatzen, nahiz eta mendea ixtearekin nekazaritza gaiak eraldatzeko bi enpresa inportante sortu ziren: Tuterako eta Marcillako azukre-fabrikak (1899 eta 1900), azukretarako erremolatxa zabaltzearekin batera.

Eta ez baitzegoen industri edo komertzio oinarri sendorik, apenas gara zitekeen behar bezalako banku sistemarik ere, egitura ekonomikoak modernizatzen lagun egiteko modukorik. Nafarroan ezarri ziren lehenbiziko bankuak, eta batez ere Nafarroan bertan fundatu zirenak,

Crédito Navarro delakoa kasu (zaharrena, 1864ean fundatua) edo la Agrícola delakoa, gehienbat nekazariei maileguak emateko sortu ziren, baina hasi berri hartan ez zuten lan handirik izaten, nekazarien munduan ere mugimendu gutxi izaten zelako artean. Iruñeko Udalak Iruñeko Aurrezki Kutxa sortu zuen 1872an, aurreztaile txiki eta erdikoentzat pentsatua, ustez eta aurreztaile horiek, atzean intituzio bat zutelarik, ausartuko zirela beren dirua banku horietan ezartzera. Handik gutxira agertu ziren lehenbiziko nekazari-kutxak, besteak beste herrian herriko beren sozioei mailegu txikiak egiteko sortuak. Agerkari hori XX. mendearen hasieran sendotuko da gehienbat.

18.5. Garraioen modernizazioa

Nafarroako garraio sareak, berriz, Espainiakoaz hagitzez ere gorago jartzea lortu zuen mende honetan. Nafarroako Diputazioak bere gain hartua zuen 1784an bideak zaintzea eta hobetzea, eta eskumen hori Diputazio Foralari pasatu zitzaion 1841ean. Hala bada, bertako agintariek askoz ere handiagoko kezka agertu zuten gai honetan Espainiako Gobernuak bestetan izaten zuena baino, eta eginahalean modernizatu zituzten Nafarroako komunikabideak. Diputazioak zergak ere bere esku zituenez, modua izan zuen dirutza handiagoak horretan erabiltzeko bestetan hartarako zirenak baino. Oso lan inportantea izan zen, du-darik gabe, aurrezko eta ezinbesteko pausoa baitzen beste zenbait jardun ere modernizatzen hasteko.

Nafarroako mugetara zihoazen «bide» handi tradizionalak Gipuzkoara eta Arabara zihoazen Irurtzun barrena, eta Erriberara –eta Castejón-dik Madrilera eta Tuterara/Zaragozara-. Lizarrako bidea Logroñoraino luzatu zen lehenbiziko karlistaldiaren ondoren, eta beste hainbeste Zangozara zihoan bidea. Beste bide handi bat ere ireki zen Frantziara Belaten barrena joateko, eta bi adar egin ziren: bata Berara eta bestea Dantxarinera. Bideok gehienok lehendik ere baziren, baina bidaro txarrekoak ziren, meharrak, xenda itxurakoak maiz asko; orain teknikak ematen zuen guztian hobetu ziren. Ageri denez, bideok gaur ere Nafarroak dituen larrienak dira, eta gutxi aldendu dira orduko trazaduratik.

Bideotan mendearen erdiaz geroz dilijentziak ibiltzen ziren, nafar jendea Zaragoza, Lizarra eta bai Baionaraino eramateko.

Baina XIX. mendeko berrikuntzarik handiena burdinbidea izan zen, nahiz eta horretan konpainia pribatuak izan ziren hura egin eta kudeatzeko ardura hartu zutenak. 1856an Altsasu-Zaragoza linea hasi zen, gaurko burdinbidearen oinarri berean. Beste zenbait proiektuk kale egin zuten: Frantziara bidea Kintoan eta Alduden barrena joateko trenak, kasu, ez baitzuten sustengu politiko edo ekonomikorik izan, dela zailtasun teknikoengatik dela inbasio bat errazteko beldurragatik. Harrigarria bada ere, trenak ustez erraztu behar bazuen ere garraioa, orain hemengo salgaiek inguru handia egin behar zuten Frantziara ateratzeko, Altsasun barrena, eta handik Madril-Irun bideari lotu eta Irunen barrena. Altsasua, bestalde, Zaragoza-Altsasu eta Madril-Donostia lerro telegrafikoen lotune ere zen, telegrafoak burdinbide sarea segitzen baitzuen, teknikoki hala komeni zelako: errazago zen kabletara iristen, geltokiak telegramak bidali eta hartzeko erabil zitezkeen eta gainera trenbidean gorabeherarik izaten bazen telegrafo bidez eman zitezkeen aditzera.

Mendeko azken urteetan errail-arte meharreko hainbat bide egin ziren, irispide gutxikoak baina zenbait eskualde garabidean jartzen lagun egin zutenak. *Tarazonica* delakoak Tutera eta Tarazona lotu zituen 1885ean eta handik hiru urtera Cortes, Borja eta Bidasoa lotzen zituen sortu zen, hasierako partea behintzat (Irun-Endarlatsa zatia, Bidasoa Nafarroatik ateratzen den lekua). XX. mendean Irati agertu zen (Agoitz-Iruña) eta Plazaola (Irun eta Iruña lotzeko).

Trenok XIX. mendearen bigarren erdiko joera aldagaitz baten sinbolo handia dira. XX. mendean izanen diren berrikuntza askoren oinarriak jartzen dira.

KULTURA. EUTSI ETA BERRITU

Hezkuntzaren munduak, eta literatura eta arte sorkuntzarenak, gatazka politiko eta sozialen eragina jaso zuen. Karlista eta liberalen arteko borroka ideologikoak eta foru erregimenak jasan zuen aldaketa aski izan ziren Nafarroako intelektualek gorabehera horiek beren lanetan islatzeko, eta beren gogoeten gai nagusi bihurtzeko.

19.1. Nafarren hezkuntza

XVIII. mendearen bukaeran zenbait erreforma egin baziren ere, eta Erresumako azken Gorteen (1828) Hezkuntza Batzorde Gorena eratu bazuten ere, zeina zenbait urtez arduratu zen herri-hezkuntzaren gaineko kontu guztiez, nafar gehienak mende guztian analfabetoak izaten ziren, lehen bezala. Orduko nekazari bizitzarako alferreko irizten zitzazion idazten eta irakurtzen jakiteari. Haurrek oso goiz uzten zuten eskola, batere joaten baziren behintzat, eta hori lehen hezkuntza dohai-nekoa zelarik.

Edozein kasutan ere, Batzorde hori sortzeak bultzatzen handia eman zion hezkuntzari. Bere gain hartu zuen ikasketa planak eta erregelamenduak eratzea, eskola publiko guztiek erabili beharrekoak. Eskola

horiek udalen mende egoten ziren eta udalarena zuten dirubidea, parrokiaren eta gurasoen emaitzez gainera.

Irakasleak prestatzeko Irakasle eskola normala fundatu zen (1840). Diputazioak bigarren hezkuntzako institutu bat ere fundatu zuen (1842), Erdi Aroan izaten ziren gramatika eskolen lekuan jartzeko. Bigarren hezkuntzako arlotik atera gabe (zeinean orduan irakasletza ere sartzen zen), Iruñeko Udalaren marrazki eskola ere sortu zen garaitsu berean).

1876ko Konstituzioak esku eman zien ordena elijiosoei ikastetxeak zabaltzeko, eta haietako batzuk bigarren hezkuntzan ere aritu ziren; haien artean kaputxinoak, Lekarozen sortu baitzuten ikastetxe bat, eta jesuitak, Xabierren zabaldu baitzuten berena. Mendea bukatzean, maila horretan eskolatuak ziren nafar gehienak, erlijiozko ikastetxeren batetik pasatakoak ziren.

Garai berean langileentzako igande ikastetxeak sortzen dira; besteak beste helduei oinarrizko alfabetatzea ematen aritzen ziren. Lehenbizikoa Iruñean sortuko du Eustaquio Olasok, 1881ean. Antzekoak izan ziren Tuteran, Peraltan edo Garesen, baina oihartzun txikia izan zuten. Premiak asko ziren, baliabideak, gutxi eta jendeak bere kultura maila igotzeko premia eskasa sentitzen zuen.

19.2. Euskara atzeraka

XIX. mendearen erdialdean ikertzaile frantses bat, Louis Lucien Bonaparte printzeak, Napoleon I.a enperadorearen ilobak, Pirinioa pasatu zuen bere osabak ez bezalako asmoarekin. Hizkuntzazale amorratua, inkesta zabal bat egin zuen orduko euskara zertan zen agertzeko, ze euskalki ziren, non hitzegiten zen, non hasia zen atzeraka, ze herri ziren elebidunak eta abar. Datu horiek biltzeko mapa bat argitaratu zuen 1863ko datarekin (baina geroagoko datuak ere baditu). Mapa hori du-darik gabe euskararen gainean egindako lehen ikerketa zientifikoa da, eta hango emaitza gaur ere hizkuntzalari gehienek oinarri hartzen dute, kritikaren bat egin izan bazaio ere.

Nafarroan toki batetik bestera izaten ziren hizkera diferentziak seinatu ez ezik (noiz Iparraldearekin batago noiz Gipuzkoarekin), berriz agertzeraz ematen du euskararen hegoaldeko muga atzeraka dabilela. XVIII. mendearen bukaeran Lizarra, Tafalla edo Zangoza inguruko herrietan erabiltzen bazen, orain, berriz, erabat itzalia zen Lizarrako merindadetik eta Iruñerrian eta Irunberriko arroan Arakildik eta Piriniotik hurbileneko herrietan baizik ez zen erabiltzen.

Erdarazko irakaskuntzak ez zuen eragin handirik izan prozesu horretan, haur gehienak ez baitziren eskolara hasi ere egiten. Baina euskara nekazari giro hutseko hizkuntza zen, eta analfabetismoa hiri giroan baino askoz handiagoa zelarik, inoiz ez zen euskara idatzian erabiltzen eta horrek kalte egiten zion.

Izan ere, euskaldunek euskarazko irakasbide bakarra hartzen zuten: elizarena, predikuen eta dotrinaren bidez emana. Baina irakasbide hori ere hitzekoa izaten zen, ez idatzizkoa, eta ez zion hortaz lagun egiten euskara lantzeari. Erdaldunek, bestalde, ukatu egiten zioten hizkuntza landuaren maila; herri euskaldunetako etorkinek euskara utzita erdara ikasten zuten, eta behin beren ama-hizkuntzaren jatorrizko eremutik kanpo, ez ziren ahalegintzen beren umeei irakasteko.

19.3. Kultura eta ideien mundua

Euskararen defentsa izanen da, izan ere, mende bukaerako eta hurrengoaren hasierako nafar intelektualen talde koskor baten kezka nagusia. Kultura berritzeko oinarritzat, harrigarria bada ere, aurreko hamarkadetan gehien ahuldu ziren balioak proposatzen zituzten: foruak eta hizkuntza, hemen-hemengotzat juzkatzen zuten guztia.

Baina lehendik ere izan ziren berrikuntza intelektual bat piztu nahi izan zuten beste nafar batzuk, bere herrikide askoren iritzien kontra ere. Mendeko bigarren hereneko liberalak ere, José Yanguas buru zutela, ez ziren mugatu beren lan politikoan Nafarroako instituzioak nola edo hala beren irizpideen arabera modernizatzen saiatzera; aitzitik, kultur lan sakona ere egin zuten. Yanguas bera Nafarroako historia eta legehistoriaren zale amorratua zen eta bere *Diccionario de Antigüedades* delakoa ezinbesteko lana da Nafarroako historiografian. Beste *Diccionario*

bat ere bada, Espainiako Hiztegi Historiko Geografikoa, Pascual Madoz iruinsemeak egina (desamortizazio zibilaren eragilea); interes lerro berrari eusten dio. Pertsonaia horiek eta beste batzuk ere, José Alonso edo Serafín Olave, kasu, erakundeak modernizatzean ikusten zuten Nafarroako etorkizuna, Frantses Iraultzatik herentzian hartutako Berdintasun eta Askatasun printzipioen gainean; ez zioten hala ere muzin egiten Nafarroaren iragana baloratzeari modernizatze lan horren osagaitzat. Haietako batzuek, Madoz edo Alonso, kasu, progresisten artekoak ziren, hau da, Nafarroaren pribilegioak mantentzearen kontra zeuden liberalak. Beste batzuek, berriz, Yanguasek, kasu, forua erreformatzea nahi zuten, baina ez kentzea.

Karlisten artean ere izan ziren intelektual gailen batzuk, baina literaturaren arloan gehiago mugitu ziren, Francisco Navarro Villoslada, kasu, Karlos VII. erregeahiaren idazkaria. Esan bezala, foruak berrezartzearen aldeko sutsuenak fueristak ziren. Fuerista horietako asko «Asociación Euskara» delakoan erkide izan ziren (1878), euskara eta euskal kultura bultzatzeko fundatua; halako Euskaltzaindi baten lana egin zuen, literatur eta folklore lehiaketak antolatuz («lore jokoak» direlakoak) eta Erresumaren historiarekin lotura zuen literatura bultzatuz. Jendearen interesa pizteko. Erkide nagusiak ziren Juan Iturralde y Suit (arkeologoa, historialaria eta literaturgilea) eta Arturo Campi3n (bera ere historialaria eta literaturgilea, baina politikoa ere bai). Arturo Campi3nen lana, denboraren joanean, euskal nazionalismoaren erreferentzia oinarrizkoa izango zen, nahiz eta bera inoiz ez zen independentista izan.

Nafarroako intelektualen zati handi batek egunkarietan agertzen zituen bere ideiak. Batzuk egunkari zuzendari ere izan ziren, hala nola Basilio Lacort errepublikanoa, 1883an *El Porvenir Navarro* fundatu baitzuen; haren izpiritu antiklerikalak problema bat baino gehiago ekarri zion Nafarroa katoliko hartan.

19.4. Musikoak eta literaturgileak

Arestian aipatu pertsonaia horietako batzuk Nafarroako idazle txukunenetakoak dira. Guztien gainetik, beharbada, Francisco Navarro Villoslada jarri behar genuke, hainbat eleberrri historikoren egilea -gertae-

retatik urrundu xamartuak– Walter Scott bezalako idazleen erromantizismoaren ildotik (*Ivanhoeren* sortzailea). Eleberriok Erdi Aroko historia hartzen dute ardatz eta garai hartako pertsonaiak jorratzen, Nafarroak artean bere-bere erregeak izaten zituen denborakoak (*Doña Blanca de Navarra, Doña Urraca de Castilla*). Obra guztietan ezagunena, dudarik gabe, Amaya, o los vascos en el siglo octavo da (1877); bertan, baskoien munduko leienda ezagunenetako batzuk biltzen dira eta eginahalean aditzera ematen da zenbateko garrantzia zuten eta zenbateko garrantzia izan zuen baskoiak zeharo kristautzeak (Amaiaren figuran hain zuzen) Nafarroa erresuma gisa agertarazteko.

Arturo Campionek ere ildo bereko eleberriak idatzi zituen (*Blancos y negros, La Bella Easo*); Iturralde y Suitek, berriz, Nafarroako tradizioak bildu zituen *Tradiciones y Leyendas* liburuan.

Halarik ere, ez dezagun ahaztu idazle horiek guztiek XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran oraindik gai erromantikoak jorratzen ari zirela, gainerako European gai horiek aspaldi gainbehera hasiak zirenean literaturan.

Mende honetako musikarietatik (konpositore eta musika jotzaileak) Europako agertokietan ezin pentsa ahalako kalitatea eta ospea iritsi zituzten. Bik bereziki: Pablo Sarasatek Iruñeko konpositore eta biolin joleak (1844-1912), *Navarra* edo *Zapateado* bezalako piezen egilea eta dudarik gabe garai hartako jotzailerik hoberena. Bere obrak oso korapilatsuak izaten ziren jotzeko, eta berak ere erreperteriorik zailena auke-ratzen zuen.

Ospe maila berean Julián Gayarre Erronkariko tenorea zegoen (1844-1899). Europa-Ameriketako opera agertokiak zapaldu zituen. Bere fortunarekin hainbat lan finantzatu zituen bere jaioterrian; bertan ehortzi ere zuten, Mariano Benlliurek, orduko eskultore espainol hobere-netako batek egindako mausoleo batean.

Beste musikari sonatu batzuk aipatzeko, Hilarión Eslava dugu (1807-1878), Miserere baten egilea, besteak beste, Emilio Arrieta (1823-1894), *Marina* zarzuelaren egilea, edo Joaquín Gaztanbide. Musika-jardun bizi horren adierazgarri, gogora dezagun 1891ean Iruñeko Orfeoia fundatu zela.

19.5. Artea eta modernitatea

XIX. mendearen erdira arte mugimendu neoklasikoa ibili zen gailen arte kontuetan. Arkitekturako obretan, Peraltako eliza parrokiala (1829-1833) edo Lizarrako San Juanen fatxada (1849) bezalako lanez gain, zenbait eraikin zibil oso esanguratsu nabarmendu ziren. Haietako ezagunena, dudarik gabe, Nafarroako jauregia. Eraikin hartan orduko Diputazioak Lege Hitzartua onetsi ondorengo aire berriak azaldu nahi zituen inondik ere, instituzioen bizitzan zegokien mailako egoitza bat beretuz. Jose de Nagusiak eraiki zuen jauregia 1843tik aurrera, estilo horren soiltasunaekin eta Erromako artean oinarri zuten zutabe handiak eta frontoiak erabiliz apaingarritako. Estilo berean egina dago Tafallako plaza berria ere, Martín de Saracíbarrek 1856an diseinatu; arrazionalismoak eta hiri ordenamenduak bat egiten dute hiri horretako udal-txearen arkupeetan eta fatxadan. Garai hartan berean Maximiano Hijónek Institutu Probintzial berria altxatu zuen, Iruñeko katedralaren ondoan. Denboraren buruan eraikin hori Komertzio eskolaren egoitza izanen zen eta are berrikiago Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarena.

Eskulturan, berriz, emaitzak eskasagoak izan ziren: Francisco Espoz y Mina gerrillero ohiaren hilobia beste ezer askorik ez daiteke aipa, Iruñeko katedralaren klaustroan, 1855ean José Pasquier, talentu urriko eskultore katalanak egina.

Karlistaldiak bukatu arte, 1876 arte alegia, ez ziren berrikuntza haizeak figurazio arteetara ere iritsi, bereziki haien arlo aktiboenean, hau da: arkitekturan.

Hemen ere nabari dira erlijioaren eragina, zeren Vaticano I kontzilioak eliza katolikoari eman zion bultzada eraikinetan ere islatu baitzen. Arkitektoek Erdi Aroko estilo kristau tipikoetara irauli zituzten begiak: erromanikoa eta gotikoa; hortik kasuan-kasu neorromanikoa eta neogotikoa deitu estiloak sortu ziren, eta bai eklektizismoa ere, mugimendu askoren osagaiak nahasten zirenean.

Mugimenduok Florencio Ansoleaga eta Julián Arteaga izan zituzten ordezkari nagusi Nafarroan. Lehenbizikoak Iruñeko San Agustin

eta San Lorenzo elizetako fatxadak diseinatu zituen, estilo neorromani-koan egindako beste zenbait lanen artean (puntu erdiko arkuak, turuta-formak, inpostak). Arteagak, adibidez, San Fermín de Aldapako basilika altxatu zuen. Eklektiko batek, Ángel Goicoecheak, Xabierko gaztelua zaharberritu eta haren basilika proiektatu zuen (1890-1896).

Baina artistok inon garatu bazituzten beren kezka artistikoak, Iruñeko hirigintzako proiektu berrietan garatu zituzten. Armadak mendez eta mendez galarazi zuen hiria harresiez kanpora zabaltzea eta murrailak eraistea, hortik inbasio bat errazteko beldurrez, eta azken urteeetan karlisten matxinada baten beldurrez. 1888 arte ez zen onetsi Iruñeko harresiak zertxobait ukitzen zituen plan bat. Gotorlekuko bi baluarte erai-tsi ziren, hiri aldera ematen zutenak, eta horrela libratutako eremuan zenbait eraikin militar altxatu ziren eta bai erabilera zibileko dozenaldi etxemultzo ere. Iruñeko Lehen Zabalgunea izan zen.

Metro eskas horietan Nafarroako arkitektoak hoberenek etxebizitza eta eraikin publikoak egin zituzten orduko gustoaren arabera. F. Ansoleagak eklektizismoak Nafarroan eman duen mostrarik ederrena ondu zuen bertan; A. Goicoecheak eraikin neomudejar bat altxatu zuen (antzinako arte arabiarraren itxuran egina), gaur egun Iruñerriko mankomunitatearen egoitza dena. Modernismoak ere, Frantziatik etorritako estiloa, inon baino hobeki Bartzelonan errotu zena, emaitza bat izan zuen zabalgunean: M. Martínez de Ubagok Nafarroan estilo horrek eman duen adibide klaro bakarra diseinatu zuen: Ogasun Ddelegazioa, fatxadak eta sarrerako ataria galanki apainduz (errosetak, lorekordak, loreak) mugimenduaren itxura egiteko. Estilo klasizista batean, berriz, Julián Arteagak Audientziarako proiektua egin zuen, gaur egun Nafarroako Parlamentua kokatzekoa dena.

Zabalguneaz landa, parte zaharrean ere zenbait eraikin inportante altxatu ziren: La Agrícola erakina, kasu, geroago Nafarroako liburutegi orokorra izanen zena, eraikin honek modernismotik hurbil dago baina oso orijinala da, inongo estilo jakinik erabat bereganatu gabe. San Frantziskoko plazan eraiki zen, Errege Kontseilua egondako tokian.

Arkitektura eta eskulturaren artean, Foruen Monumentua dugu. Arte balio gehiegirik ez badu ere, esangura handia du. Manuel Martínez

de Ubagok egin zuen, Sarasate ibiltokian (1893), orduan gailen zen estilo eklektikoan. Esan bezala, Gamazadaren garaian eraiki zen eta bere eskulturetan eta idazkietan -iberoz, euskaraz eta gazteleraz- Madrilgo zentralismoari bere historia eta pribilegioak errespetatzeko eskatzen zion herri baten nortasuna islatu nahi du.

IV
XX. MENDEA

Kronologiaren ikuspegi hertsitik XX. mendea 1901ean hasten bada ere, mende politikoak 1902an du lehenbiziko erreferentzia, Alfonso XIII.a adinez nagusitzen denean. Datu horrek ez du Nafarroarentzat esangura berezirik, baina bai ordea oro har Espainiarentzat, inguru hartan gertatzen baitira orduko gertaera gailen batzuk (Kubako krisia, adibidez, 1898), eta batez ere Alfonso XIII.aren agintaldia, dudarik gabe Errestaurazioaren aldirik gorabeheratsuena, Alfonso XII.a errege eta Maria Cristina erregeorde zirenean ez bezala. Asaldamendu horien azken emaitza, aurrena Primo de Riveraren diktadura izanzen zen, hurrena Errepublika eta hurrengo gerra zibila. Nahasmendu horiek Nafarroari ere eragingo zioten eta haren egitura sozial eta politikoei. Nafarroan, gainera, beste faktore berezi batzuk zeuden: foruen auzia tarte zebilen eta karlismo gotor bat ere bazegoen, hurrenez hurrengo gobernu guztien kontra azaldu zena.

20.1. Gizarte politiko berria. Alderdiak eta sindikatuak

Errestaurazioaren garaiko talde tradizionalak lehenengo protagonismo bera izan zuten mende berriko lehenbiziko hamarkadetan. Gogora dezagun, hala ere, ez zirela oso egitura antolatua, gaurko alderdi poli-

tikoak diren bezala, baizik eta hautagai jakin batzuk aurkeztu eta sustengatzen zituzten pertsonaia batzuen elkarteak. Barne liskarrak, hitzarmen bitxiak eta presioak oso maiz izaten ziren, beraz.

Karlistek zuten artean ere pisurik handiena herriaren artean (1909az geroztik Jaimistak izenpean, erregegai berria, Karlos VII.aren semea Jaime baitzen). Nafarroan zuten izan ere bere oinarri sozial eta politiko sendoena. Hauteskundeetako ustelkeriagatik ere, beti eskuratzen zuten jarlekuren bat Gorteetan eta Foru Diputazioan, eta gainera anitz alkate eta zinegotzi. Haiek ere, beste alderdiak bezala, ez ziren barne liskarrik gabe. XIX. mende bukaeran integristen banakuntza erradikala izan zuten, eta lehenbiziko mundu gerraren ondotik Vázquez de Mellaren tradizionalistak ere banatu zitzaizkien, horiek ere erregegaiaren aldarre modernozalearen kontrakoak; Nafarroan Víctor Pradera izan zuten buru, inor baino sutsuago borrokatu baitzen Nafarroa Euskal autonomiatik bereiz gera zedin. Errepublikara arte ez ziren karlista guztiak atzera batuko talde bakar batean, Komunio Tradizionalistan.

Alternantziako alderdiek ere (kontserbadoreek eta liberalek) barne-tirabira handiak izan zituzten. Gamazadaren ondoren apenas geratu zen Nafarroan esateko moduko liberalik, batez ere mende hasieran Elizaren interesen kontrako politika bat, nafar jendeak erabait gaitzetsia, egin zutenetik, (manifestazio handiak ere izan ziren). Kontserbadoreak indar antolatua ziren baina haiek ere ez ziren libratu Espainia guztian bezala mauristen (Antonio Mauraren jarraikileen) eta datisten (Eduardo Datoren jarraikileen) arteko tirabiretatik, 1913tik aurrera. Lehenbiziko horiek Diario de Navarra egunkaria izan zuten lagun, 1903an fundatua eta agudo asko probintziako lehen egunkari bihurtua. Errepublikanoek presentzia txiki bat mantendu zuten.

Aurreko hamarkadetako Fueristen eta «Asociación Euskara» delakoaren lana mintegi, Eusko Alderdi Jeltzalea Nafarroara ere hedatu zen, Sabino Aranak fundatua Euskadi kontserbadore eta katoliko independente edo autonomo bat defendatzeko, Nafarroa ere barne. Hasi berri hartan barne korronteak bi ziren: bat independentzi-zaleagoa, Pirinioaren alde bietan Euskadi osorako estatu zentralista bat egitea helburu, eta bestea Espainiarekin federatutako Euskal Herri bat defendatzen zuena, zeinean hegoaldeko lau herrialdeek (Araba, Gipuzkoa, Nafarroa

eta Bizkaia) nolabaiteko autonomia izanen zuten. Bigarren korrante hori gailen zen EAJn, Nafarroara hedatzen hasi zen urteetan; horri esker errazago abenitu ziren jaimistekin, bai eta hainbat hauteskudetara elkarrekin aurkeztu ere. 1918an lehenbiziko Gorte-jarlekua eskuratu zuten Nafarroan eta 1921ean beste bat Foru Diputazioan Manuel de Irujo-arentzat.

Nafarroan hain industria gutxi egoteak nolarebait makaldu zuen langile mugimenduak zabaltzea Nafarroan, bai politikoak nola sindikalak. Baina egon, hor zeuden, nahiz eta haien eragina berandu arte baizik ez zen azaldu. 1901ean Nafarroako langile federazio bat zegoen Iruñean, UGT, sindikato sozialistaren hurbilekoa. Denbora batez oso presentzia urria izan zuen, propaganda katolikoa zela medio. Baina 1920rako ugetistek 20 atal lokal bazituzten, batez ere Nafarroa erdialdeko eta Erriberako nekazari herri handietan. Haietako batzuk banatu eta CGT (Confederación General del Trabajo) delakoaren elkarteei eratziki zitzaizkien, hala baitzeritzan orduko sindikato anarkistari. CGT Nafarroan Marcillako eta Tuterako azukre fabrikaren bitartez azaldu zen, 1920an eta 1921ean hurrenez hurren.

Langile federazioa bultzatu zutenek berek sortu zuten Nafarroan Alderdi Sozialista (PSOE) (1902). Baina hogeigarren urteak bukatu arte Iruñean ezik inon ez zuen izan esateko moduko presentziarik. Iruñean bi aldiz zinegotzi bat atera zuten II. errepublika baino lehenago.

Elizak erantzun esanguratsua izan zuen, marxismoari eta anarkismoari buru egin behar latz hartan. Nekazari kooperatibak garatuz, Nafarroako elizak Nekazari Sindikato Katolikoaren Federazioa bultzatu zuen (*Federación Navarra de Sindicatos Agrícolas*), bai lurjabeak eta bai maizterrak eta jornaleroak hartuz. Hirietan, «La Conciliación» delako elkarteak ere sortu zen, langile eta ugazaben arteko problemak konpontzeko jaioa (1902). 1912an *Sindicatos Católicos Libres de Navarra* direlakoak sortu ziren.

20.2. Foruak eta Foruen berrezartzea

Mintegi politiko honen ardatz nagusia, artean ere, Nafarroako instituzioek –zein ere ideologia zuten– foruei beren hartan eusteko zuten

grina zen. Lege Hitzartuak indarra hartu zuenetik etengabe izan ziren presioak eta liskarrak, nahiz ez ziren inoiz iritsi gamazadaren garaikoak bezain latzak izatera (1893). Zergen, funtzionarioen edo herrilanen gaineko lege orokorrak eztabaidatu eta negoziatu egin ziren, eta, ohi bezala, batzuetan gobernuak eman zuen amore eta beste batzuetan Diputazioak. Baina ordu arte bezala, halaber, negoziazio horiek sendotu egiten zuten Foru Diputazioa eta Nafarroako instituzio sistema bera ere bai, gobernuak negoziatu beharra onartzeagatik beragatik, nahiz eta azkeneko bere irizpideak inposatu. Nafarroako erregimenaren izaera berezia ontzat ematen zuen. Eta izan ere Diputazioak zabaldu ere egin zituen bere eskumenak, Nafarroarentzat garrantzia handia zuten arloetan, oihan kudeatzean eta nekazaritza-abeltzaintza kontuetan.

Egoera honetan aldaketa handia izan zen hainbat mugimendu erreionalista edo nazionalista (berezkiki katalanistak eta eusko nazionalistak) hasi zirelarik beren eskualde horientzat autonomia eskatzen. Autonomiaren aldeko mugimendu horrek 1917an eta 1918an jo zuen gorenara. Baskongadetako Diputazioek 1839an eta 1876an galdutako foruak berrezartzea eskatu zuten eta Nafarroakoari ere eskatu zioten laguntza, hark handiagoko autonomia maila baitzuen. Instituzio foralen eta lokalen barreneko eztabaidek hilabeteak iraun zuten eta borroka handiko bozketak egin zituzten Diputazioan, Administrazio Kontseiluan eta udaletan beste Diputazioei foruak osorik berrezartzen laguntzearen aldekoek, halakorik inolaz nahi ez zutenek eta eskumenak handitu nahiago zutenek. Azkenik, 1918 bukaeran Diputazioak «erabateko autonomia» eskatu zuen, baina aurrena Gorteetan oso mantso tramitatu baitzen eta hurrena Primo de Riveraren diktadura etorri baitzen, eskaera bertan behera utzi zen.

Haren ondorio juridiko bakarra barnerakoa izan zen. Administrazio Kontseiluak, Diputazioak sortu eta 1901ean eraberritutako Aholku Erakundeak, 1925ean handiagoko eskumenak beretu zituen, orain udal administrazioaren inguruko kontu guztiez ere eman behar baitzuen txostena; eta handik aurrera udalek izendatuko zituzten kontseilukide gehienak, beren autonomia zabalduz. Baina, gauza harrigarria, Primo de Riveraren diktadurak eman zuen horretan amore, ez monarkia liberalak.

20.3. Primo de Riveraren erreformak

Alfonso XII eta XIII.en monarkiaren krisiak estatu kolpe bat izan zuen errematetzat 1923an, Primo de Rivera jeneralak emana. Erregearen onespenerekin berak gobernatu zuen Espainia 1930era arte.

Hauteskundeak, alderdi politikoak eta sindikatoak bertan etenik gelditu ziren, prentsaren zentsura ezarri zen. Gauzak horrela, apenas pentsa zitekeen Diputazioak erraz eutsiko ziola Foru erregimenari.

Baina Diktadurak, ordea, sekulan ez zuen auzitan jarri Lege Hitzartua eta teoriarik behintzat hango xedapenak beren hartan utzi ziren, nahiz eta praktikan haietako batzuk betiko aldatu ziren. Udal administrazioa izan zen urte haietako liskarbide handia. Gobernuak erreforma-politika bat abiatu zuen hasi berrian, eta udalen autonomia zabaldu nahi zuen (gauza harrigarria, kontuan hartzen bada diktadura-erregimena zela). Politika horrek Diputazioaren eskumenei egiten zien eraso, eta udalen gaineko eskua gutxitzen. Negoziazioetan Diputazioak amore eman behar izan zuen. Lege Hitzartua bere hartan utzita ere, Diputazioak Nafarroako Udal Administrazioari buruzko erregelamendu bat (1928) onetsi zuen, Nafarroan Gobernuaren xedapenak abian jartzeko. Esan bezala, Administrazio Kontseilua erreformatu zen udalen pisua handitzeko eta Diputazioaren ordezkari bere gain hartzeko udalei kontu egiteko lana.

Ezinbestez amore eman behar horien burueneko, 1927ko Hitzartumen Ekonomiko berriak jaso egin zuen kupoa (Nafarroak zergak biltzearen truke Estaduari eman behar zion dirutza), bi milioi pezetatik sei milioitara jaso ere, horren truke ezertan goratu gabe Nafarroaren autonomia, Diputazioaren ordezkari nahi zuten bezala.

Berriz ere Nafarroak eutsi egin zion autonomiaren printzipioari diktadura baten aurrean ere, baina berriz ere autonomia horren zati bat, gainerakoa atxikitzearen truk, galdu zen.

20.4. II. Errepublika eta Euskal Estatutua

Edozein kasutan ere, Diktadura ez zen gai izan bere sorburu izandako problema horiek konpontzeko eta itzuli egin zen, berekin monar-

kia ere eramanaz. 1930ean Primo de Riverak dimisioa aurkeztu zuen eta hurrengo urtean apirilako hauteskundeetan errepublikanoak gailendu ziren Espainiako hiri handienetan. 1931eko apirilaren 14an Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zen.

Nafarroak gorabehera handirik gabe begiratu zion erregimen aldazte horri. Alderdi kontserbadoreak –«eskuinak»– hasieran gailen baziren ere, hauteskundeak errepikatu zirenean errepublikano eta sozialisten elkarteak eraman zuen garaipena –«ezkerrak»–. Diputazioaren ordezkari bat ezarri zen, lehenbiziko aldiz buru sozialista izanena, Constantino Salinas; baina Errepublikako gobernuak ez du foru erregimena aldatuko.

Hurrengo hilabeteetan euskal estatutua izanena da eztabaidagai politiko nagusia. Kataluniako eta Baskongadetako nazionalistek berehala abiatu zuten autonomia eskuratu beharrezko mekanismoak, aspalditik eskatzen zuten bezala nahiz eta ez gobernu liberalek ez dikatdurak ez zieten amore eman. Euskal estatutua gerra zibila hasi arte ez zen onetsi, baina lortzeko eginahala, ordea, Errepublika aldarrikatu berrian bertan hasi zen.

Eusko Alderdi Jeltzaleak deituta, 1931eko ekainean, Lizarran, lau probintzietako (Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia) 400 udal baino gehiago bildu eta sustengua eman zioten Eusko Ikaskuntzak itxuratutako proiektu bati. Nafarroak, halere, ordezkari gutxi izan zuen. Handik bi hilabetera, ordea, udal horiek gehien-gehienek (Nafarroakoek ere bai, sustengu eman zioten lau Diputazioetako gestorek egindako antzeko proiektu bati (alderdi gehienek ordezkariak aritu ziren proiektua itxuratzeko); proiektu horrek, autonomia zabala proposatu ez ezik, elizarekin harreman zuzenekoak izatea eskatzen zuen. Izan ere, erregimen berriak oso antiklerikala izateko itxura hobeak zituen eta, esan bezala, bai karlistak eta bai nazionalistak eta lehengo alfonsino asko, erlijiozale amorratuak ziren.

Baina Konstituzio berria onetsi zenean, urte hartan bertan, berriz hasi behar izan zen lanean, proiektua Konstituzioak ezartzen zituen arauetara moldatzeko. Aurrena eskatzen zen udalek erabakitzea ea estatutu bana edo lau probintzientzat estatutu bakarra nahi zuten. 1932an

Nafarroako ordezkariak estatutu bakarraren alde egin zuten, baldin eta hala ere, itxuratu ondoren, nafar jendeak erreferendum batean onartzen bazuen, bozketaren emaitza osotarakoa zein ere zen.

Edozein kasutan ere, estatutuak gero eta sustengu gutxiago zuen. Alde batetik errepublikanoak eta sozialistak hasieratik kontra zeuden, uste baitzuten Espainiako Errepublikarekiko elkertasuna falta zuela (errepublikanoak) eta burgesiarentzat mesede eta langilentzat kalte zela, langileek bat eginda behar zutelako zein ere kultura edo jatorri zuten (sozialistek). Baina gainera askok estatutuaren alde egin bazuten, Eliza estaduaren antiklerikalismotik babesteagatik izan zen. Ikusi zute-larik hartarako alferrik zela, Konstituzioak Gobernu nazionalarentzat gordetzen zuelako gai hori, ez zuten gehiago sustengatu. Horregatik karlistek edo lehengo alfonsinoek orain gogoan zuten kezka zen nola eutsiko zitzaien euskal estatutu horretan Nafarroaren eskumenei.

Proiektu berrian probintzien autonomia bermatzen zen. Entitate berriari Euzkadi deitzen zitzaion euskaraz, eta *País Vasconavarro* erdaraz, eta Estadu Espainolaren barrengo unitate autonomotzat deklaratzeko zuten. Besteak beste Parlamentu bat ezartzen zuten, zeinaren erdia lau probintziek laurden bana hautatuko zuten eta beste erdia populazio osoak hauteskunde barruti bakar batean.

Karlistek azkenean libre utzi zieten botoa beren ordezkariari; gainerako eskuinak berriz -nazionalistek ezik- ezkerreko alderdiek eta errepublikanoek -Azañaren jarrikileek ezik-, kontrako botoa eman zuten; egunkari nagusiak ere kontra azaldu ziren (*El Pensamiento Navarro* eta *Diario de Navarra*). Azkenean udalak 1932ko ekainean Iruñean bildu eta muzin egin zioten estatutuari, Diputazioa alde bazegoen ere. 109 udalek, osotara 135.000 bizilagun, alde egin zuten; 123k, osotara 185.000 bizilagun, berriz, kontra. 35 (29.000 bizilagun) abstenitu ziren. Oso batzar gorabeheratsua izan zen eta historialariek taju banako -eta elkarren kontrako- azalpenak ematen dituzte han gertatu zenaren gainean. Nolanahi ere den, Nafarroa ordutik euskal estatututik aldendu zen, nahiz eta nazionalistek ez zuten utzi, eta gaur arte ez duten utzi, Nafarroa beren proiektu politikoari eratzikitzeko asmoa.

Ez dago erabat klaro, gainera, zein eskualdek egin zuten alde eta zeinek kontra, baina badirudi Erriberako udalek (hor ezkerreko alder-

diek indargehiago baitzuten) oro har kontra egin zutela; gainerako Nafarroan, berriz, irudia oso lausoa da. Hiri handienen artean, Iruñak eta Tuterak kontra egin zuten; Lizarrak, Tafallak, Erriberrik edo Zangozak berriz, alde.

Hauteskunden arloan Nafarroa berehala oso probintzia eskuindarra atera zen, 1931eko hauteskunde emaitzak gorabehera. Urte berean alderdi kontserbadoreenak oraindik euskal estatutuaren aldeko azaltzen zirela, karlisten, nazionalisten eta alfonsinoen koalizio batek gorte konstituziogileentzako zapi jarlekuetatik bost beretu zituen; errepublikano-sozialistek bi besterik ez. Handik bi urtera nazionalistek utzi egin zioten elkarte horri, baina eskuinaren parte bat CEDAren inguruan berantolatua zen ordurako. CEDAk Rafael Aizpunen Unión Navarra delakoa zuen hemengo ordezkari. Eskuin blokeak botoen %71 erdietsi zuen eta zazpi-zazpi jarlekuak, hautesle bakoitzak bost hautagai baizik ezin hautatu bazuen ere (zerrenda irekien sistema zen, zeinean hautesleak nahi zituen izenak hautatzen zituen). Elkarte honek Nafarroan zuen boterearen mostra ona. Sozialistek botoen %14 beretu zituzten eta nazionalistek %9. Nafarroa osoan eskuina izan zen toki guztietan nagusi; hegoaldean, Iruñean, Sakanan eta Erronkarin sozialistek bigarren postua atera zuten eta ipar-mendebalean nazionalistek.

Espainia osoan ere eskuina atera zen garaile, baina gobernu erradikalek eta erradikal-cedistak hain erorkorrak zirelarik, 1936an berriz izan ziren hauteskundeak eta oraingo honetan Frente Popular delakoa atera garaile: Errepublikano ezkertiarren, Sozialisten, komunisten elkartea zen, anarkisten sustenguearekin; eskuina, haien aurkez, bi urteko gobernu krisiek desitxuratua zegoen. Nafarroak, lehengo hauteskundeen il-dotik eta Espainian ez bezala, eskuindarren elkarteari (karlistak, CEDA, independenteak) eman zien berriz erabateko sostengua (zazpi orain ere), aurreko urtean Diputazioaren gestora berria hautatzeko hauteskundeetan bezala (zazpitik sei). Nafarroako Frente Popularra saiatu zen gestora ordezkatzan 1936ko urtarrileko hauteskunde orokorren ondotik, baina alferrik. Jesús Monzón komunistak eta gazte talde batek Nafarroako jauregia hartu zuten baina utzi behar izan zioten.

Bi talde politikoak ezin konponduzko talkabidean zeuden. Europa osoko krisi ekonomikoaz gain, beste osagai teinkagarri asko baziren,

haietako batzuk zailtasun horiek berak sortutakoak, baina besteak Espainiako gizartearen egituratik heldu zirenak. Aipa ditzagun, adibidez, aurreko urteetako eskandalo administratiboak eta nekazari nahiz langile matxinadak, sozialismoaren parte handi batean jarrera sobietzaleek zuten indarra eta eskuindar askoren jokabide despotikoa, armada oso kontserbadore baten kolpe-mehatxu etengabea, elizak –gizartean eragin handia baitzuen– eta ezkerreko gobernu errepublikanoek ari zuten borroka garbia eta iraultza nahi zuten hainbat talde indartsu azaltzea (ideologiaz askotarikoak, falangetik hasi eta komunistetaraino).

Nafarroa ere ez zen halako liskarrik gabe egon, nahiz eta hemen ez zuten hainbesteko garrantzirik izan. Hemen Elizak inoiz ez zuen trabarik izan denetariko lanak egiteko, gehienparte oso erlijiozalea zen gizarte batean bide zenez; karlismoak, aldiz, bere talde paramilitarra sortua zuen: Erreketea eta, aurrerago ikusiko denez, nekazaritzako liskarrak larriak izan ziren Erriberan, non sozialistek eta anarkistek gainerako Nafarroan baino askoz handiagoko eragina zuten.

FRANKISMOA ETA DEMOKRAZIA (1936-1982)

Gauzak horrela, ez da harritzekoa Nafarroak -bereziki zenbait sektorek- erabateko sustengua ematea militar talde bati, honek estadu kolpea eman zuenean Frente Popularraren Gobernuia ezeztatzeke, Nafarroa gizarte karlista, kontserbadorea eta erlijiozalea baitzen. Handik berrogei urtera Nafarroa hori erabat bestelakaturia egonen zen. Industrializatze azkar batek erabat berrituraturia zuen gizartea eta Francoren kontrako agitazio politiko sindikalak Espainia guztiko aktiboenetakoa zen. Jakina denez, prozesu horren buruan Espainiako sistema politikoa demokratizatzea etorri zen eta horrekin batera Nafarroako instituzio egiturak ere eta foru erregimena bera erreformatzea.

21.1. Nafarroa gerra zibilean (1936-1939)

Nafarroa, hortaz, kontserbadorea zen. kontserbadoreak ziren bai talde politikoak eta bai populazioaren parte handi bat ere; gogor sinestuen zuten ideia beharbada sinple baina gotor batzuetan (kristautasuna eta erlijioaren defentsa, tradizioa eta antisozialismoa ziren ideia giltzak); bide zenez, beraz, militarren matxinadari lagun egin zion eta bai soldaduak eta bai laguntza materiala eman zizkion ausarki beste eskualde askotan baino gehiago.

Aurreko konspirazioan parte hartu zuten pertsonaia asko Nafarroako mundu politikotik heldu ziren. Karlismoaren buruzagiak ziren, berriki batu baitzen: Rodeznoko kondeak, esaterako, erreketea matxinadaren eskuko jarri zuen, nahiz eta Mola gobernadore militarren eta karlismoaren artean itxuraz osin handia egon, Molak errepublikanotzat baitzeukan bere burua eta karlistak, berriz, monarkiko hutsak baitziren. Ordea gauza gehiago zituzten gobernuaren kontra bat egingarri, elkarrengandik urruntzen zituztenak baino.

Matxinada Afrikan sortu zen, 17an, eta 18rako Iruñeko goarnizioa matxinadari eratziki zitzaion. Goardia Zibileko burua, Errepublikari leial egon zena, bere menpekoek berek hil zuten eta gobernadore zibila ihesi atera zen Nafarroatik. 19tik aurrera boluntario karlista eta falangistak, eta bai ideologia garbirik gabekoak ere, matxinatuen armadan erroldatzen dira. Horrela hasi zen Nafarroak gerran izan zuen parte hartzea. Matxinatuok «nazionalak» esaten zioten beren buruari eta errepublikanoei «gorriak» deitzen zieten, erregimen sobietikoarekin identifikatu nahirik.

Ez dugu hemen borrokaren historia xehetua egiten ez eta Nafarroako Brigadek bertan nola parte hartu zuten kontatuko ere, boluntarioak izan edo ondoko hilabeteetan edo urteetan derrigorrez osteratuak. Aski izanen da gogoraraztea nola nafar jende hutseko batailoi osoak egon ziren –Nafarroako Brigadak–, beste askotan eskasuneak betetzeko nafar jendea erabiltzen zela, eta Iparreko frontean bereziki oso eragile izan zirela (Asturias, Kantauri, Bizkaia eta bereziki Gipuzkoan), 1937an fronte hori erori zen arte. Orduan matxinatuen buruzagiak, Francisco Franco jeneralak Cruz Laureada de San Fernando delakoa eman zion Nafarroari. Nafarroako armarrian egonen zen gurutze hori demokrazia berrezarri eta 1982an Foruak Hobetzeko Legea etorri arte. Ondoren Aragoiko eta Kataluniako fronteetan ere parte hartu zuten, gerra 1939ko apirilaren 1ean bukatu zen arte. Osozara 40.000 inguru nafarrek –erdiak boluntario– parte hartu zuten gerran Francoren armadako soldadu (Mola gerra hasi eta hurrengo urtean hil zen hegazkin istripu batean); hildakoak %10 baino gehiago izan ziren.

Baina barrenean ere izan zen beste fronte bat, hura ere dramatiko askoa. Nafar gehienak matxinatuen alde bazeuden ere, errepublikano

franko ere baziren, sozialistak edo besterik gabe errepublikaren aldeko progresistak; problema larriak izan zituzten matxinatzetik bertatik hasita.

Haietako asko (zifrak eztabaidapean daude oraindik baina segur aski bi milatik gora) errepresiopean hil ziren, batez ere Nafarroako erdialdean eta Erriberan, han inon baina gatazka sozial gehiago izan baitziren aurreko urteetan. Beste batzuk indarrez erroldatu zituzten Francoren armadan eta bai afusilatu ere bat baino gehiago borrokarik ikusi baino lehen, errepublikanoetara pasatzea galaratzeko. Asko kartzelaratu ere zituzten –adibidez San Cristóbalgo fuertean; 1938 ihesaldi saio batean asko eta asko hil ziren) eta lan bortxatuetara kondenatu.

Ezkerreko udalak, jakina, ezeztatu ziren eta erakunde errepublikazaleen ondasunak konfiskatu. Adibidez, *La Voz de Navarra* egunkari nazionalistaren lantegiak, 1936tik aurrera *Arriba España* argitaratzeko erabili ziren, falangearen boz eramalea.

Bistan denez, Nafarroan errepublikanoek ez zuten errepresiorik egin, ezin egin ere, baina Espainiako beste zenbait lurralde Errepublikari leial egon zirenetan nafar batzuk hil ziren, gerrak bertan harrapatuta. Horrela, adibidez, Joaquín Beunza diputatu karlista-ohia –eta euskaltzalea–, Víctor Pradera tradizionalista (Donostian) edo Manuel Irurita Bartzelonako apezpikua.

Gerrak ondorio politikoak ere izan zituen. Eusko Alderdi Jeltzalea azkenean Errepublikaren alde atera zen, baina Nafarroako militante jeltzale asko matxinatuekin erroldatu ziren, nahiz eta gero Franco jeltzaleen etsai garbia agertu zen. Eskualdeko buruzagi bistakoenak, ordea, errepublikanoen alde atera ziren: Fortunato Aguirre Lizarrako alkatea, horregatik afusilatu zuten; Manuel de Irujo Errepublikako justizi ministroa izan zen. Itxuraz ezin batuzkoak ziren bi mugimendu, Komunio Tradizionalista eta Falangea, bat egitera bortxatu zituen Francok 1937an (*Falange Española Tradicionalista y de las JONS*), bi taldeetan erresistentzia gogorra izan bazen ere (Javier de Borbón Parma, karlisten erregeordea bera kontra zegoen); horregatik handik zenbait urtetara karlismoa pixkanaka Francoren politikatik urrunduko da. Gainerako alderdiak, gerran Francoren aldeko izan ala ez, desagertarazi zituzten.

21.2. Foru Erregimena eta Francoren diktadura

Foru Diputazioak ez zuen inolako trabarik izan Francok gerran bertan ere Foru erregimena aitor zezan lortzeko. Matxinatuen aldeko garbia izaki hasieratik. Gerrako hiru urteetan karlisten Gerra Batzordearekin partitzen zuen boterea, zeina gerrarekin lotutako gai zibilez arduratzen zen (intendentzia, garraioak, salbokonduktoak etab.), baina zenbait arlotan, hezkuntzan adibidez, Diputazioak zabaldu ere egin zituen bere eskumenak (Hezkuntza Batzorde Gorena berreskuratu zen) eta foruak berrezartzeko politika baten oinarriak jarri matxinada garaile aterako zen egunari begira. Gerra bukatu ondoren, ordea, proiektuok aski moteldu ziren. Hezkuntza Batzordeari bai eutsi zitzaion baina nekazaritza eta gizarte erreformen gaineko eskatzen ziren eskumenak bertan utzi ziren, diktadura batekin negoziatzean sor zitezkeen zailtasunengatik.

Izan ere, gerratik sortutako erregimenarekin egindako lehenbiziko hitzarmenak gehitu egin zuen Nafarroaren kupoa sei milioi pezetatik hogeita batera. Beste lege batzuek, ordea, udalen gainekoa kasu (1945,1955), osorik begiratu zituzten Diputazioaren eskumenak. Izan zen eztabaidarik, hala ere, gehienbat gobernadore zibilekin, Diputazioarekin ere beste probintziekin bezalako politika autoritarioa jarri nahi izaten baitzuten.

Frankismoaren lehenbiziko urte haietako agintari lokalak karlisten arlokoak ziren gehienak, baina falangistekin batzea onartu eta Francori leial zitzaizkion sektoreetakoak bakarrik. Gainerakoak, esan bezala, urrunduz joan zitzaizkion diktadoreari, besteak beste dinastia kontuko barne banakuntza gogorrek zituztelako: batzuk, Karlos (VIII.a)ren aldeko zirela, beste batzuk Javier de Borbón Parma erregentearen aldekoak, eta beste batzuk Alfonso XIII.aren seme Don Juanen aldekoak, Rodeznoko kondea, adibidez. Montejurrako igoerak 1943an hasi ziren, hasieran erlijio kutsuarekin, baina aurki propaganda politikoa egiteko aitzakia izanen dira eta bertan karlismoaren sektoreek beren jarrerak emanen dituzte agertzera, batzuetan erabat agintean zeudenen kontrakoak.

21.3. Ikuspegi politiko berria

Karlisten erromeriok osagai nagusia izan ziren Nafarroako gatazka politikoetan 60. urteen hasieran eta 70.en bukaeran, baina ez osagai bakarra. Diputazioak hitzarmen ekonomiko berria sinatu zuen (1969) eta Francok Nafarroako zuzenbide zibilarren baliozkotasuna aitortu zuen (1973); gerraz geroztik, beraz, etengabeko adostasun giro bat egon zen foru erregimenaren gainean, eta giro horren barrenean 1964an Diputazioak berak egindako Industria Bultzatzeko Planak ondorio politiko handiko gizarte aldaketa sortu zuen.

Karlismoaren parte bat sozialismo autogestionarioaren aldera irauli zen –kristau ildoko sozialismo bat, besteak beste enpresak langileen maturan egotea defendatzen zuena–. Carlos Hugok, Javier de Borbónen semeak eraman zuen alderdia ildo hartatik. Beste sektore batek, ordea, Sixto Enrique, Carlos Hugoren anaia buruzagi, askoz tradizionalistagoko jarrerak zituen. Bi korronteen arteko azken talka, 1976an, Montejuñan izan zen, non Carlos Hugoren Bi jarraikile hil ziren.

Erregimenaren kontrako oposizioa Nafarroako Kontseiluaren inguruan antolatu zen gerraren ondoren. Constantino Salinas zuen buru, Mejiçotik. Erakunde horrek bizitza laburra izan zuen (1945-1953). Nazionalistek Erbesteko Eusko Jaurlaritzarekin lan egin zuten. Baina hirurogeigarren urteetara arte apenas izan zen esateko moduko barne oposizioarik –karlismoa kenduta–; orduan hasi ziren zenbait talde, Vaticano IIko erreforma sozialetan oinarrituta: HOAC (Hermanades Obreras de Acción Católica) edo JOC (Juventudes Obreras Católicas). Ezkerreko sindikalismo kristau honen parte bat, zeinean apaiz talde koskor bat aritzen zen, CCOOen oinarria izanen da. Nolarebait, Nafarroako erlijiozaletasun zaharra eta industrializazioa klase honetako jarrera ideologikoak mamitzeko arragoa ona izan ziren.

Nafarroan 60. urteen hasieran ORTEk zuen antolakuntzarik hobereana (Organización Revolucionaria de Trabajadores), joera maoistakoa (Mao Ze Dong buruzagi txinoaren ideietan oinarritua). Alderdi Sozialista bezalako taldeek, berriz, –Euskadiko Alderdi Sozialistan sartua– edo Alderdi Komunistak –Euskadiko Alderdi Komunista– ez zuten ia antolakuntzarik Nafarroan. Aipagarria da ze bilakera izan zuten sozialistek

estatutuaren auzian. Hogeita hamargarren urteetan jarrera autonomistak izan ondoren, hortik euskal Estatutua defendatzera pasa zen –Nafarroa barne zela-. Agian nazionalistekin batera frankismoari buru egin beharrak ekarri zuen hurbiltze hori. Frankismoaren kontrako borroka indar-bidezkoak eta Euskadirentzako independentziaren defentsak, hura ere indar-bidezkoak, ETA izan dute eragile nagusi hirurogeigarren urteetatik (Euskadi Ta Askatasuna). Hark ere Nafarroa Euskadi independente horretan egotea bilatzen zuen.

Francoren erregimeneko azken hiletan, eskuineko eta zentroko sektorerik moderatuenak ere (liberalak, demokristauak, sozialdemokratak) hasi ziren antolatzen, diktadorea hiltzen zenean etortzeko ziren aldake-tei begira.

Orduan Nafarroak, dudarik gabe, Espainiarekin konparatuta agita-zio politiko bortitza zuen (indarrezkoa nahiz indargabea).

21.4. Trantsizioa Nafarroan. Konstituzioa eta Hobeagotzea

Eta izan ere, Francisco Franco hil zelarik (1975 azaroaren 20an), berrogei urte diktadore izan ondoren, trantsizio politiko eta instituziona-lerako prozesu bat hasi zen, gaurko sistemara bidean, bai Espainia osoan nola Nafarroan. Baina prozesu horrek, ez Nafarroan ez gainerako Espainian, ez zituen izan eragile nagusi aurreko urteetan garrantzi gehien izandako taldeak. Nafarroako kinka politiko gogorrarengatik ere, eta oposizio politikoaren alderdiak kontra zirela, trantsizio politi-koa onartzeko erreferendumak baiezko emaitza izan zuen Nafarroan, nahiz eta Espainiako batz bestekoa baino gutxixeagokoa izan(errolda-ko hiru laurdenek aldeko botoa eman zuten). Ondorengo hauteskun-deek (1977ko ekainean) Unión de Centro democráticoari eman zioten garaipena –Adolfo Suárez, trantsizioa itxuratu zuen politikoaren ingu-ruan bildutako zentro alderdien elkarte-, hiru diputatu eta hiru sena-dore atera baitzituen; Alderdi Sozialista, Nafarroan antolatu berria zelarik ere, bigarren geratu zen (bi diputatu). Sozialisten eta eusko na-zionalisten arteko aliantzak senadore bat eman zien nazionalistei. Kar-listak, ORT, ezker abertzalea, hau da, frankismoari gogorren borroka

egin zioen taldeak, Gorte Konstituziogileko ordezkariarik gabe geratu ziren. Nafarroako gizartea aurreko egoera politikotik igartzen zitzaion baino moderatuago azaldu zen.

Joera horiek bururaino joan ziren, alderdi sozialistak bere jarrera aldatu zuenean Nafarroa eta Euskadiren arteko auzian; aurrena auzia bigarren mailakotzat aurkezten hasi zen eta hurrena garbi arbuia zuten Nafarroa Euskadirekin batzea, bai eta Nafarroarentzako autonomia propioa eta foru instituzioen erreforma deblau defendatu ere.

Bi auziok (Euskadirekin batzea, foru erregimenaren erreforma) transizio urteotako bizitza politikoa markatu zuten.

UCD eta alderdi kontserbadoreak, bereziki Unión del Pueblo Navarro, hasiera-hasieratik Nafarroa Euskadiko Elkarte Autonomoarekin batzearen kontra azaldu ziren, elkarte sortu baino lehendik ere. Alderdi Sozialistaren aldetarekin -1981ean banatu zen Euskadiko PSEgandik- nafar botoetako hiru laurdenak batzearen kontrako alderdiek jasoko dituzte («Navarristak»); aldekoak («abertzaleak»), berriz, bostena ziren. Guztiarekin ere boto nazionalistaren kontzentrazioari esker zenbait eskualdetan gehiengo atera zuen (batez ere Nafarroako ipar mendebalean), 1979an merindadeen arabera hautatu zen lehenbiziko Diputazio demokratikoan zenbait ordezkari izateko adina (zazpitik bi). Arlo horretako zirkunstantzia berezi bat: nazionalismoak Nafarroan zuen indar nazionalistarik handiena 1979tik aurrera ez zen gehiago PNV izan, Herri Batasuna baizik, erradikalagoa baitzen Nafarroa batzearen kontuan eta Euskadirentzako independentziaren auzian ere bai.

Guztiarekin ere, 1978ko Konstituzio Espainolak, komunitate autonomoetan antolatutako estatu bat taxutzean, sistema bat ezarri zuen Nafarroak gero batean nahi bazuen Euskadiko Elkartearekin bat egiteko. Bai Euskal Estatutuak eta bai Forua Hobetzeko Legeak zehaztu egin zuten nola izanen zen: Nafarroako Parlamentuak onetsi eta erreferendum batean baiezkoa eman behar zitzaion. Dena dela, Komunitate beregain baten aldekoek gehiengo garbia atera izan baitute orain arte, Euskadirekin batzeko prozedura estrainatzeko dago oraindik.

Modu berean eta aurreko auziarekin harreman garbian, urte haie-tantsu egin zen foru erregimenaren erreforma. 1975eko Diputazioak,

Francoren garaian hautatua eta Amadeo Marco lehendakariordea buru zuela, instituzioen demokratizazio bat negoziatu zuen Suárezen gobernuarekin. Foru Parlamentu bat eta Diputazio bat hautatu ziren, boto gehien jaso zituzten merindade bakoitzeko zerrendaburuez osatua. Diputazio horren gainean Parlamentuak oso kontrol gutxi zuen. 1979ko apirileko hauteskundeetan berriz ere UCDk izan zuen gehiengoa (20 parlamentari 70etik), ondotik oso hurbil zerraizkiola PSOE (15) eta UPN (13). Alderdi nazionalistek, osotara beste hogeit hamar parlamentari izan zituzten eta alderdi karlistak eta koalizio independente batek bana. Diputazioan are korapilatsuago partitu ziren postuak (eta zaila zen), botoak merindadeen arabera hain diferente banatzearen ondorioz: UCDk lau jarleku izan zituen (Iruñekoa eta Lizarra, Tutereta eta Erriberriko merindadeetakoak); PSOEk bat (Tutereta); Hbk bat (Iruñeko merindadea) eta Orhi-mendi koalizioak, nazionalistak, beste bat (Zangoza).

Diputazio konplikatu honetan bizitza ere konplikatua izan zen: berak negoziatu behar izan zuen gobernuarekin foru instituzioen eta Nafarroako erregimenaren behin betiko erreforma; azken emaitza Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa izan zen. Erdarazko izena (*amejoramiento*) Erdi Arotik zetorren eta Nafarroako foru erregimena Erdi Aroarekin lotu nahi zuen hortaz, Nafarroaren nortasuna Espainiako beste eskualdeen artean nabarmenarazteko. Halatan, Nafarroaren autonomia ez zen konstituzioak emana izanen; aitzitik, Konstituzioak bere testuan bertan aitortzen zuen Nafarroak eskubide historikoa zuela bere bere erregimena izateko eta hobeagotze horrek hori azpimarratu nahi zuen.

Legea Foru Parlamentuak eta Gorteen onetsi zuten 1982ko abuztuan. Nafarroako Gobernu edo Diputazio bat ezartzen du, zeinaren lehendakaria Parlamentuak hautatzen duen. Lehendakari horrek izendatzen ditu bere gobernuko kideak –kontseilariak–; inongo hautagaiek ez badu legebiltzarraren onespena beretzen, jarleku gehien dituen alderdi edo koalizioaren hautagaia izanen da lehendakari. Lege Hitzartuak eta ondorengo hitzarmenek Nafarroari ematen zizkioten eskumenez gain (fiskalak gehienbat), Nafarroak hezkuntzaren arloko beste asko hartu zituen, ekonomiaren eta lurraldearen antolamenduari buruzkoak, ko-

munikazio eta osasunaren gainekoak, garrantzia berezia duten batzuk aipatzeko.

Hobeagotzearen ondoren Parlamentuko lehen hauteskundeetan, hauteskunde barruti bakarra zegoela, (ez merindadeen arabera aurrekoan bezala), Alderdi Sozialistak izendatu zuen lehendakaria, bera izan baitzen botorik gehien jaso zuen taldea (20 jarleku); UPNk 13, Alianza Popularrek (Partido Popularraren aurrekaria) 8; Herri Batasunak 6 eta Eusko Alderdi Jeltzaleak 3.

22

MODERNIZAZIO EKONOMIKOA

Nafarren pentsakera politikoa eta gizarte ohiturak XX. mende hone-tan hainbestearino aldatu badira, zerikusi handia izan du dudarik gabe Nafarroak izan duen eraldaketa ekonomiko handiak, Espainiako garape-naren aurreneko lerroan jarri baita, mende hasieran askoz xumeagoko egoera batetik abiatu bazen ere.

22.1. Nekazaritza mantso esnatu da

XIX. mendearen bukaeran, esan bezala gehitu egin ziren laboran-tzarako lurak eta filoxerak krisi latza ekarri zien mahastiei. Kooperati-ben aldeko lehenbiziko ideiak ordurako hasiak ziren Nafarroako neka-zariengan erro egiten, zenbait apaizek ekarrita, Eliza Katolikoa bera ere hasi baitzen gizarte auziari garrantzia gehiago ematen.

Auziok guztiok mende hasieran orokortu eta ebatzi ziren. 1900 urte inguruan 270.000 Ha. laborantza-lur baldin bazituen Nafarroak, 390.000 ziren gerraren aurretsuan, eta 416.000 1950ean. Berrogeita hamar urte horretan behin bateko larre eremu handiak luberritu egin ziren, bai pri-batuak nola komunalak; Montes de Cierzo mendietako eta Bardeetako laborantza-lurra, mende erdi bat lehenago egoten zenaren asko halako zen orain.

Jakina, lanaren mekanizazioak ahalbideratu zuen zabalkunde hori, orain posible baitzen ordu arte desegokiak ziren lurra errentagarri esplotatzea. Hamarkada horietan lehenago izaten ez ziren edo bakan izaten ziren makinak orokortu egiten dira: golde belarridun birakaria, segamakinak, eultzimakinak eta, jakina, ongarri kimikoak, animalia ongarrien ordeko abantailazkoa. 1909an ongarri kimikoen fabrika bat sortu zen Iruñean, premia horien parte handi bat asetzeko. Lur pobreek hobetu egin zuten beren emaitza eta aski zen denbora gutxiagoan uztea larre; hortaz osotarako produkzioa ere berretu zen.

Mahastia, berriz, ez zen hain azkar mekanizatuko. Artean ere filoxeraren ondorioak berdindu ezinik zebilen, izurri horrek Nafarroako mahastia ia erabat suntsitu baitzuen XIX. mende bukaeran. Egun horietan bertan, Foru Diputazioak lehenbiziko bideak urratu zituen mende askoan Nafarroako nekazari askoren bizibidea izan zen mahastia bezalako lan bat salbatzeko. Nekazaritza Zerbitzua 1896an fundatu zen; saiatu zituen Amerikatik ekarritako mahats klase berriak, filoxerarik izaten ez zutenak; dirulaguntzak eman ziren mahatsa landatzeko eta mahasti erituen gaineko kontribuzioak apaldu.

Pixkanaka mahats produkzioa lehengora zetorren, baina mahasti lurren azalera ez zen inoiz izan filoxera baino leheneagokoa izaten zena. Horrek, ordea, hobekuntza ere ekarri zuen, orduko neurrian: zoruak analizatu ziren, ongarri kimikoak sartu, landareen osasuna hobeki artatu, gaitzak ere hobeki tratatu eta abar.

Erregadioan izan zen hirugarren aldaketa handia. Erregadioko azalera gora egin zuen eta modernizatu ere egin zen Lodosako kanala egin zenean, 1935ean bukatua; kanalak Erriberako zati handi bat pasatzen du. Urtegiak ere egin ziren: Allozkoa (1930), Ebrokoa (1947). Hango ur gordairuak erraztu egin zuen udan ere ureztatzea soroak. Berrogeita hamargarren urteen bukaeran Yesako urtegia eta Bardeetako kanala jarri zen martxan (1959). Ura soroetara ekartzeko sistema ere eguneratu zen noriak motobonbak eta banakuntzako uharkak erabiliz. Horrela modua egin zuten aspaldi bateko ur-kanaletatik urruti xamar ere soroak ureztatzen.

XIX. mendea bukatzeaz zela, azukretarako erremolatxa sartu zen, Kuba beregaindu zenetik azukre inportazioak murriztu beharrak zirela-

ko. Erremolatxak familia asko salbatu zituen orduan pobreziatik, herri askotan filoxerak hondatutako mahastiaren ordeztarri baitzen, eta bai olibadiaren (emaitza eskasekoa zen) eta patataren ordeztarri ere. Tuteran eta Marcillako azukre fabrikaren ondorengatik Corteskoa (1918) eta Iruñekoa (1927) ere jarri ziren. berrogeiko hamarkadatik aurrera labore hori ere gainbehera hasi zen. Orduan alfalfaren gorakada hasi zen, azienda bazkatzeko landarea baita, laboreekin txandaka erabiltzen dena, lurra agortu gabe.

Garapen ekonomiko eta sozialaren artean, beste gertakari batek, hura ere XIX. mende bukaeran abiatua, garrantzia larria izan zuen nekazaritzaren aldetan: Nekazarien kooperatiba mugimenduaren gorakada. Nafarroan zabalkunde berezia izan zuen (nahiz bestetan ere izan zen). Nafarroan –eta beste tokietan– apaizak izan ziren abiatzaile, (Leon XIII.ak elizaren dotrina sozialaren gainean egindako entziklikak bultzagarri (entziklika da Aita Santuak gai bereziren baten gainean egiten duen idazkia). Elizak klase pobretuenei zuzentzen ziren mezu hori eta gogor egin ziren kontra idea kapitalistei nahiz marxistei. Antonio Yoldi (Apaizgaitegiko irakaslea) eta Victoriano Flamarique izan ziren mugimendu honen eragile nagusi.

Nekazari kutzak (hala baitzeritzen kooperatiba horiei gehienei) hasi berri kreditu kooperatibak ziren, nekazari askoren artean ongarria edo makinak erosi ahal izateko, denek elkarrekin pagatzeko konpromisoa hartuta. Horrela, bakarka bere lana ezin mekanizatu eta beren lurra ezin hobetu zuten nekazariak aukera zuten antzeko egoeran ziren nekazariekin elkar hartuta hori lortzeko. Fitero, Tafalla (1902), Erriberri (1904) izan ziren lehenbiziko kooperatibak, baina 1910erako hirurogeita hamar nekazari kutxa baino gehiago baziren eta denen artean Nafarroako Federazio Katoliko Soziala fundatu zuten; 1935ean ehun baino gehiago ziren. Ardogintzan ere antzeko kutzak sortu ziren; Erriberriko ardogintza kooperatiba eta San Martín de Unxeoak izan ziren lehenbizikoak. Bakana, produktio kooperatibak ere sortu ziren, hainbat nekazariren lurrak elkartuta. Gehienetan ongarria eta makinak erosteko besterik ez ziren. Makinak Kutzaren jabetzakoak ziren eta kutzak sozioei uzten zizkien, zeuden txanda eta premien arabera.

Kutxa horiek herri askotan kontra izan zituzten lurjabe aberatsak, kolokan ikusten baitzuten beren nagusitasun ekonomikoa eta prestigio

soziala. Behin baino gehiagotan horrek beren elkarte propioak fundatzen eraman zituen, gehienbat mahasti lurretan (*Unión de Cosecheros de Olite* 1913an, adibidez).

Kooperatiben eragile eta aldeko nagusiek, Yoldi eta Flamarique kasu, nekazaritzako industriekin lotutako enpresak ere bultzatu zituzten: *Harinera Navarra* (1908), Erriberri, San Martín, Uxue eta Pueyoko kutzak osakide zituena edo ongarrri fabrika baten proiektua (nahiz horrek kale egin zuen, antzeko proiektua zuten inbertsore batzuek kontra egin ziotenean). Azkenean Eliz Hierarkiak baztertu zuen nekazari mugimendutik A. Yoldi, proiektuaren eragilea.

Porrotak ere izan ziren. Konparazio batera, Erriberriko Nekazari Kutxako krisi ekonomiko baten ondorioz Victoriano Flamarique ere bere lan soziala utzi beharrean egon zen (1927). Dena dela, mugimendu horrek behar adinako bultzada eman zien lurjabe xumeei, maizterrei eta jornaleroei nekazaritzako egiturak nabarmen modernizatzeko. Mendearren bigarren erdian nekazaritzaren garapenak beste bide batzuk hartuko ditu eta nekazari kutxak pixkanaka txikituz joan eta askotan desagertu ere egin ziren.

Izan ere, berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera bigarren modernizazio prozesu bat hasi zen, bi alderdi nagusitan oinarrituta: alde batetik makina berriak sartzea; traktoreak hartzen dio lekua abere bizidunak trakzioari eta hari esker berrikuntza teknikoak sartzen dira goldeetan ere, ordu arte pentsatu ezinekoak, hala nola ildo-askokoak (belarri asko edukita aldi berean ildo bat baino gehiago eta lehen baino sakonago egiten dituzten goldeak), ereiteko makinak. ongarrimakinak eta abar. Baina bestetik uztamakinek lehenagoko sega makinak eta eultzimakinak lana askoz hobeki egiten dute, bi lanok batera egiten baititu eta askoz azkarrago eta hobeki. Industrian lortutako errenten parte bat nekazaritzan berrinbertitzeak (herrietan maiz izaten den bezala nekazari-langileak izateak alegia) erraztu zituen behin baino gehiagotan berrikuntza tekniko horiek.

Baina mekanizazio hori ezin zitekeen soroak handiagoko partzeletan kontzentratzen ez baziren. Bateratze horrek irispide sozial eta ekonomiko handia zuen. Makinek, izan ere, handiagoko partzelak behar

zituzten lan egin ahal izateko, batez ere iparraldeko eremu menditsuetan, non partzelak askotan Ha. 1 baino txikiagoak –eta bai askoz txikiagoak ere– izaten zirelako maiz. Partzelen kontzentrazioak, 1957an hasita, laborantza-lurretako heren bat hartu zuen ondorengo hogeitertean, gehienbat labore lurrak.

Eztabaida handiko gaia izan zen, lurren jabetza aldatu behar zelako lurjabe bakoitzaren lurrak handiagoko partzeletan kontzentratu ahal izateko. Kontuan hartu behar ziren, beraz, terreno bakoitzaren kalitatea eta produkzioa, lantzeko kondizioak eta abar, ahalean ez egiteko nekazari batzuei kalte eta beste batzuei on.

Kontua are zailagoa zen lur horietan mahastiak edo oliboak zeude-nean, horiek urteak behar baitzituzten beren produkzio punturik hobere-na iristeko, eta ezin baitziren toki batetik erauzi eta beste batean landatu. Horregatik partzelen kontzentrazio honek produkzio gutxiko mahasti-olibadiak kentzea faboratu zuen, batez ere Iruñerrian, eta bai labore soro txikiak ere, aspaldi mendiari kendutakoak eta handiagotu ezinekoak.

Osotara mahastiak, orain, 1950ean zuen azaleraren erdia du, baina mekanizatzeak eta mahats klasea ongi aukeratzeak dudarik gabe kantitateka kalitatean ordaindu du. laboreka sekano lur guztiez jabetu da eta txandakatzeko landare berriak erabiltzen dira, koltza edo eguzkilorea kasu. Erregadioa berrogeitaka hamar mila hektareatik gora joan zen laurogeikoka hamarkadan, gehien-gehienak artotarako eta barazkitarako jarririk.

Mendez eta mendez abeltzaintzak itxuratu bazuen mendialdeko herrien paisajeka (baserriak, herri txikiak, larreak), hori ere erroitik aldatu da gaur. Bazkaka laboreak hedatu dira eta bai pentsu konposatuak ere; horri esker ia erabat ezeztatu da ekialdeko ibarretan egiten zen larre-aldaka (Erronkarin eta Zaraitzun) eta mendebalekoetan azienda urte osoan mendian edukitzea ere joan da. Orain gehienbat ikuilukoka azienda gailendu da. Urtegiak egin direlarik eta tren eta kamio bidezko garraioa sartu delarik, oihan lana ere asko aldatu da eta almadierorik ere, adibidez, ez da geratzen lehen bezalaka zura ibaietan barrena Ebroraka eramateko.

22.2. Industria iraultza

Mende honetako nekazaritza iraultzak dudarik gabe eskulan soberakina sortu du herrietan. Baina horregatik beragatik, bestalde, industriaren premiak berdindu ahal izan ziren, mekanizazioaren eta kontzentrazioaren urte haietan beretan industriak XIX. mendean eta XX. mendearen zati batean izan gabeko garrantzia hartu zuenean.

XIX. mendea bukatu arte Nafarroan mendietako ola bakan batzuk beste industriarik ez zegoen, kalitate eskas xamarreko burdin minerala erabiliz, inportazioekin osatua.

Nekazaritzako aldatetei esker, ordea, sektore horrekin lotutako hainbat industria sortu ahal izan ziren. Aipatu ditugu Marcilla, Tuteran, Cortes eta Iruñeko azukre fabrikak eta Iruñeko produktu kimikoen fabrika -ongarriak gehienbat- (1909). Baina alkohol fabrikak ere sortu ziren, eta batez ere kontserba enpresak Lizarrako eta Tuterako Erriberan. Mendearen lehenbiziko urte horietan hasi ziren irin fabrikak ugaltzen, 1912an hirurogei bat ziren, gehienak garrantzi ekonomiko gutxikoak, baina zenbait aurrerakuntza mekanikoz hornituak. Lodosako fekula fabrika, Atarrabiko paper fabrika berritua, Bakaikuko asfaltoak (1897), dira bultzada industrial txiki horren beste mostra batzuk.

Garrantzi gehiagokoa izan zen «Irati» inguruko lantegi saila. «Irati» batera zerrategia eta destilategia zen eta bai bide meharreko trenan ere, salgaiak eta are bidaiariak berako Burdingintzara eramateko, mende hasieran 350 langileri ematen baitzien lana.

Guztiarekin ere, eta ehun inguru indarrola txikik beste hainbeste herriri, ibarri edo enpresari indarra ematen bazieten ere, gerra zibilaren aurreko Nafarroak funtsean oso maila lokaleko industria zuen, langile gutxirekin eta eskualdeko aberastasunaren osotasunean garrantzia gutxirekin.

1940-1950ean handixeagoko industria batzuk sortzen hasi ziren, erabateko industrializaziora bidean. Kimika arloko enpresak dira (Inquinasa, 1940), metalgintzakoak (Imenasa, 1953; Inasa 1956) edo Erreniegako potasak esplotatzekoak (Potasas de Navarra, 1960), adibide

bakan batzuk baizik ez aipatzeko. Askotan pertsonaia lokalek bultzatzen dituzte enpresok, Félix Huartek, adibidez.

Félix Huartek berebiziko eragina izanen du, Diputazioaren lehendakariorde postutik. Industria Bultzatzeko Programa abiarazteko (1964), Nafarroa bete-betean sarrarazteko Espainia iparraldeko beste eskualde batzuetan askoz biziago zegoen industrializazio prozesuan. Nekazaritza modernizatzeak sortutako eskulan soberakina eta emigrazio tradizionalak ere lagun egin zuten eginahal horri buru ematen.

Diputazioak poligono industrialen sare bat onetsi zuen, batzuk berak bultzatuak (Landaben Iruñean, kasu), edo bertakoek bultzatuak (Bera, Doneztebe, Lekunberri, Ultzama, Altsasu, Etxarri-Aranatz, Irurtzun, Irunberri, Zangoza, Lizarra, Tafalla, Viana, Lodosa, Marcilla, Tuter eta Corella); tokian tokiko udalek asko egin zuten poligonook aurrera ateratzen, zeinek bere posibilitate finantzarioen eta kokaleku onaren arabera. Bertan ezartzen ziren industriei dirulaguntza larriak ematen zitzaizkien eta bai zergetatik salbuetsi ere; horri esker konpainia berri franko etorri ziren aski denbora gutxian. Guztiarekin ere, Iruñak erakarri zituen industria gehienak, eta hoberenak, eta hortaz hiriburua-ren inguruko kontzentrazio moduko bat sortu zen.

Nazioarteko egoerak ere, gorakada nabarian, eta Nafarroak Espainiako garapenearen bi ardatzen artean zuen kokaleku egokiak (Kataluniaren eta Bizkai-Gipuzkoen artean), lagundu zioten proiektuaren arrakastari, eta bai errepide sarearen hobekuntza izugarriak ere.

Authi bezalako enpresa handiak (gero Seat) hemen ezarri zirelarik, ondotik osagarritzko enpresa sail bat zekarrela, eta elikadura industria berriak ere ezarri zirelarik (Argal, Pamplonica) eta elektrodomestikoa (Super Ser), errealitate ekonomiko berria asentatu egin zen, sektore hauetan oinarritua: eraldaketa industria metalurgikoan –automobilaren inguruan– industri polo handietan eta nekazaritzako elikagai industria berrituan, hainbat hamarkadaren tradizioa baitzuen hemen.

1973tik aurrera, produktu energetikoen prezioak gorakada latza egin zuelarik, mendebaleko industria behin eta berrizko krisietan sartzen da. Nafarroako industria aski modernoa baitzen, beranduago jaso zuen 1973ko krisiaren eraso eta leunago (baina aski latz hala ere) Es-

painiako beste eskualdeek baino, batez ere metalurgia ardatz zutenek baino (Bizkaia edo Asturias, kasu). Eta goraldia hasi zenean ere, 80.eko hamarkadan, Nafarroak bestetan baino gehiagoko hobekuntza izan zuen eta horri esker hobexeagoko egoeran iritsi zen 90.eko hamarkada hasierako kolokaldietara.

Guztiarekin ere, Nafarroak enpresa ertain gutxi ditu, eta horiek izaki beste merkatuetan konpetentzia egiteko hoberenak; enpresa txikiak (5-25 langile) guztien bi heren dira eta enpresa handiak (100 langiletik goiti), %10 ere ez direlarik, langileen %60 biltzen dute.

Nafar jendearen lan ohituren aldaketa ikaragarria izan da joan den berrogei urte honetako industrializazioarekin. 1960an oraindik ere langile populazioaren erdia sektore primarioan aritzen zen (Nafarroan nekazaritza batez ere), eta %25 baizik ez sekundarioan (industrian). 1990ean, ordea, %6 eta 40 ziren, hurrenez hurren. Eta zifra horiek are handiagoak izan ziren hirurogeita hamarreko hamarkadan, baina orduz geroztik behera egin du sektore tertziarioak azkar gora egin duelako hamarkada horretan bertan.

22.3. Zerbitzuetarako eskualdea

Industrializazioak ia ezinbestez lurralde bateko bizilagunak hirien inguruan kontzentratzea ekartzen du berekin, eta horrek, bestalde, herritar horiei hainbat zerbitzu espezializatu eskaini beharra ekartzen du (irakaskuntza, komunikazioak, komertzioa, zerbitzu administratiboak), mendebaleko gizarte garatuen oso tipikoak –baina ez beti eksklusiboak–. Lehenago ere aipatu dugu nola XIX. mendeko eta XX.aren hasierako Nafarroak komertzio egitura ahula zuen eta irakaskuntza eskasa, komunikazio sare oso berrituaren kontrastean. Beste hainbat gauzatan bezala horretan ere aldaketa izugarria izan zen mendean zehar. Aski da esatea 1990 inguruan langile populazioaren erditsua «zerbitzu» horietan aritzen dela, mende erdia lehenago ez baitzuten esateko moduko garrantzirik nafarren bizitza ekonomiko eta sozialean.

Komunikazioei dagokienez, mende hastean aurreratuak ginen gainerako Espainiarekiko, eta eutsi eginen zaio abantaila horri hurrengo ha-

markadetan; errepide sarean, adibidez, bikea azken herriraino iritsi zen. Baina biderik modernoena hirurogeita hamarreko hamarkadara arte ez ziren egin. 1974an Nafarroako Autobidearen lanak hasi ziren, Castejoren Ebroko autopistarekin batu eta printzipioz Gizpukoarekin lotura egiteko. Baina Irurtzunen geratu ziren lanak eta lauregeita hamarreko hamarkadara arte ez zen Iparreko autobidea (polemika politiko eta ekologiko latzak lagun) iritsi Gipuzkoara (Adoainera) eta kontinenteko komunikazio bide handietara. Hamarkada horretan Sakanako autobia ere egin zen, Arabarekin eta Gaztela-Leonekin lotzeko. Hegazkin bidezko garraioa ere berandu iritsi zen. Noingo aireportua 1973an hasi zen hegaldi erregulartan, Iruña Bartzelonarekin eta Madrilekin lotuz.

Tren bidezko trafikoa, aldiz, bere hartan geratu zen eta bai atzeraka hasi ere goiz aski. Pixkanaka bide meharreko trenbide guztiak kendu ziren. 1953an Plazaola kendu zen (Iruña-Donostia); handik bi urtera Irati ere bai, 1911tik Iruña eta Zangoza lotzen zituena, 1906an sortua Agoizko fabrikak produzitzen zituen materialak garraiatzeko. 1955ean Cortes-Borja linea ere kendu zen, XIX. mendean sortua, eta 1956an Bida-soako trenbide ere bai, 1916tik Irun eta Elizondo lotzekoa. Azken egin zen bide meharreko trenbidea, Vasconavarro delakoa, 1927an Gasteiz eta Lizarra lotu zituena, 1967an gelditu zen. Tarazona-Tutera linea mantendu zen bakarra, baina zabaldua eta Renfek beretua. Renfe 1941ean sortu zen sarea nazionalizatzean (bide meharrekoa konpainiak salbu). baina nazionalizazio horrek ez du inolaz ekarri Nafarroako sarea gehitzerik, Altsasua-Iruña-Castejón-Cortes lerroa baizik ez baitu estaltzen gaur ere, XIX. mendean egin zen lehenbiziko lerroa hain zuzen.

Horren aurkez, autobus lerroak 1910ean hasi ziren (Iruñetik Lizarrara eta Baztanera); tranbia zerbitzua egon zen Iruñean 1911tik eta Atarrabiarainoko autobusa urbanoak ere bai 1911tik («villavesak») 1929tik. Iruñak, halaber 1912an izan zuen lehenbiziko telefono sare baten proiektua, nahiz zenbait erakunde ofizialek zenbait urte lehenagotik zeukaten telefona.

Komunikazioen modernizazioak, automobilak normal erabiltzeak hirurogeigarren hamarkadatik aurrera, eta oro har bizimoduaren aldaketak garrantzia kendu zien herrietako feria eta merkatuei. Ez ziren desagertu, eta batzuek beren eskaintza berritzen ere jakin dute, baina gaur

egun familien eguneroko erosketa dendetan, supermerkatuetan eta are hipermerkatuetan egiten da, eta industriren erosketa, berriz, nazio mailako edo nazioarteko eremuetan. Badira, hala ere, zenbait azienda feria (Auritzen) eta soro lanetarako makinena ere bai (Tafalla) eta bai asteroko janari edo arropa merkatu batzuk, batzuk oso berriak (Iruñeko *mercadillo* delakoa), sektore horrek Nafarroako komertzioan garai batean izan zuen garrantziaren oroigarri.

Iruñean biltzen da komertzio jardun hori gehiena, populazioz tokatuko zitzaion baino askoz handiagoko neurrian gainera. Beste hainbeste gertatzen da administrazioaren zerbitzu publikoekin ere, Iruñean kontzentratuta baitaude, Iruñeko Udalaren menpeko eta batez ere Nafarroako Gobernuaren menpeko langileak direla medio, jakina, Nafarroak hezkuntza eta osasun arloko eskumenak beretzearan franko ugaltu baitira administrazioiko langileak.

Osasunaren arloan, izan ere, beste inon baino handiagoko aurrerapena izan da. Mende hasieratik bertatik hainbat ospitale sortzen dira, beren garairako aski modernoak, hala nola Tafallako ospitalea, 1922an inauguratua eta tafallarren diru emaitzekin eraikia. Egun haietan bertan Diputazioak ospitale handi bat finantzatu zuen Iruñean, hiri guztiaren eta Iruñerriaren premia guztiak berdintzeko eta bai gainerako Nafarroatik etorritako eriei ere kasu egiteko ere. Hiriaren zentrotik urruti eraiki zen –orduan urruti alegia–, Barañaingo mugan, eta orduko osasun arauekin bat. Medikuntza eta farmazia fakultateek eta Clínica Universitaria delakoak (1964), denak Universidad de Navarraren menpekoak, are gorago eragin zioten hirurogeigarren hamarkadan Nafarroaren osasun zerbitzuen mailari. Gizarte Segurantzza eta haren osasun zainketa populazio osoari zabaltzea ere ikaragarrizko pausoa izan zen. Iruñeko Virgen del Camino ospitalea (1962) eta Tuterako eta Lizarrako ospitaleak erakusburu onak dira Nafarroako eriek jasotzen duten tratamenduaren kalitatea agertzeko, eta bai anbulatorioen eta tokian tokiko osasun etxeen sarea ere.

23.1. Nafarroa tradizionala itzaltzen

XX. mende hasieran Nafarroak herentzian hartu zuen gizartea, bide denez, aurreko hamarkaden eredu beraren arabera moldatua zen. Erlijiozaletasun handia zela medio, Nafarroak gogor egin zion kontra mende hasieran hierarkia katolikoari erasotzen zieten gobernu liberalei; manifestazioak ibili ziren karriketan barrena protesta agertu beharrez (50.000 bat jende 1910ean, kronikek diotenez). Erlijioak zuen indarraren beste erakusgarri bat aipatzeko, gizon-emakume asko eta asko joaten ziren apaiz-monja edo misiolari -Espainiako batazbestekotik oso gora-, nahiz eta egia den famili egoera askok bide ematen zutela hartarako.

Funtsean nekazari komunitatea zen, bai eta urbanizatuenik zeuden eremuetan ere, eta hortaz ohitura tradizionalei atxikimendu gogorra zien. Gizarte hartan familiak eta beraz familiako hierarkiak pisu larria zuen. Gurasoek erabakitzen zuten herentzia nola partitu -edo maiorazkoa-, baina bai eta nor joanen zen apaiz edo nor joango zen herbestera ere. Eta gainera jokabide sozialerako ereduak aspaldi-aspalditik zetozen eskemen arabera ziren. Hori guztia ez zen Nafarroaren gauza esklusiboa, baina Nafarroan bereziki gogor bizitzen ziren zirkunstantzia horiek.

Horrenbestez, eredu hori nola-hala bere hartan egon zen -nahiz ez krisirik gabe- gerra zibilaren ondora arte. Eredua horrek azaltzen du, halaber, zergatik 1936ko matxinadak hain erraz harrotu zituen nafarrak eta zergatik gerra ondoko urteetan Iruñeko apaizgaitegiak mila ikasle izaten zituen bere geletan eta zergatik Xabiererako erromeriek, jabieradek, hainbesteko jende arrakasta izan zuten, noiz eta gerra bukatu berrian.

Baina egitura ekonomikoak berritzean, bide denez, egitura sozialeko aldaketa sail bat ekarriko zuen eta horrenbestez nafer jendearen bizi-moduetan eta pensamoldeetan.

23.2. Nekazaritzako liskarrak, industriako liskarrak

Dena dela, ezin utzi daiteke aipatu gabe orduko gizarte kontserbadorea bazen ere, ez zela inondik ere tentsiorik gabeko gizarte monolitikoa. Esan bezala, problema handiak izan ziren korralizak pribatizatu zirenean, eta hainbat herritan nekazari kooperatibak sortu zirenean XIX. mendean eta XX. mendeko lehen urteetan.

Errepublikak ezarri zelarik 1931n eta errepublikako gobernu ezker-tiarrek nekazaritza-erreforma bultzatu zutenean (Nafarroan, halare, inoiz ez zen egin), erreibindikazio sail berri bat sortu zen. Nafarroa erdialdeko haibat herritan berriz bultzatuko da herri lur pribatizatuen berreskuratzea, eta jornaleroek behin eta berriz eskatuko dute soldata igotzeko, UGTko lur langileen Federazioa bozeramaile. Mendavian edo Casedan, adibidez, istiluak izan ziren 1934an. Segur aski Nafarroako hegoaldean UGTek eta PSOEk hainbesteko presentzia izatea eskualde horretako nekazari askoren ezinegonak esplikatzen du. Erreibindikazio horiek, halare, gutxi bete ziren eta gerra zibila -errepublikazaleentzat esan bezalako ondorioak izan zituen- errotik isildu zituen.

Halatan, Nafarroak bere industrializazioa bultzatu zuenean hirurogeiko hamarkadan, industrian ez zegoen langile mugimenduen tradizio handirik, ordu arte izan ziren gatazka guztiak nekazarien artekoak izan baitziren. Hala ere, agudo garatu ziren hainbat sindikato, kristau mugimenduen arrimuan (HOAC, JOC, Vanguardias Obreras) edo mugimendu klandestinoek babestuta (USO, CCOO). Lehenbiziko grebak, diru-es-

kaeren gainekoak, berrogeita hamargarren hamarkada hasieran, baina lanaren arloko gatazka azkartu egin zen 1970etik aurrera bereziki. Askotan oso osagai politiko garbia zuen, Francoren erregimenari aurka egitekoa alegia, baina sindikato akonfesionalak indartuta atera ziren handik, eta garai bateko mugimendu katolikoak, berriz, gainbehera hasi ziren, besteak beste eliz hierarkiak ere ez zituelako oso begi onez ikusten.

1972tik langile gatazkak orokortu egiten dira, batez ere Nafarroako industriari garrantzi gehien zuen sektorean: metalurgian. Edozein enpresa handitan hasitako grebak agudo asko zabaltzen ziren beste industriguneetara. Franco hil baino lehentxeagoko urteetan teinka-giro hori bera sumatzen zen ikastetxe eta komertzio-guneetan.

Halatan, Nafarroako bizitza tradizioz eta itxuraz lasaia bazen ere, Errepublikaren denborako nekazari problema batzuk kenduta, orain erabat alderantziz zen, orduko nekazari eredu eredu industrial batera mugitzen hasi zenez geroztik. Nafarroan Espainiako beste inon baino handiagoko gatazka maila zegoen, langileen erreibindikazioak politikoak ala ekonomikoak ziren alde bat utzita.

Eta erlijio ereduak ere aldaketa latzak izan zituen, dudarik gabe aurreko guztiaren ondorioz. Ingurune sozioekonomikoak bestelako jarrrerak faboratzen zituen. Industriaren garapena eta handik sortu ziren lanpostu ugariak zirela medio, nafar askok ez zuten jada lehen bezalako premiarik bizibide gisa apaiz joateko. Oraingo bokazioak egiazkoak dira baina gutxiago. Diozesako apaizgaitegia apaizgaiez hustu zen, eta Tuterakoa itxi beharrean gertatu; apaiz askok ere apaizgoa utzi zuten.

Guztiarekin ere Nafarroa Espainiako batazbestekoaz gorago zegoen erlijiozko praktikari dagokionez, nahiz eta ordu arte bezalako suhartasunik ez zegoen. Eta egun horietan bertan gero eta maizago ikusten hasi ziren beste konfesio batzuk (protestanteak, eta gero musulmanak), nortasun sozial eta ideologikoaren krisi honen denboran.

23.3. Nekazari bihotzeko gizarte urbanoa

Mende honetako lehenbiziko hogeita hamar urteetan Nafarroako populazioa %10 besterik ez zen hazi. 1900ean nafarrak 300.000 bizilaguan

netik gora eskas ziren eta 1930ean ez ziren 350.000tara iritsi. Hazkuntza hori, gainera, hiriburuan baizik ez zen gertatu (40.000 lagun 1930ean) eta Erriberan ere bai, hor luberriek eta mekanizazioak faboratu baitzuten dudarik gabe jende hazkuntza. Guztiarekin ere, nafar gehienak artean ere nekazari herrietan bizi ziren. Mende hasieran %20 baino gutxiago bizi zen hirietan (hiriburuan eta eskualdeburuetan) eta 1950ean ez zen %30era iristen. Iruñak berrogeigarren hamarkadara arte ez zituen 50.000 bizilagun izan, bigarren zabalgunek hogeituro urteko bidea egin bazuen ere.

Gainera, hirurogeigarren urteetara arte migrazio mugimendua negatiboa izanen da. Nafarroa emigrazio lekua izan zen mendearen lehenbiziko erdian, salbu eta zenbait aldi jakinetan, gerra zibilean, kasu. 1901etik gerra zibilera 60.000 nafar baino gehiago beren lurra utzi eta Espainiako beste norabait edo Amerikara joan ziren, aurreko denboretan ohitura zenez. Ordu arte bezala orain ere horrek gehiago eragin zion mendialdeari Erriberari baino. Barne desplazamenduak ere izan ziren, iparraldetik nekazaritza berritzen ari ziren hegoaldeko eskualde horietara.

Eta egoera hori bere hartantxe egon zen 1940tik 1960ra. Orain, aldiz, emigranteen jomuga nagusia gerra ondoan berreraikitzen ari zen Europa izanen da, eta lehenagotik industrializatu ziren eskualde eta hiriak, hala nola Bizkaia, Gipuzkoa, Madril edo Bartzelona. Beste helburu exotikoago batzuk ere baziren: Australia, Canada edo Estatu Batuak.

Baina berrogeita hamargarren hamarkadan hasitako industrializazioa zela medio, gehienbat hirurogeigarren hamarkadaren erditik aurrera, joera horiek guztiak alderantziz jartzen dira. Migrazio saldoa erabat aldatu zen 1986an Nafarroako populazioaren %20 (100.000 inguru jende) Nafarroatik kanpoan sortua zen eta hori kontuan hartuta hirurogeigarren hamarkadaren erdiko krisi ekonomikoak asko baretu zuela lan bila zetozen etorkinen jarioa. Bide denez, gehienak eremu industrietan ezarri ziren. Erdiak baino gehiago Iruñean edo inguruan bizi ziren eta gainerakoak eskualdeburuetan partitzen ziren, industri poligono garatu xamartuak zituztenetan.

Baina ez ziren izan etorkinak bakarrik, ez eta gehienbat ere, nekazarien gehiengotasuna aldatu zutenak Nafarroan. De facto, industrializazioaren ondorio nagusia izan zen nafarrak beren jaioterriak utzi eta eremu industrial horietan ezartzea. 1950etik aurrera herrien jende-hustea bereziki azkarra izan zen Pirinioko ibarretan, Agoitz-Irunberriko arroan eta erdialde-ekialdeko Nafarroan (Tafalla eta Zangoza kenduta); eremu horrek, data horretatik 1990era arte erdiraino gutxitu zuen populazioa. Ehun bat herri itzali dira joan den ehun urte honetan, gehien-gehienak mendearen bigarren erdian, eta beste ehun batek 15 bizilagun baino gutxiago zituen laurogeigarren hamarkadaren erdian.

Azken emaitza gisa, hamarkada horretantxe eremu urbanoetako populazioak (Iruña eta bere ingurua, Tuteran, Lizarra, Tafalla eta abar) milio erdi nafarretatik ia bi herenak hartzen zituen, gerra zibila baino lehen zegoen proportzioaren alderantziz.

Iruñak eta bere inguruko hiriek 1990 urte inguruan 250.000 baino gehiago biztanle zituen, eta hiriburuak berak 180.000 baino gehiago. Zeren 1960tik 1990ra Iruñak eremu metropolitano bat sortu du bere inguruan (Burlata, Barañain, Antsoain, Zizur, eta abar), nafarren erdia baino gehiago hartzen zituena, eta hazkuntza aurreikuspenak are handiagotu ziren laurogeita hamargarren hamarkadan Mendillorri bezalako auzoberriak erantsi zirenean.

Eremu honen ondoan, herri bakan batzuk baizik ez dira sortzen garapen urbano horretan, eskaintzen dituzten zerbitzuengatik, beren egituragatik edo tradizio historikoagatik. Tuteran da kasu bakarra: Iruña kenduta ez dago Nafarroan 25.000 biztanletik gora duen beste jendegunerik eta gainera 1950etik 1990ra bikoiztu egin du populazioa. Lizarra eta Tafalla ere hazi dira data horien artean, gutxiago baina: zortzi eta zazpi mila biztanletik 13.000 eta 15.000ra. Haiekin batera Zangoza, Altsasu eta Elizondo bezalako herriak ere eskualdeburu dira eta zenbait zerbitzu industrial, komertzial eta administratibo inportante eskaintzen dituzte.

Ageri da, beraz, ikaragarritzko aldeak daudela Iruña eta bere inguruaren artean; horrek desoreka handia sortzen du, are gehiago kontuan hartuta aipatuz gain beste herri gutxi dutela bost mila bizilagunetik

gora, eta soilik eskualde buru horiek eta Erriberako zenbait eskualde ari direla jendez berretzen, eta aldiz, gero eta gehiago jende galtzen ari direla.

De facto, kanpoko emigrazioa asko gutxitu bada, industrializazioa bera baratu delako eta beste eskualde batzuk sartu direlako industria-ren zirkuituan, laurogeita hamargarren hamarkadan populazioak oraindik ere segitzen zuen gainerako Nafarroatik Iruñera mugitzen.

Harrigarria bada ere, Iruñerriko herri txikiek eusten diote beren populazioari, eta handitzen ere dira batzuetan, Iruñetik hurbil egoteagatik beragatik, herritar horietako askok han baitute lanpostua; famili etxea izaten dute bizilekua edo auzoberriren bat, lasaitasun bila datozen familia gazteak erakartzeko egin horietakoa, baina hiriaren abantailik galdu gabe.

Dena dela, hiriratze hori berandu egin da eta hiritar berriok beren edo beren gurasoen jaioterriari atxikimendu gogorra izaten diote, askotan asteburuko edo udetako etxea izaten baitute bertan. Hortaz, hiritar-tu berriko nafar gehienek lotura sendoak izaten dituzte herriekin. Horrela da ez soilik gertatzen Iruñeko herrietan eta eskualdeburuen inguruko beste herrietan, esan bezala; halaxe da herria bizilekutik urrutia-go dutelarik ere, zintzo joaten baitira bertako erromeria, festa eta ospakizunetara. Nafarrak ez dira oraindik hoztu beren jaioterriarekiko, eta ez ahal dira inoiz hoztuko.

Edozein kasutan, nafarrek laurogeita hamargarreneko hamarkadan duten problemarik latzena jaiotza tasa txikia da: Espainiako txikiena, bikoteko haur eskas bat besterik ez. Horrek populazioa pixkanaka zahartzea dakar, are gehiago gazte jenderik ez duten nekazari herri horietan.

HEZKUNTZAREN BERRIKUNTZA, KULTURAREN BERRIKUNTZA

24.1. Guztientzako hezkuntza

XX. mendea Nafarroan guztientzako hezkuntzaren mendea izan da, eta ez bakarrik eskolarako adinean diren guztiak joan egiten direlako eskolara, aspaldi nahi baino oraintsu arte poliki poliki erdietsi ez den gauza. Horrez gain, mendearen bigarren erdian unibertsitate ikasketak beste norabait joan gabe bertan egiteko aukera sortu da Nafarroan. Beste alde batetik euskara irakaskuntza maila guztietako irakaspide normala izanen da.

Lehen hezkuntza XIX. mendetik ere oso kalitate onekoa zen, Irakasle Eskolatik ateratzen ziren maisu-maistren prestakuntza zela medio (Espainiako hoberenetakoa). Hezkuntza sistema antolatzea oro har Ministerioari bazegoekion ere, Foru Diputazioak, bere autonomia fiskalak ematen zizkion baliabideak erabiliz eta udalen gainean zuen eskumena baliatuz, eragin handia izan zuen beti eskola publikoen administrazioan eta bai pribatuen gainean ere, mendearen lehenbiziko erdian hainbat erlijio ordenaren mendekoak baitziren. Gainera, Administrazio zentralaren elkarlanari esker, aurrena Hezkuntza Publikorako Junten bidez -Gobernu Zibilaren agintztepekoak baitziren- eta 1967tik delegazio probintzialekin, irakaskuntzaren kalitatea, bai maisu-maistren prestakun-

tzari dagokionez eta bai erabiltzen ziren instalazio eta baliabideei dago-kienez, Espainiako batzbestekoa baino askoz gorago egoten zen, Dipu-tazioak beste probintzietan ez bezalako baliabideak ezartzen baitzuen irakaskuntzarako.

Hala ere, eskola mapako aldaketa larriena hirurogeita hamargarren hamarkadan gertatu zen, eskola kontzentrazioak azaldu zirenean, batez ere 1970eko Hezkuntzari Buruzko Lege Orokorrak ekarri zuen erreformatik aurrera: Oinarrizko Hezkuntza Orokorra eta Batxilergo Bateratu Balioanitza (BBB), laurogeita hamargarren hamarkadaraino iraun duen eredu. Herri txikietako eskola gehienak itxi ziren eta herri hortietako haurrak eskola handiagoetara joaten hasi ziren, zeinetan askoz ere baliabide gehiago egoten ziren. Eskola horiekin batera herri txikietako maisu edo maistraren figura ere desagertu zen, kurtso guztietako ikasleak gela berean edukitzen zituztenak, horrek sortzen zituen presta-kuntza problema guztiekin.

Gainera, herri horietako jaiotze tasak behera egin zuelarik, gatzeak hirira joaten baitziren lan bila, ezin zen halako ikastetxerik mantendu, ikasleak askotan ez baitziren hamarretara ere iristen.

Kontrakarrez, errepideak eskolako autobusez bete ziren; ikasleak goiz-goizetik etxetik ate ra eta arratsaldera arte ez ziren etxera itzultzen, eskolan bertan bazkalduta.

Hezkuntza erreforma horrek berak behartu zuen, halaber, hezkun-tza ertaineko eskaintza zabaltzera. 1950ean Iruñeko Hezkuntza Ertaine-ko institutueta soilik -bat neskentzat eta beste bat mutilentzat- ematen zen maila horretako irakaskuntza publikoa. 1970eko legea gauzatu ze-nean, Tuterako institutua ere abiatua zen (1965). Laurogeita hamarga-rren hamarkadaren hasieran, hogeit bat ziren bigarren hezkuntzako institutu publikoak eta zenbait ikastetxe pribatuk ere ematen zuten hez-kuntza maila hori.

Industrializazioaren ondorioz Nafarroan sortu ziren premiak zirela medio, bultza gogorra egin behar izan zitzaion lanbide heziketari ere. 1946an Diputazioak hitzarmen bat sinatu zuen salesianoen ordenarekin irakaskuntza teknikoa emateko, eta hirurogeigarren urteetan, eta are

gehiago hirurogeita hamargarrenetan, hainbat ikastetxe publiko sortu ziren.

Bai eremu batean nola bestean (lehen nahiz bigarren hezkuntzan), ikastolak ere hasi ziren; xeheroago mintzatuko gara horietaz.

1982ko Forua Hobeagotzeren Legeak eskumen osoak aitortzen zizkion Nafarroako Gobernuari hezkuntza gaitan, eta ondoko urteetan xedapen hori egiaz bete zen. Foru Administrazioak bere esku hartu zuen ikastetxeak, irakaskuntza sistema (estaduak finkatzen duen antolamendu orokorretik atera gabe) eta irakaskuntzako eta administrazio-ko langileak kudeatzea.

Irakasletzari unibertsitateko karreraren maila aitortzen zaiolarik, Irakasle Eskola Zragozako Unibertsitateari eratziki zitzaion (1972), Nafarroa unibertsitate barruti horren menpe baitzegoen. Beste ikastetxe espezializatu bat, Atarrabiako Nekazaritza Peritoen Eskola, 1914an Granja-Eskolatzat fundatua, Madrileko Unibertsitate Politeknikoari eratzikiko zitzaion (1978).

Baina Nafarroak 1952ra arte ez zuen bere-bere unibertsitaterik izan, Nafarroako Ikastegi Orokorra (Estudio General de Navarra) sortu zenean (1960an unibertsitate maila aitortu zitzaion. Nafarroako Unibertsitate, Opus Deirena (Eliza katolikoaren institutu erlijioso), Estaduak Elizarekin sinatutako hitzarmenei esker ikasketak ematen ditu; Zuzenbidea izan zen lehenbizi hasi zen karrera; ondoren medikuntza, Filosofia eta Letrak, edo Arkitektura iritsiko ziren, adibide bakan batzuk aipatzeko. 1960an hasi zen Unibertsitateko campusa egiten, Iruñeko Udalak Sadar ibaiaren bazterrean emandako terrenoetan.

1973an UNEDaren ikastetxe eratzikia sortu zen (Universidad Nacional de Educación a Distancia); haren bidez Nafarroako ikasleek aukera zuten klaseetara segido joan gabe karrera bat egiteko.

Unibertsitate zikloa osatzeko, 1987an, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zen, Nafarroako lehenbiziko unibertsitate publikoa, mendez eta mendez erresumak eta Diputazioak berak hainbeste saio alferreko egin ondoren. Campusa, hau ere Sadar ibaiaren bazterrean, Nafarroako arkitekto-rik hoberenetako batek diseinatu du: Francisco Javier Sáez de Oiza. Unibertsitate honi eratziki zitzaizkion Irakasle Esko-

la, Nekazaritza Ingeniari teknikoena (harez gero Goi-eskola) Industri ingeniari Teknikoena (bera ere goi eskola harez gero), zeina Nafarroako Gobernuarena bazen ere Nafarroako Unibertsitateak kudeatzen zuen, eta Gizarte Lanaren Eskola, bera ere Nafarroako Gobernuarena. Oinarri horren gainean beste lizentziatura eta diplomatura asko sortu dira (Soziologia, Ekonomia, Telekomunikazioak, Lan Harremanak eta abar).

24.2. Arte tradizionala, arte berritzailea eta probokatiboa

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren campusa, dudarik gabe, eta Nafarroako Unibertsitatearen zenbait eraikin, aspaldi honetako nafar arkitekturaren pieza gailenetakoak dira. Hortaz, mendea arkitektoen imajinazio ahalegin batekin hasi bazen (lehen zabalgunean egin zelarik), bukatu ere zenbait eraikinen hotsarekin bukatzen da: haien egileetako batzuk Nafarroan sortuak dira eta munduko espezialista hoberenetakotzat aitortuak.

Bitartean Víctor Eusa bezalako izenek Iruñaren hirigintza hastapekin loturik utzi zuten beren izena, hau da, bigarren zabalgunearekin. Armadak noizpait ere amore eman eta utzi zuen harresi zati batzuk eraisten Iruñak hego alderako aterabidea izan zezan. Bigarren Zabalgunearak Cerdàk Bartzelonarako egin zituen ereduetan oinarritu zen. Eusak ondorengo hamarkadetan beste eraikin asko proiektatu zituen: Casa de Misericordia delakoa (1928-1931) eta Apaizgaitegia (1931-1936), orduan hirigunetik aski urruti baina gaur erabat hiri barrenean; eskolapioen eta María Inmaculadaren eskolak ere harenak dira; eta bai zenbait bizitzeraikin ere, adreilu gorria eta ageriko hormigoia erabiliz egiten zituen diseinuak ezaugarri (ikus adibidez Apaizgaitegiko gurutze handia). Ezin sailkatuzko estiloa du. Eusaz gain, aipa ditzagun beste zenbait izen: Yarnoz anaiak, Erriberriko Errege jauregia berri zutenak.

Hirurogeita hamargarren, laurogeigarren eta laurogeita hamargarren urteak abangoardien urteak dira. Hormigoia, altzairua eta berina nahaste eta gailen dabilta L.F. Gaztelu (Nafarroako Aurrezki Kutxa), J. Sanchez de Muniain (Caja Pamplona), F. Redón (Elkanoko Klinika, Ultzamako Golf klubua) eta besteren eraikinetan. Hainbat ingeniari lane-

tan ere bai: Antso Handiaren zubia Ebroren gainean, Fernandez Casadoren. F.J. Saez de Oiza unibertsitate Publikorako egindako proiektua aipatu dugu. Casedako arkitekto honek Nafarroatik kanpora egin ditu lanik ikusgarrienak, hala nola BBVk Madrilen duen egoitza. Beste arkitekto nafar batek ere nazioarteko entzute handia du: Rafael Moneo; Nafarroan Iruñeko Foruen Plaza besterik ez dauka, aldameneko eraikin bat eta bere jaioterri Tuterako eskola bat. Meridako museo erromatarra harena da, Madrileko Villahermosako jauregia Thyssen-Bornemiza museoa izateko berritzea berak egin zuen eta bai Estokolmoko Museo Modernoa.

Arte figuratiboen beste zenbait alorrek ez dute horrelako jarraipenik izan XX. mendean. Eskulturak, XIX. mendean batere garrantzirik izan ez zuena, Fructuoso Ordunaren figura du 1920tik aurrera. Hainbat monumentu itxuratu zituen errealismo espresiboaren barrenean (Pedro navarroren monumentua, Garden -1928-. Julián Gayarrerren monumentua Iruñeko Taconeran -1947-); ezagunena, bere kokalekuagatik, agian Nafarroako jauregiaren frontoi nagusia izanen da (1951). Erljio lanez gain (Zangozako Inmaculada, Iruñeko Pasioaren anaiartearen Kristo altxatua), aipagarria da *Post Nubila Phoebus* gozputz estudioa (1921), Nafarroako Museoa dagoena.

Hala ere, hirurogeita hamargarren hamarkadara arte, abangoardiak etorri ziren arte ez zen egin Nafarroan Ordunarena baino hoberik. Garrantzia handia izan zuten horretan Iruñean ospatu ziren «encuentros» direlakoek (1972), artearen gaineko erakusketa eta debateen foro bat. Erakusketa asko politikoak ziren, frankismoaren azken garaietako agitazio giroari zegokionez. Urte horietan eskultura korrante modernotara hurbiltzen da: Alfredo Sada, Faustino Aizkorbe edo Clemente Ochoa dira hausketak kezka horiek hobekien mamitu dituzten egile batzuk. Haiekin batera Jorge Oteiza bezalako artisten lana ere aipatu behar da, zeren nahiz nafarra ez izan, presentzia handia izan baitzuen hemen, «gaurko euskal artea» deituaren ordezkari gisa.

Pinturak kalitate uniformeagoa izan du mende osoan. Mendea Inocencio García Asarta edo Nicolás Esparza bezalako pintoreekin hasi zen, Bizkaiko pinturaren eragin nabarmenarekin. Enrique Zubiri eta batez ere Javier Ciga bezalako pintoreak euskal kostunbrismoa garatu zu-

ten gehienbat. Aparte aipatzekoa da Lorenzo Aguirre, Europako berrikuntzekin hemengo korrante tradizionalagoekin baino lotura handiagoa zuen abangoardista bat, edo Gustavo de Maeztu, Lizarrarekin lotura berezia zuen arabarra (Lizarran bere obra gordetzen duen museo dago), Espainiako errealitate soziala bere sinbolo esanguratsueta mamitu nahi zuena.

Inpresionisten eragina Bidasoako eskolara iritsi zen: mende guztian zehar gaur arte iraun duen paisajista talde bat, Nafarroan ez ezik Gipuzkoan ere bai.

Guztiarekin ere, paisajisten artean dudarik gabe Jesús Basiano da gailen (1989-1966). Berak ere impresionisten eragina jaso zuen (Regoyosen ikaslea izan zen) eta bai postinpresionismoarena ere bai. Hortik zertorkion, noski, kolorea erabiltzearen gaineko obsesioa.

Hala ere, abangoardia abstraktoak mendearen bigarren erdiraino ez dira iritsiko, Julio Martín-Caro eta Mariano Royo sartzaile dituztela, Nafarroako gaurko pinturaren egile gailenak agian. Haien ondotik berrikuntza etorri eta ugariagoko belaunaldi bat azaldu zen (eta bai bat baino gehiago ere, egile berriagoak kontatzen badira). Izen asko aipa litezke haien artetik (Manterola, Eslava, Salaberri, Morrás, Baquedano, besteak beste); haiexek hartu dute Nafarroako pinturaren agertokia hirurogeita hamargarren hamarkadatik, teknika, motibo eta estilo baria-tuenetan bideak urratzen.

Argazkiaren arloan ere, jakina, ezin da aipatu gabe utzi; Koldo Txamorro da arlo horretako egile sonatuenetako bat, nahiz eta teknika honek lehendik ere bazuen nafarren eguneroko bizitza jasotzen zuen egile bikainik, agian ez hainbeste helburu artistiko batekin, herri lan eta ohi-turak gordetzeko baizik. Ezagunenen artean Santa María del Villarko markesa eta Nicolás Ardanaz aipa daitezke

1981ean Nafarroako jaialdiak antolatzen hasi zirenean (hasieran Erriberriko jaialdiak, bertan ospatu zirelako lehenbiziko edizioak). Gainerako urteko ez landara, Espainiako eta nazioarteko arte agerkari dene-tarikoak ekarri zituen Nafarroara. Zernahi kontzertu, erakusketa, debate, ikastaro eta leihaketa egoten dira udako jaialdi hauetan.

24.3. «Beste» arteak

Jaialdiok, izan ere, gauza bat utzi zuten agerian: arte mota guztiek bistako harremana dutela elkarrekin nahiz eta arte hitza gehienetan haietako bakan batzuk aipatzeko erabiltzen den.

XIX. mendean Sarasate, Gayarre edo eslabá bezalako pertsonaiak eman zituen musikari belaunaldiak jarraipena izan zuen XX.ean ere: Fernando Remacha (1989-1984), *Vísperas de San Fermín* delakoaren egileá, eta bai gaurko musikaren beste zenbait obra aipagarriena, hala nola *Quam Pulchri sunt* motetea. Nafarroako gaien inguruan Lizarrako Rapsodia edo Aingeruaren jaitsiera ondu zituen. Haren garaikidea Jesús García Leoz izan zen (1904-1953), pianista, orkestra zuzendaria eta konpositorea. Modernoagoko egile batzuk aipatzeko, agian Pascual Aldave izanen da gailen, *Akelarre* obra ondu duena besteak beste.

Musikaren irakaskuntzak bultzada handia hartu du azken hamarkada hauetan, batez ere Pablo Sarasate Kontserbatorioari esker. Koroek ere tradizio luzea dute Nafarroan: aipa dezagun Iruñeko ganberako koralá, 1949an Luis Morondok fundatua. Pablo Sarasate orkestra edo Iruñeko Filarmónicak antolatzen dituen kontzertuak dira musikaren arloko beste bi mugarri.

XX. mendeko lehen hamarkadetan literatura erromantiko-historikoa izan zen nagusi, aurreko mendetik etorritako egileen eskutik: Arturo Campión (1936an hila). Haien ondotik idazle kostunbristak etorri ziren, Félix Urabayen, kasu (Madrileko «El Sol» egunkarian argitaratzen zituen kolumnengatik famatua), José María Iribarren (ikertzaile historikoa, hizkuntzalaria eta elaberri-idazlea), Rafael García Serrano edo Ángel María Pascual.

Berrikiagoko literatur idazle batzuk aipatzeko, Pablo Antoñana dugu (*No estamos solos*, *El Sumario*), Ramón Irigoyen (*Los abanicos del caudillo*), Ángel Urrutia (*Me clavé una agonía*) edo Miguel Sánchez Ostiz, segur aski egilerik sonatuena (*Los papeles del ilusionista*, *El pasaje de la luna*, *La gran ilusión*). *Río Arga* aldizkariak idazle berrien eta sagaratuen poesi lanak argitaratzen ditu 1976tik.

Euskarazko idazleak ere ugaldú dira, XIX. mendetik, esan bezalá, euskarari ematen zaion istimazio berriarekin bat. Arturo Campiónek

ere eginzituen, esan bezala euskarazko zenbait kontaera labur. Baina XX. mendearen bigarren erdian sortuko da indartsuen euskarazko literatura, Aingeru Irigaray, Patxi Perurena, Patxi Zabaleta edo Aingeru Epaltza egile dituela, gailenetako batzuk baizik ez aipatzeko.

Giza zientziak eta haiekin hemengo historiak ere gorakada handia izan dute, batzuetan ikusgarria. José María Lacarra bezalako historialariek, Francisco Yndurain bezalako filologoek edo Julio Caro Baroja bezalako etnografoek ezin utzizko lanak mamitu dituzte, zeinek bere arloan.

24.4. Etorkizuna duen hizkuntza

Aurreko mendeetan euskara pixkanaka atzeraka joan bazen ere, eta pentsa zitekeenaz bestela, XX. mende bukaerako egoera arras diferentea da.

Euskara indartzeko lehenagoko saioak gora behera, («Asociación Euskara») bezalako taldeek bultzatuta, hirurogeita hamargarren hamarkadara arte, industrializazioa eta hirien hazkuntza hasten denean, ez da euskarazko irakaskuntzarik sortuko. Lehenbizi ikastolak sortu ziren, gurasoek eta irakasleek euskaraz irakasteko sortutako ikastetxeak, erdara irakasgai zutela. Problema latzak izan zituzten beren irakaskuntza-aren aitormena izateko. Harrigarria bada ere, Iruñean hasi ziren ezartzen eta ez euskaldunak gehiengo diren ibarretan. Hirietako jendeak bultzatu zuten gehien euskararen biziberritzea.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan ikastetxe horiek hasi ziren Diputazioaren dirulaguntzak jasotzen eta laurogeigarrenetik hitzarmenaren sistema (administrazio publikoak %100ean finantzatzeairakaskuntza) izaten dute gehienek, erdarazko ikastetxe pribatu gehienekin ere gertatzen den bezala. Urte horietan beretan ikastetxe publikoetan ere abiatzen da euskarazko irakaskuntza.

1985eko Euskarari buruzko Legeak finkatzen du euskararen egoera legala: hiru hizkuntz eremu ezartzen ditu (euskalduna, mistoa eta ez euskalduna), eta horien arabera garatzen dira euskarazko irakaskuntza

publikoa eta euskararen erabilera, euskaldun eremuan erdararekin batera ofiziala baita. Politika horren agerkaririk bistakoena eremu hartako herrien euskarazko izen ofiziala da.

Laurogeiko hamarkadaren erditsuan 75.000 jende, nafarren %15 bat, euskalduna zela deklaritzen zuen edo ia euskalduna. 1975ean, berriz, 50.000 besterik ez ziren (%12).

Dударik gabe euskarazko irakaskuntza ezarri eta sendotzeko bidean, dudarik gabe, bultzagarri handia izan da, problema administrati- bo eta politiko asko konpontzeaz gain, Euskaltzaindiak *euskara batua* sortzea eta batuera hori irakasbide orokortzat zabaltzea.